



ama-lurraren
kantua

Joseba
Aurkenerena



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JOSEBA AURKENERENA

ama-lurraren kantua

Azala: Marrabila

*Nire ipuin askoren iturri
izan den aita Jose zenari.
Maitasun osoz.*

AURKIBIDEA

HITZAURREA

TURRUIA KAPITAINAREN ALTXORRA

MIHILUZE ZUBIA

ARBASO INPERIALISTAK

GALDÜAREN ANAIA

BASERRI MADARIKATUA

“AGUR MARIA” BATEN TRUKE

APAIZA GIDARI

HERRENA ETA ZEZENA

BI EMAKUME KANPOSANTUAN

DE LANCRE ETA GRAXIANAREN MADARIKAZIOA

GARAIEZINA DA

KONTRABANDISTAREN ARRANGURA

KUBAKO EUSKALDUNAK

Kuba, bai polita Kuba

AITATXIREN ZERRIAK

GOSEA MARGOGAI

AMA-ALABAK MEDIKUENEAN

PAPAGAI BERRITSUA

PATZIKUREN TAKETA

HIRU KASKAGORRIENA

TABERNARI ETORKINA

ZAKIL LUZEAK

TATUAIK

TELEFONOZKO MEZUA

SANTO DOMINGOTIK EKARRI NUEN EMAZTEA

AMATXIREN HAUTSAK

ARGALTZEKO BOTIKA BERRIA

SENDAGILE IRUZURTIA

PINTXO GOXOAK

AUTO-STOPEko MOJAK

BUTANO-BONBONEN ATSO LAPURRA

ERDI EUSKALDUNAK

HITZAURREA

Adio irakurle, oraingoan ere kontu-kontari natorkizu, bizitza hau , azken finean, ipuin luzea baita. Ez dugu oso urrunera so egin behar egunero sortzen diren ipuinekin topo egiteko. Beste moduan esana, ez dago fikzio hoberik errealitatea baino, eta errealitate horretan sustraiturik dakarzkizuet bilduma hau osatzen duten hogeita bi ipuin hauek. Benetan gertatu ote diren, horrela izan ote diren... beste upelako sagardoa litzateke. Ipuin hauetako askok, euskaldunon irudimenean txertaturik, beren bidea urratu dute ahozko kontakizunetan, eta nik, nolabait moldaturik edo birsorturik, liburu honetako lerroetara ekarri ditut.

Beti izan ditugu horrelakoak eta beti izanen ditugu, euskal iruditeriak bizirik dirauen bitartean. Gure aita zenak horrelako aunitz kontaktzen zituen, eta bilduma honetan azaltzen diren ipuin franko haren ahozko kontakizunetan erroturikoak dira. Doakio, dagoen tokian dagoela, ene besarkadarik beroena.

Gaurko gizarte honetan, baloreen aldaketa bortitza ezagutzen ari gara. Elkartasuna, auzolana, lagun-hurkoarekiko begirunea, izadiarekiko maitasuna eta euskaldunon artean oraintxe arte horren sustraituta izan diren horrelako baloreak ahanzten ari gara. Diruzalekeria da gaurko balore bakarra, jainko bakarra esango nuke nik; eta jainko krudel horren mesedetan ari gara gure ingurune guztia hondatzen, sakrifikatzen, errepidez eta eraikinez betetzen. Ama-lurra ahantzia dugu eta proiektu faraonikoak, aberatsek aberatsago izateko behar dituzten proiektu suntsitzaile handi-mandi horiek, gero eta ugariagoak dira: autobide zabalagoak, abiadura handiko trenak, superportua...

Garapena ez da txikizioa, garapena ez da izadiaren suntsipena, garapena ez da izan behar aberatsen sakelak gehiago gizontzeko bide, denon onurakoa baizik. Ama-lurra ez da beti isilik egongo. Goiz ala berant iritsiko da gizakiaz aspertuko den eguna eta orduan denok larrutik ordainduko ditugu diruzale horiek egindako balentriak.

Horri begira eginda daukat bilduma honetako lehen ipuina, eta hortik atera da liburuari ezarri diodan izenburua, ez baitago gizon-emakumeontzat kanturik ederragorik ama-lurrak egunero haizearen, euriaren eta horrelako azalpen miresgarrien bidez oparitzen diguna baino. Bildumako ipuin guztiek badituzte oinarritzko ezaugarri berberak, denak Euskal Herrian gertatuak dira, eta irria, historia eta misterioa ditugu gehien errepikatzen diren hiru osagaiak. Liburu hau itxaropenezko eta askatasunezko kantua izatea nahi nuke. Narrazioak gustukoak izanen dituzulakoan, uzten zaitut, irakurle, alde zurretik liburu hau esku artean hartzeagatik merezi duzun nire eskerrik beroena luzatzen dizudalarik. Ez adiorik!

TURRUIA KAPITAINAREN ALTXORRA

2009ko urtarrilaren bigarren astean Jaizkibelgo labarretan egin nahi duten superportuaren aurkako martxa bat antolatu zuten Lezoko gazte batzuek. Ostiralean, arratsaldeko hiruretan, Goiko Plazatik atera eta Jaizkibel zeharkatu ondoren Hondarribira iristekoak ziren igande arratsaldean. Ostirala iritsi eta Goiko Plazan hamazazpi hemezortzi urte inguruko bost neska-mutil elkartu ziren. Ez ziren asko, baina bai aski kontzientziatuak. Lezoarrak ziren eta txikitandik herri gainean ikusia zuten mendi luze-zabala maite zuten. Superportuaren proiektu suntsitzailearen aurka zeuden eta martxa horrekin Jaizkibel mendiko izadiak eta txoko zoragarriez gozatuz arnasa eta indar berriak hartzeko asmoa zuten.

Hirurak eta laurdenean herritik abiatu, Atzekoatetik atereaz, Jaizkibeleranzko bide-txigorretatik barna bideratu ziren. Bostak aldera, zirimiru moduko euri fin batek gazteak hartu zituen. Hauek xirak motxiletatik atera, jantzi, eta aurrera jarraitu zuten. Seiak aldera, itsasotik lanbro itxi trinko iluna sartu zen eta nahiz eta loritz gida gazteak hango bidexkak primeran ezagutu, gazte taldeak nekez bereizten zituen jarraitu beharreko bideak. Ordubate beranduago, sekulako ekaitzak Jaizkibelgo bazterrak astindu zituen. Euria barra-barra, trumoiek burrunba handiz jotzen zuten eta tximistek, lipar batez, behe-lainoen arteko xendra ikusezinak argitzen zituzten. Hala eta guztiz ere, gazteek adore handiz jarraitzen zioten buruan zihoan loritzek linternaz seinalaturiko bideari.

- Loritz, ondo al goaz? – galde egin zion Maddalen izeneko neska ilehoriak.
- Bai, bai, ondo goaz. Hau dun bidea. – erantzun zion loritzek, pausoari eutsiz– Turruia aldean gaitun.
- Ez al dago babestokirik? – Asier izeneko mutilak.
- Bai, harkaitzetan dauden zuloak! – loritzek, laino artean urruntasunean, tarteka, ikusten ziren harkaitzak linternaz seinalatuz.
- Ai ama! Urruti samar daude, eta jadanik hezurretaraino bustita gaude! – Elorri izeneko bigarren neska.
- Arrazoi dun Elorri! – Maddalenek– Guk su eder bat beharko geniken gure arropak lehortzeko.
- Eta salda bero bat gure barrenak berotzeko! – Aratz izeneko mutilak.
- Bai horixe, eta baita botila bat patxaran ere! – loritzek, erdi barrez.
- Hori nik ekarri diat! – Asierrek– Motxilan zeramaat!
- Aupa Asier, hori duk mutila, hori! – Aratzek, pozaren pozez.

Halako batean, Maddalenek bere lagunen algarak moztuz, eskuin aldean, basotxo baten gerizpean laino artean ikus zitekeen eraikina eskuaz seinalatu eta...

- Zer da hori? – bota zuen.
- Borda bat dirudi! – loritzek– Egia esan behar badizuet ez nuen ezagutzen.
- Berdin duk motel! – Aratzek– Primeran etorriko zaiguk!

loritzek, bidexka utziz eta linternaren argiaz baliatuz, borda aldera jo zuen. Gainerakoak atzetik zihoazkion. Tximista baten argitasun bortitzak eraikina ongi ikusteko aukera eman zien. Artzain borda zen eta egoera onean zegoela zirudien. Barruan su baten argitasuna nabaritzen zen, norbaiten presentziaren seinale. Gehiegi pentsatu gabe, loritzek atea bultzatu eta bertara sartu ziren bost lagunak.

- Gabon! Inor al da hemen? – galdetu zuen loritzek.
- Bai, gabon lagunak! – erantzun zion bordako txoko batetik gizonezko ahots batek– Baina, sartu, sartu hona beldurrik gabe! – gaineratu zuen gero.

Bost lagunek ahotsak esan bezala egin eta beheko sua zegoen tokiraino hurbildu ziren. Han, beheko suaren ondoan, baziren zurezko mahai sendo bat eta eserleku zenbait. Horietako batean eserita eta hauspo batez sua indartzen berrogei urte inguruko gizon bat zegoen. Txapela buruan zeukan eta jertse lodi ilun batez jantzirik zegoen.

- Ken itzazue arropa busti horiek eta eser zaitezte hemen, suaren inguruan! – gonbidatu zituen gizonak.

Bost gazteek horrela egin zuten bi aldiz pentsatu gabe. Gorputzean itsatsita zeramatzaten arropa bustiak erantzi, su ondoan lehortzen jarri, eta motxiletatik ateratako arropa idorrak jantzi zituzten.

- Salda bero bat nahi? – eskaini zien gizonak.
- Hara, honek pentsamendua irakurri digu! – bota zuen Aratzek, zuela bost minutu eskas edukitako solasaldia oraindik buruan zebilkiola.

Atsegin handiz hartu zuten bost lagunak gizonaren eskaintza. Gero, salda beroak eman zien goxotasunak bultzaturik, hizketari ekin zioten.

- Mila esker saldagatik! – loritzek– Nor zaitugu, lagun?
- Pello Bixente artzaina naiz eta hauxe da nire borda. Ardiak ondoko gela horretan daude – azaldu zien hondoko horman zegoen atetzar bat seinalatuz– Eta gela hau nire jauregitxoa da.

Gauden txoko hau sukaldea da eta eserlekuen gibelesko txoko horretan ohea daukat. Tokia bada, zuei ongi irudituz gero, gaua hemen pasa dezazuen.

- Mila esker, jauna! – erantzun zioten bost gazteek batera.
- Afaldu al duzue? – artzainak.
- Ez jauna, baina motxilan gure janaria dakargu. Afaldu al dezakegu hemen, mahai honetan? – Asierrek.
- Nola ez, bada! – artzainak. Gero pareta batean zegoen armairutxo batetik gazta handi bat atera eta mahai gainean jarri zuen– Ea zer iruditzen zaizuen? Nik egina da.

Eta gehiago esan gabe, gazteek afaltzeari ekin zioten. Gazta hura mundiala zen. Sabela aski beteta zutenean afalondo goxoari ekin zioten. Asierrek motxilan zeraman patxarana atera eta Pello Bixentek eskainitako kafearen ondoren edan zuten.

- Nik ez nuen borda hau ezagutzen! – bota zuen loritzek.
- Zaharra duk mutil, nire aitonak egin zian. Etxekoak belaunaldiz belaunaldi artzain ibili gaituk eta hauxe da Turruian dugun babestokia. – artzainak.
- Turruia? A zer izen bitxia! – Elorrik.
- Bai, hala dun. Ez zekinat nondik datorren, baina beti izan dun Turruia. – artzainak– Aitona gureak kontatzen zigunez, borda hau bertan erorita zen etxe zahar baten hondakinak baliatuz altxatu omen zinan.
- Eroritako etxe bat? – loritzek.
- Bai, Turruia pirataren etxea izan zena. – gaineratu zuen artzainak.
- Pirata baten etxea diozu? – Maddalenek.
- Bai neska, entzun dudan bezala, Turruia pirataren etxea. Gure aitona zenak ederki ezagutzen zunan haren historia eta behin baino gehiagotan kontatu zigunan. – eta neska-mutilei begiratuz– Nahi al duzue kontatzea?
- Bai, bai, kontatu mesedez! – Bost gazteek ia batera.

Baiezko erantzuna jaso bezain pronto artzainak kontatzeari ekin zion ahots misteriotsu batez:

1552ko otsailaren 20an jaio zen hementxe, Turruian zegoen etxe zaharrea, Joanes Iturain izeneko haurra. Umetan artzain ibili bazen ere, geroxeago marinel sartu zen Lezoko portuan. 1568an, merkatari-ontzi batean zihoala, Drake kortsario ingelesak eraso egin zien. Eskifaia

sarraskitu, merkantzia lapurtu eta ontzia hondoratu egin zuen. Bertako marinel gazteei, bizitzaren truke, haren ontzian marinel lanetan aritzeko aukera eman zien. Gehienek onartu egin zuten eta horrela Joanes Iturain "Turruia" gaztea Drakeren agindupeko bilakatu zen hamasei urte zituela.

1570tik 1572ra Ameriketako itsasoetan barrena ibili zen, Drakek espainiarren kolonien kontra burutu zituen erasoaldietan parte hartuz. Zenbait urte beranduago, 1577an eta 1578an, hain zuzen ere, hegoaldeko itsasoetan ibili zen Drakeren agindupean bertako itsaso-merkataritza oztopatuz eta eragotziz.

Horrela ibili zen hamar urte luzetan. Halako batean, frantsesek eraso egin zioten Turruia gaztea lanean aritzen zen itsasontziari. Itsasontzi hark, Drakerena bazen ere, Walther kapitainaren agindupean nabigatzen zuen. Frantsesen abordaia ustekabean gertatu zen eta ingelesek nekez eragotzi ahal izan zuten etsaien erasoaldia. Turruiak, adore handiz, egin zuen borroka hildako pirata ingeles baten ezpataz. Ekintza hau dela eta, geroxeago Drakek soldadutzat hartu zuen Joanes gurea.

Beste behin Valparaison zegoela, bera eta bere lagunak espainiarren itsasontzi batez nagusitu ziren. Ekintza honen ondorioz Drakek itsasontziko kapitain izendatu zuen.

1579an, hogeita zazpi urte zituela, Euskal Herrira itzuli zen eta Jaizkibelgo itsas sargune batean, Turruia bere etxetik aski gertu, kai ttiki bat eraiki zuen. Handik aurrera huraxe izan zen bere ezkutaleku eta ekintza-habia. Handik pasatzen ziren itsasontzi espainiar edota frantsesei eraso egiten zien, urre gorri, zilar eta harribitxi kopuru handiak bereganatuz. Jaizkibelgo baserritar gazte aunitz berarekin aritu ziren jarduera arriskutsu horretan, eta esaten zenez, Turruia kapitainak izugarri ongi saritzen omen zituen. Ongi ordaintzeaz gain, beti prest omen zegoen eskualdeko behartsuak laguntzeko. Hori dela eta, bertako guztiek izugarri maite zuten.

Turruia kapitainak ba omen zeukan altxor ikaragarri handia, hemen nonbait gordeta zuena. 1615eko uztailaren 24an, hirurogeita hiru urte zituela, azken hatsa eman zuen Turruia bere etxean. Altxorraren berri zehatza ematen zuen plano bazter hauetan ezkutaturik utzi omen zuen, baina, orain arte bederen, inork ez du topatu, ez planorik eta ez altxorrik.

- Ene, altxor bat! – Asierrek, aditutako historiaz arrunt liluraturik.
- Eta plano bat! Ez legoke bat ere gaizki hori topatzea! – Aratzek, bere harriduratik ezin atereaz.
- Zer ez genuke egingo guk altxorra topatuz gero! – Maddalenek, begi biribil handiak jarritz.
- Bai, horixe! – Elorrik, entzun berria zuena ezin sinistuz.
- Baina Pello Bixente, kontatu diguzun hau egia ala ipuina da?
- Egia! Zin dagizuet! – artzainak– Eta gainera beste gauza bat kontatu behar dizuet. Duela astebate edo, horko harkaitzetako zulo sakon batean, burdinazko kutxatila batean sarturik,

planoa topatu nuen. Euskara zaharrea idatzita dagoela dirudi, baina nik irakurtzen ez dakidanez gero ezin izan dut altxorra topatu. Lagunduko al didazue?

- Bai, horixe! – erantzun zioten bost gazteek.

Artzainak armairu zahar batetik burdinazko kutxatila atera zuen, zabaldu eta bertan zegoen paper horitua atereaz, Asierri eman zion ozenki irakur zezan.

- Tori, mutil! Esadak zer dioen!

Asierrek esku dardaratiaz plano hartu eta ozenki irakurtzeari ekin zion: Harkaitz beltzetik itsasoari begira hogeita hamar bat pauso kontatu, gero ezkerretara jo eta hareharrizko zazpigarren zulora sartu...

Hori entzutean, bai artzainak eta bai gazteek xirak eta aterkiak hartu eta planoak agintzen zuen alderantz abiatu ziren ziztu bizian. Momentu hartan ekaitzak indar handiz kolpatzen zuen. Hala eta guztiz ere, hori ez zen eragozpen izan sei lagunak harkaitz beltz aldera hurbil zitezen.

Eskuineko korridoretik sartu. – segitu zuen Asierrek– eta gero harrian zizelkaturiko eskaileratik behera jaitsi.

Horrela egin zuten artzainak eta bost gazteek, txintik esan gabe.

Gero, areto zabal batera iristean, izurde itxura duen harria zanpatu.

Asierrek, irakurketari jarraituz.

- Hemen dago izurde itxurako harria! – oihu egin zuen Aratzek eskuin aldean erdi ezkutaturik zegoen harria seinalatuz.

Artzainak izurde itxurako harria zanpatu zuen eta ezkutuan zegoen beste korridorea zabaldu zen.

Segi korridore berritik eta bost minuturen buruan altxorra dagoen aretora iritsiko zarete. – irakurri zuen Asierrek urduritasun handiz.

Horrela egin zuten eta bost minutu buruan altxor aretora iritsi ziren. Han berrogeita hamar bat kutxa handi zeuden. Artzainak eta gazteek banan-banan zabaldu zituzten. Hura ustekabea! Han ez zegoen ez urre gorriarik, ez perlarik eta ez harribitxirik. Kutxak lurrez beterik zeuden. Horietako batean, lur zokilen artean, gutun moduko paper horitu bat topatu zuten. Asierrek hartu zuen eta ozenki irakurtzeari ekin zion:

Nire altxorra topatzen duzuen lagunei zenbait argibide eman nahi dizuet. Bizitza osoa eman nuen dirua eta aberastasunak biltzen, eta horrela altxor ikaragarri handia metatu nuen: Peruko urre gorria, Andeetako zilarra, harribitxi harrigarriak, Ozeano Bareko perla distiratsuak... Baina hemen, Turruian, izadia maitatzen ikasi nuen. Zer ederragorik hemengo itsasoa, harkaitzak, belar-soroak

eta oihanak baino! Ama-lurra da gure benetako altxorra. Egun batean, dirua eta aberastasunak ez dira gauza guztien neurria izango, natura baizik. Eta egun horretan sortuko den gizarte zoriontsu horretan, gizon-emakume guztiak aske izango dira. Hori jakinda, zertarako orduan nire urre gorria, zilar distiratsua eta perla zuriak?

Ama-lurraren mezua ulertu nuen une berean, ene urrea ezagutzen nituen behartsu guztien artean banatzen hasi nintzen. Hainbeste ziren!

Hiltzeko zorian nengoenean, ez zen altxor kutxetan urrerik geratzen.

Nire zerbitzariari kutxak lurrez betetzeko agindu nien eta mezu hau nekez idatzi. Uler iezadazue, lurra da gizakion benetako altxorra. Gorde dezagun! Turruiaiko Joanes Iturain kapitaina.

Gutuna irakurtzean, artzaina eta gazteak, isil eta burumakur, zulo hartatik irten eta bordara itzuli ziren. Hezurretaraino mela-mela eginda zeuden. Atsegin handiz hartu zuten beheko su goxo beroa. Arropak lehortzen ari zirela, Asierrek isiltasuna urratuz honela esan zuen ozenki gainerakoek entzun ziezaioten:

- Garbi dago, gaur, superportu, abiadura handiko tren eta autobide zabalak garai honetan ez gaudela Turruia kapitainak aipatzen duen gizarte zoriontsu horretan. Ama-lurra zauritzen duten proiektu suntsitzaileen garai ilunean gaude. Denok egin beharko dugu lan, gaur ez dena bihar izan dadin. Denok borrokatu beharko dugu, benetako altxorra den natura denon zerbitzura egon dadin, Ama-lur gurean aske eta zoriontsu bizi gaitezen.

Inork ez zion erantzunik eman, baina beraien bihotzetan Asierrek arrazoi osoa zuela sentitu zuten.

MIHILUZE ZUBIA

Karlos II. erregea eta bere segizioa Iruñera hurbiltzen ari ziren. Denak zaldizkoak ziren, osora berrogeita hamar bat inguru, eta Nafarroako erregeak Normandian zituen lurraldeetatik zetozen. Bidaia luzearen ondorioak zaldizkoen aurpegi akituetan eta gainean zeramaten hauts ugarian nabari zitezkeen. Haien gibeletik gehiago zetozen bidaiarako beharrezkoak ziren hornidurak eta elikagaiak eramaten.

Arga ibaia zeharkatu behar zuten erret bidetik hurbilen zen zubitik. Zaldizkoen buruan erregea eta zenbait zaldun fidel zihoazen, gero erresumako entseina gorriak zeramatzenak eta ondoren gainerakoak. Unaturik zeuden arren, Iruñetik gertu egoteak ematen zien poza agerian zerakusten.

Urruntasunean Arga ibaia eta igaro behar zuten zubia paisaian marrazturik ikus zitzaketen. 1355eko uztailaren zazpia zen, uztailak Nafarroan ematen dituen egun ezin ederrago horietakoa, eguzkia gori-gorian zegoen eta zelaiak eta larreak berde argitsu batez tindaturik agertzen ziren oraindik. Oihanek eta basoek hurbileko mendi eta muinoetako hegi eta magalak berdetasun ilun eder batez betetzen zituzten, eta erregearen segizioak egiten zuen bidea, sugetzar baten antzera, ziraldoka marrazten zen paisaia eder eta lizun hartan. Arga bera ezin ederrago agertzen zen oztopo gisa, eta oztopo hura gainditzeko zubia zeukaten handik ez urrun.

Zubiaren bi muturretan dorre gotortuak ikus zitezkeen, bi honanzko aldean, zubiaren ezker-eskuin eraikita eta beste bi haranzko aldean. Zubia zaintzen zuten gerlariak ere begi-bistan azaltzen ziren. Honanzko aldean, eta dorreetako baten itzalean, zazpi zaldizko zeuden, eta bazirudien erret segizioaren zain zeudela.

- Nor dira horiek? – galde egin zien erregeak ezker-eskuin zeramatzan zaldunei.
- Iruñeko Herri Kontseiluko ordezkariak – erantzun zion ezker aldean zihoan zaldunak– eta beraien buru Bruno Ezpeletako aitzinean dagoena, jauna! Ongi ezagutzen dut. Iaz kalapita galanta ukan nuen berarekin, nire ezkutari batek, nahigabea, herriko merkatari zarpail horietako bat zaldiarekin zanpatu eta hil egin zuelako. Egoskor samarra da jauna.
- Eta zer nahi dute? – erregeak, uzkur.
- Badirudi berorren zain daudela, jauna! – eskuin aldeko zaldunak.
- Nire zain? Ezin al dira erret jauregira joan, bertze guztiek egiten duten bezalaxe? – erregeak, haserre antzera.

Segizioako zaldizkoak trostan hurbildu ziren zubira, eta orduan zain zeuden zazpi gizonak, zalditik jaitsi gabe, erregearengana gerturatu ziren. Haren parera iristean buru zena honela mintzatu zitzaion erregeari:

- Jainko Handiak salba dezala Errege eta horrelako bidaia luzeak sorturiko nekeak apaltzeko beharrezkoa duen atsedena eman diezaiola!
- Aunitz esker zuri! – erregeak– Baina, nor zaitut eta zer nahi duzu nitaz?
- Bruno Ezpeletako naiz, jauna, Iruñeko Herri Kontseiluko burua, eta hauek Joanes Aizpialeako, Luis Bastidako, Jakobe Alozeko, Beltran Arbelaizteko, Joseph Asturiagako eta Pierrot Uztaritzeko

kontseilariak dira. Berorregana etorri gara iruindarren kexa zuzen-zuzenean berorri azaltzera, zeren eta herritarrei berorren izenean ezarri zaizkien zergak arrunt handiak baitira, eta iruindarrak nekez bizi dira zerga horiek ordaintzera ezin iritsiz.

- Zergak neronek horrela ezarriak dira, erresumaren onerako!
– moztu zion erregeak– Nola ausartzen zarete, horrela, nire aitzinera eta bidean, etortzen? – ahotsa gogortuz.

- Baina jauna, iruindarrek ezin dituzte ordaindu. Zerga horiek handiegiak dira. – Bruno Ezpeletakok, bat ere beldurtu gabe.

- Ezin dutela ordaindu? – erregeak, bere baitatik irtenda– Lan gehiago egin dezatela, alproja alaeanak! Horixe da eskatzen diedana.

- Zerga horiek handiegiak dira, jauna! – Luis Bastidakok, Iruñeko Herri Kontseiluko buruaren hitzak baieztatu nahian.

- Bai jauna, handiegiak dira, eta herritarrek ezin dituzte ordaindu! – gainerako herri kontseilariak batera.

- Ez da bidezkoa horrelako zergak ordaindu behar izatea! – Jakobe Alosekok, bero-bero.

- Herritarrak gara, ez jopuak, jauna! – Joseph Asturiagakok.

- Iruñeko herritarrok ez ditugu Normandian dituzuen gerra gastuak ordaintzen ahal! – Pierrot Uztaritzekok.

- Nola? Zer erraten duzue? – erregeak, arras koleraturik– Zuek mihia hagitz luzea duzue! Horixe iruditzen zait niri.
– eta bere segizioko gizonei aginduz– Atxilo itzazue lotsagabe hauek eta zintzilikatu, inolako gupidarik gabe, zubiko lau dorreetatik, iruindarrek ongitxo ikus dezaten erregeren aginduei muzin egiteak dakarrena!

Segizioko gizonek Erregek agindu bezala egin zuten. Zazpi herri kontseilariak lau dorreetatik zintzilikatu zituzten. Hurrengo egunetan iruindarrek, arrunt ikaraturik, ikusi ahal izan zituzten beraien ordezkarien gorpuak zubiko dorreetatik zintzilik, urkaturik. Erregek erran bezala, mihi luzea zuten denek ahotik dilindan . Orduz geroztik, Mihiluze da iruindarrek zubiari eman zioten izena. Gaur ere horrela deitzen diote. Eta Karlos II. erregea Gaiztoa ezizenaz pasatu da gure historiara.

ARBASO IMPERIALISTAK

Otsailaren 19 eta 20aren arteko gaua da, San Sebastian bezpera, donostiarren egun handia. Jendea nonahi, kaleak pil-pilean... Gau miresgarria, gau magikoa, danbor hotsez betetako gaua. Iriyarena, Polka, Tatiago, Martxa... eta Raimundo Sarriegik egindako beste soinuek Donostia osoa betetzen dute. Alde Zaharra jendez lepo zegoen. Kaleak, plazak, tabernak... denak jendez gainezka.

Sebastian bat bada zeruan
Donosti bat bakarra munduan,
hura da santua, ta hau da herria,
horra zer dan gure Donostia!

Jendea kantuan ari da, dantzan... danborrak indarrez jotzen,... sukaldari kapeluak nonahi. Martxak jarraitzen du:

Irutxuloko, Gaztelupeko
Joxemari zahar eta gazte
joxemari zahar eta gazte,
kalerik kale, danborra joaz,
umore ona zabaltzen hor dijoaz
joxemari!

Ez dago inor geldirik, denak dantzan... bideetan, espaloietan, tabernetan... danbor hotsek bizi-bizi martxari segitzen diote.

Bagera, gu ere bai,
gu beti pozez,
beti alai!

Martxa amaitzean, oihuak, kantuak, kaleko burrunba garbiago entzuten dira. Iñaki eta Pello astigarratar gazteak festara etorri dira, urtero bezala. Union Artesana elkarteko Txomin lagunak bertara gonbidatu ditu xanpain kopa bat elkarrekin edatera. Elkarteko atean zaindari gisa dagoen gizonari Txomin Urbieta lagunaren izenaz galdetu eta berehala sartzen utzi die. Barrura! Hura jende zirimola! Hura giroa han barruan! Elkarte osoa jendez gainezka zegoen. Mahaietan eserita afaldu berriak –adin guztietakoak- eta gela handi haren erdialdean animosoenak dantzan.

Txominek bi gazteak bere mahaira eraman ditu. Hantxe dira hamaika bat lagun sukaldariz jantzita, gizonetzko zein emakumezko, gazte zein zahar, denak kantuz eta danborrak astinduz. Donostiar itxurakoen artean badira kanpoko itxura duten hiru mutil. Den-denak muturra berotuta badaude ere, azken hiru horiek dira, zalantzarik gabe, okerren daudenak.

Txominek mahaikideak aurkeztu dizkie:

- Txomin: Hau da Pantxo, nire anaia, eta hori Koruko bere neskalaguna. Hauek nire koadrilako neska-mutilak. Mahai bazterreko horiek nire lehengusu-lehengusinak eta hiru alproja hauek – kanpoko itxura duten hiru mutilak seinalatuz– joan den udan Argentinara egin nuen bidaiari ezagutu nituen lagunak. Europan zehar ari dira bidaiatzen, Parisen izan dira eta orain Bartzelonara joatekoak dira. San Sebastian eguna zela eta, ni bisitatzera eta Donostiako jaia bertatik ezagutzera etorriak dira. Oso jatorrak dira. Hori bai, ez dakite hitz bat ere euskaraz. Itxoin pixka bat, aurkeztuko zaituztet eta!

Eta kanpotarregana hurbilduz, aurkezpen egiteari ekin zion:

- Txomin: Estos son mis amigos de Argentina, Pedro Alejandro, Carlos Alberto y Pablo Ernesto. (Hauek dira Argentinako nire lagunak: Pedro Alejandro, Carlos Alberto eta Pablo Ernesto)

Horien izenak! – pentsatu zuten gure bi lagunek.

- Y estos son Iñaki y Pello. (Eta hauek Iñaki eta Pello dira) – jarraitu zuen Txominek, poz-pozik, bi lagunak seinalatuz.

- ¿Tienen nombres tan horribles como el tuyo! Seguro que estos pibes son también vascos. (Zurea bezalako izen itsusiak dituzte! Ziur beraiek ere euskaldunak direla!) – bota zuen Pedro Alejandro izenekoak, irribarre mozkorti bat erakutsiz.

- Ederra bota du honek! – Iñakik, haserre antzera.

- Ez egin kasurik! – Txominek, bakea egin nahian, argentinarrak dituk.

- Bada, ez ditek indio itxurarik! – Iñakik.

- Ez motel, Argentinan ez zegok indiorik, denak garbitu zitiztean. Hauek dituk hara joandako europarren ondorengoak. – Txominek.

- ¿Que dicen estos polluelos? (Zer diote txita hauek?) – Carlos Albertok, euskaraz esaten ari zirena ezin ulertuz eta arras minduta.

- Dicen que están encantados de conoceros. (Zuek ezagutu izanaz pozik daudela diote) – Txominek, bake itxura eman nahian.

- Pues no pongais esas caras de marsopas y bebamos algo que tenemos el gaznate seco. (Bada, ez jarri martsopa aurpegi hori, eta edan dezagun zerbait, eztarria lehor samarra dugu eta) – Pablo Ernestok.

- Zer esan du eregel horrek? – Iñakik, sutan.

- Ez zioat ondo ulertu, baina ezer onik ez. Eztarria lehorra omen dik, baina gurekin sartzen jarraitzekotan, sudurra politico utziko zioat. Hala Jainkoa! – Pellok, bere amorrua ezin kontuz.

- Ixo, ixo! – Txominek– Agindutako botila xanpaina ekarriko dut gure osasunaren alde topa egin dezagun. Eta argentinarrei begira: Me voy a por otra botella de champán. (Beste botila bat xanpaina ekarriko dut)
- Como vois querais, pero que sea francés de la France. (Zuk nahi duzun bezala, baina France-ko xanpaina izan dadin)– Pedro Alejandrok– Mientras traeis esa botella nosotros practicaremos con estos pazuatos (Botila dakarzun bitartean gu txotxolo hauekin mintzatuko gara)
- Ekar ezak azkar botila hori, hi! Bestela oraintxe piztuko diagu hirugarren gerra mundiala. – Pellok, datorkienaren beldur.
- No papurreis en apache, que no os entendemos nada, cara de pinguino de la Patagonia. (Ez ezazu apatzez hitz egin, ez baitizugu deus ulertzen. Patagoniako pinguino aurpegi halakoa!) – Pablo Ernestok, gaizto.
- ¡Tu si que tienes cara de pinguino, baboso! (Hik bai daukaala pinguino aurpegia, babo halakoa!) – Iñakik, bere haserrea ezin ezkutatuz.
- Hori, hori, pinguino zikina, gainera! – Pellok.
- No nos falseis, que somos argentinos, y no como vosotros, que no sois más que descendientes de los imperialistas y colonizadores que saquearon América. (Ez iraindu. Gu argentinarrek gara eta zuek, berriz, Amerika ustiatu zuten inperialista eta kolonizatzaileen ondorengoak) – Carlos Albertok, eskuak ikaragarri mugituz.
- ¿Imperialistas nuestros antepasados? (Gure arbasoak inperialistak?) – Iñakik, ahotsa ozen altxatuz– Entzun behar duguna! ¡Eso serían los vuestros que se fueron a America, por que los nuestros aquí se quedaron goxo-goxo en sus caseríos!. (Hori Ameriketara joan ziren zuen arbasoak izango ziren, gureak hemen goxo-goxo beraien baserrietan gelditu baitziren!)

GALDÜAREN ANAIA

Betidanik izan naiz maskaradazale, eta hori dela eta, urtero hurbiltzen naiz Zuberoara maskaradaren lehen saioa ikustera. Aurtengoa (2009 urtekoa, alegia), urtarrilaren 11n izan da, Barkoxen, bera baita aurtengo maskaradak jokatzen dituen herria, eta horrela izaki, eta usadioak agintzen duenari jarraiki, lehen eta azken saioak maskaradak jokatzen dituen herrian egiten dira.

Hotza, elurra eta izotza ziren nagusi euskal geografia osoan, hala eta guztiz ere, lagunak, urtero bezala, etxera bila etorri zitzaizkidan eta haiekin batera Zuberoa alderantz abiatu nintzen. Bederatzietarako Barkoxeko plazan ginen eta arizaleak bertan zeuden, lehen barrikadaren aurrean, irteteko prest. Gu beraiengana hurbildu ginen. Maskaradako arizaleek dantza erritualari ekin zioten. Hura amaitzerakoan, lehen barrikada hura zabaldu zuten. Mahaian baziren bizkotxak eta matahameak, baita kafe bero-beroa ere. Atsegin handiz jan eta edan genuen. Gorputzak biziki eskertu zigun, ordurako hotzak arras hebaindurik baitzuen. Berehalaxe, lehen kantuek aire horratua goxatu zuten. Eta horrela ibili ginen goiz osoan, barrikadaz barrikada, dantzaz dantza eta kantuz kantu.

Bigarren barrikadarekin batera jatekoetz eta kafeaz gain era guztietako pattarrak eskaini zizkiguten. Jendeak gogotik edan zituen. Hamabiak aldera, azken barrikada zabaldu zuten Barkoxeko arrabotüan. Ordurako jende mordo zen herriko bazterretan. Herriko dantzari zenbaitek, dantza erritualari ekinez, ongi etorria egin zioten maskarada osatzen zuen segizioari. Gero, jendea sakabanatu zen. Asko eta asko arizaleen etxeetara joan ziren bazkaltzera gonbidatu gisa. Jende andana herriko ostatuetara sartu zen bertan bazkaltzeko asmotan. Guk plaza ondoko hilerrian dagoen Etxahun koblakariaren hilobia bisitatu genuen eta ondoren, bazkaria erreserbatuta geneukan ostatura sartu ginen. Barruan dena prest zeukaten. Bi mahai luzek ostatuko luze-zabal guztia hartzen zuten. Ordurako, bazen jende aunitz bertan jarrita. Gu ere eseri ginen. Ezker aldean, nire aldamenean eserita, aspaldidanik ezagutzen dudan Filipe KARRIKAORDOKI larraintarra zegoen eta aurrez aurre, beste bi lagun larraintar nituen.

- Egün hon Joseba, ontsa hiza? – esan zidan eskua luzatzen zidalarik.
- Ontsa Filipe, eta hi? Ontsa bizi hiza? Beti bezala ikusten haüt, beti gazte, hain xüxen. – erantzun nion egindako agurra eskertuz.

Egia! Filipe beti bezala zegoen. 78 urte zituen arren betiko sasoian segitzen zuen. Lanbidez artzaina izan da beti, eta jadanik, horrela ez bazebilen ere, bere gorputzak eta bere buruak gazte eta bizkor zirauten. Bera zen beti kantuz hasten zen lehena, eta dantzan ere bazekien fin eta trebe aritzen. Aurrean eserita zeuden lagunak, gutxi-gorabehera adin berekoak ziren. Denak artzain izandakoak, denak larraintarrak, ume-umeetatik lagunak eta betidanik elkarrekin ibilitakoak.

Berehalaxe ostalertsak zerbitzatzan hasi zitzaizkigun. Bazkaltiarren solas biziak ostatuko giro astuna biziagotu zuten. Nire aurrekoak hizketan ari ziren, gainerako guztiek bezalaxe. Eta orduantxe, entzun nion horietako bati, eta Filiperi aipua eginez, ohiko galdüaren anaia ezizena. Nik izengoiti hura sobera ezagutzen nuen, eta banekien ezizen horrekin Filipetaz ari zirela. Hori bai, izengoitiaren nondik norakoak arras ezezagunak ziren niretzat. Eta horrela, ardo onak ematen duen ausardiaz, galde egin nion Filipe adiskideari:

- Parka Filipe, zentako erraiten deiaie hiri galdüaren anaia?

Ustekabean, Filiperen aurpegia ilundu zen eta deus erantzun gabe bazkaltzen jarraitu zuen. Segituan ulertu nuen galdera hura ez zuela gogoko; isildu nintzen, beraz, eta koilara zopan sartuta, bazkaltzen jarraitu nuen. Hura hanka sartze ederra nirea! Alajainkoa!

Handik hamar bat minututara edo, Filipek isiltasuna urratu eta barkamena eskatu zidan:

- Parka, Joseba, üstegabean hartü naük, eta zer erran ez nakiala baratü nük. Izengaintiko horren bidea lüzea dük, potiko nintzanekoa. Ez diat maite, oritzapen txarra ekarten beiteit. Bena horrekila bizi behar diat. Ez diat ahazten ahal.

- Parka Filipe, ez nakian ez zela hire gogoko. – esan nion nik, biziki asalaturik.

- Ez inkieta Joseba, ez dük hire ogena. – Filipek, amultsu guztiz.

Eta deus gehiago esan gabe historia kontatzeari ekin zion:

- Hik badakik Larraineko Estekahandi etxaltekoea nizala. Gure etxaltea bortüetan dük, herritik izigarri hürrün. Hor sortü eta bizi izan nük orai artino eta hor hil nahi diat. Etxean sei aurride gintian eta nik banian anaia birakin bat, Johañe izen-ttipikoa. Hameka ürte günütüalarik, etxaltean alkarretaratü gintian etxeko güziak eta kantüan den Ürriztoia etxalteko aüzoak Natibitate gaüaren mahainaren üngürüan iragaiteko. Herriko Jaun Erretora ere gureki zian aihari hartan. Gaü ederra zian eta denak oro ari gintian elestan eta kantüz. Xiberoko kantore ederrak ebilten zitian airean, behin eta berritan. Kanpoan elürra, karrua eta hotz handia zitian. Aiharitan ari ginen kanberan süia piztürük ginian. Halako batez, etxe barnean zen egürra ahitü zian eta kanporat txerka joaiteko beharra sortü. Amak, hori ikusirik, aitari txerka joaiteko erraitea pentsatü zian, bena Jaun Erretorareki elesta gaitzean zela ikusirik, ene anaia Johañeri egür txerka joaiteko galtatü zioan. Bizitze güzian izanen zian damü, gaü hartan hartü deliberoagatik. Kanpoan, gorderik, norbait haidürü zian. Johañe, negüko arropaz beztitürük, borta zabaltü eta egür txerka elki zian. Bost edo sei minuta iragan ondoan, Johaineren heiagora izigarriak entzün ginitian lagüngoia galtoz. Aiiiiiiiiiiii! Hartü naüe! Lagüntü! Denak oro isiltü eta txütitü gintian. Aitak, otsoak zirelakoan,

eskopeta hartü, kargatü eta kanporat elki zian. Besteak oro gibeletik. Artean, JohaÑe anaiak heiagoraz jarraitzen zian. Elürrean markatürrik, anaiaren ürratsak ikusi ginitian. Her herexatü gintian, bena tüpüstüan galtzen zitian, norbaitek edo zerbaitek airetik heltü eta eraman egin izan balü bezala. Halako batez, anaiaren heiagora lazgarria entzün ginian gure бүrüen gainean: Lagünt! Eramaiten naüe! Ororek goiti so egin ginian, bena gaüko ülüntarzünetan ez ginian deüs ikusten ahal. Anaiaren lagüntze galto heiagorak gero eta hürrünago, gero eta gorago, entzüten gintian. Azkenik, isiltarzüna eta JohaÑe ments. Gaü hura anaiaren txerkatzen xahatü ginian, bena debaldetan. Nihoiz ez ginian haboro jakin anaia gaixoaz berririk. Zonbaitek erraiten zieian Orhi mendian ikusi hegazti handi bitxiek eramanen züela. Ez dakiat zer agitü zen gaü hartan eta nork eraman züan anaia. Zorigaitzez, ordütik aitzina ez ginian anaiaren berririk üken. Ondoko ürteetan ama ertzotürrik ebili zian eta gazterik hil. Guretako, Natibitate Gaüa beti izan dük gaü tristea, eta gaü hartan agitü zenak bihotza erdiratü dikük familiako güzier. Herrikoek galdüaren anaia deitzen ditadee. Ez ditadee hola erraiten eni minaren egiteko, bena hik entelegatüko dükan bezala, ez diat izengaintiko hori batere maite.

Ni, Filiperen aitormena entzutean, ahoa bete hortz geratu nintzen. Ezin nuen entzuten ari nintzena sinistu. Baina Filipe sobera gizon seriosa zenez, banekien kontaktzen ari zitzaidana egia zela, egia lazgarria. Ez nekien zer esan eta nire ausardia nola desenkusatu.

- Parka Filipe, parka! – . Ez nekien zer gehiago esan.

Orduz geroztik, aunitzetan izan dut Filiperen kontakizuna gogoan.

Bizitzan badira hitsak eta ulergaitzak egiten zaizkigun pasarteak eta hau horietako bat delakoan nago.

BASERRI MADARIKATUA

Aunitzen ustez, Errekalde baserria madarikatuta zegoen. Beti bazuen zerbait. Bertakoek era guztietako gaitzak pasatuak zituzten. Behin, tximista batek teilatua jo zuen baserri osoa kiskaliz. Herritarrek auzolanean konpondu zieten. Aziendarekin ere beti gaizki zebiltzan. Behiak ez zirenean, ardiak ziren eri zeudenak. Erbinudeak bereak eta bost egiten omen zituen oilo eta lapinen artean. Eta horrela omen zen belaunaldiz belaunaldi.

Orain ere horrela zebiltzan, komeria gora eta komeria behera. Kazkabarra bortitz batek baratze osoa hondatua zien, oilo eta lapin gehienak erbinudeak eta halako piztiak akabaturik zituzten, ardi guztiak eri mihi urdineko gaitzaz, eta okerrena, behiak ere, banan banan hiltzen ari zitzaizkien, sabela ikaragarri puztuta. Han ez zen bizitzerik, baina bertan ziren Txomin, Maixan eta sei seme-alabentzat zerbait pentsatu beharra zegoen. Azkenean, egoeraren larritasuna ikusirik, Txominek proposamen hau egin zion emazteari:

- Maixan, honela ez dinagu jarraitzen ahal. Azken behia hiltzen ari zaigun tropeziak-edo jota. Sei seme-alaba ditinagu gure gain, eta ez zienagu jatekorik eta janztekorik emaiten ahal. Laster beraiek ere, gaixotzen hasiko zaizkigun.

- Eta zer eginen dugu? – Maixanek, malkoak begietan zituela.

- Zera pentsatu dinat... – jarraitu zuen Txominek– Behirik gabe ez dinagu aitzina egiten ahal, eta sosik ez daukagunez gero, onena dun hi zenbait urtetan Baionara neskame joaitea. Horrela, urte pare batean, behi berria erosiko geniken eta berriz hutsetik abiatu ahalko. Zer iduritzen?

- Baina, baina... eta gure seme-alabak? – Marixanek, senarrak egiten zion proposamena ezin sinetsiz.

- Lasai laztana! Nirekin egonen ditun goxo-goxo, Ni izanen naun, hi kanpoan hagoen bitartean, beraien aita eta beraien ama. – Txominek.

Maixan isildu zen. Barrua penaz eta tristuraz lehertze arren ez zuen txintik ere erran. Erabakia hartua zeukan. Hil berean, puskak jaso eta Baionara aldera abiatu zen.

Lehen urtea pasatuta, Maixan Errekaldera itzuli zen. Inoiz baino ederrago eta dotoreago zetorren. Denentzako opariak zekartzan. Sos anitz ekarri zuenez gero, bat ez, bi behi erosi zituzten.

Hilabete eskasa egin zuen baserrian, berehalaxe hartu baitzuen, berriz ere, Baionarako bidea.

Bigarren urte betetzean, Errekaldera itzuli zen. Opariak zekartzan denontzat. Urrez eta harribitxie apainduta zetorren: urrezko belarritako handiak, perlazko lepokoa, urrezko eraztun eta eskumuturreko ugari... Jantziak ere dotoreak eta garestiak ziren. Ekarrirako diruaz hiru behi erosi zituzten. Baina orduan hasi ziren auzoan eta herri osoan mihi gaiztoak dantzak, inbidia ez

baita inoiz ezkutuan gelditzen. Kontu txar haiek Txominen belarrietara iritsi ziren eta gure gizonaren baitan arrangurak eta zalantzak piztu ziren. Horregatik, har hori ezkutuan ezin eramanez, behin ohean zeudela, horrela galdetu zion emazteari:

- Maixan! Sos anitz ekarri dun etxera, gehiegi erranen niken nik. Ez haiz Baionan modu txarrean ibiliko? Ulertzen al didan?

Maixan senarrari begira gelditu zitzaion, zer erran ez zekiela. Minutu batzuk mutu egin ondoren, horrela erantzun zion:

- Baina Txomin, hik zer nahi duk, adarrik gabeko behiak ala?

“AGUR MARIA” BATEN TRUKE

Marixol Eseberri Erriberrin bizi zen. Bertan jaioa zen, baita haren gurasoak eta aitatxi-amatxiak ere. Gurasoengandik jasotako okindegi baten jabe zen eta bertan ziharduen lanean goizez zein arratsaldez. Hori dela eta, herrian denek ezagutzen zuten bai bere bizibideagatik eta bai bere eliza-zaletasun handiagatik, Marixol arrunt elizkoia baitzen. Goizero, okindegia zabaldu aurretik, elizara joaten zen meza entzutera eta igandeetan herriko apaiza laguntzen zuen elizako jardueretan.

Marixol ezaguna bezain maitatua zen Erriberrin osoan. Hogeita hamabost urte zituen eta sasoi betean zegoen. Denetik zuen arren bazuen hutsune handi bat bere bizitzan. Ama izan nahi zuen, baina bekatu egin gabe, hau da, gizonik ukitu gabe. Eta horixe zen bizitzan zuen nahikaririk handiena.

Behin, elizatik aterata, eta okindegia zabaltzera zihoala, bidelagun suertatu zitzaion Margari Arellanorekin hitz aspertu bezain interesgarria eduki zuen, haren baitan itxaropena piztu zuena.

- Aizan Margari, hire lehengusina, hirekin batera elizako kontuetan laguntzen aritzen zen hura, non da orain? Aspaldian ez zeukanat haren berri.
- Nork erraten dun, Artaxoako lehengusina? Jerusa Uriarte?
- Bai, bera! Aspaldian ez dinat ikusi!
- Ezta ikusiko ere! Hura Artaxoara bizitzera joan zunan, eta han aritzen dun bere umea zaintzen. Gaixoak aski din.
- Zer dion? Bere umea zaintzen? Baina ezkondu al zen? – Marixolek, arrunt harriturik.
- Ez, ez, ez! Jerusa ezkondu? Bai zera, ezta erotuta ere! – Margarik, misteriozko doinuaz– Jerusa hagitx erlijiosoa dun, kristau ona, eta ez din gizonekin erlaziorik nahi. – jarraitu zuen misterioa areagotzen.
- Bai, bai, hori dena banekinan nik. – Maixolek, guztiz nahasirik– Baina orduan... ume hori? Jaso izanen dun, noski!
- Jaso, bai zera neska, ongitxo erditua! – Margarik, irribarrez.
- Hau misterioa neska! – Maixolek, ezin ulertuz– Gizonik ez, baina haurra eduki. Nola uler daiteke hori?
- Marixol, hik ezagutzen al dun herrian, gaztelutik gertu dagoen monasterioa?

- Ezagutuko ez dudan ba, neska! Nire amatxi bat bertan aritu zunan urte luzetan garbiketa kontuetan.

- Ba, Jerusa bertara joan zen eta Agur Maria batekin haurdun gelditu.

– Margarik, misterioaren aitortpena eginez.

- Ene bada! Aitaren eta semearen...! – Marixolek gurutze santuarena egiten– Eta nik jakin ez!
Nik ere horrelako zerbait beharko niken!

Hurrengo goizean Marixol Margarik aipatutako monasteriorantz abiatu zen. Pozaren pozez zihuan. Azkenean, bere bizitzako ametsa beteko zuen. Monasteriora iritsita, ate nagusiko aldaba jo zuen: Danba, danba, danba...! Handik zenbait minututara fraide atezainak ate ondoko zurezko leihatila bat zabaldu zuen eta bertatik Marixol agurtu:

- Jainkoak egun on eman diezazula! Zer nahi duzu? – galde egin zion Marixoli ahots geldoaz.

- Baita berorri ere! – Marixolek, amini bat lotsatuta, erantzun.

- Zer nahi duzu? – errepikatu zion fraide atezainak.

Eta Marixol kontu kontari hasi zitzaion bilatzen zuenari buruzko azalpenak ematen.

- Herriko adiskide batek erran didanez, Jerusa Uriarte hona etorri zen familia eske, eta Agur Maria batekin haurdun gelditu omen zen. Nik mirari bera eskatzera etorri natzaizue. – Marixolek, eztarria estutzen zion lotsa gaituz.

Eta fraide atezainak ahots geldoaz erantzun:

- Hara, zuk ere badaukazu horren berri. Ba, jakin ezazu mirari hori ez zela Agur Maria batekin izan, gure aita batekin baizik, baina orain oportetan dago. Haren beharra baduzu, itzul zaitetz hurrengo hilabetean, hemen harrapatuko baituzu.

APAIZA GIDARI

Apaizak betidanik izan dira arimen gidari, horretaz aritu dira, aritzen dira eta arituko dira ahitzen ez diren bitartean. Gaurko Euskal Herrian badirudi kate hori haustear edo hautsita dagoela. Gauza da, arimen gidaritzan trebe izan direla beti. Baina orain hemen kontatuko dizuedana ez dago loturik arimen gidaritzarekin, auto gidaritzarekin baizik. Eta hor, hastapenetan bederen, apaiz guztiak ez ziren horren trebe izan. Ikus dezagun On Mañuel Larrauriri gertatu zitzaiona.

On Mañuel Izoetaetako erretorea zen. Gizon fina, apaiz abila. Herrian denek maite zuten. Abila zen arimen zaintza kontuetan, eta diotenez, abilagoa oraindik herriko frontoian. Arratsaldero hor aritzen sen, sotana eta guzti, pilota poliki astintzen. Gutxi ziren haren aurka partidaren bat irabazia zutenak.

XX. mendeko 60ko hamarkadan behar berriak sortu ziren eta On Mañuelek ere aurre egin behar izan zien. Izoetaetatik hamabost bat kilometrotara zegoen Ilardui herriko erretorea hil berria zen eta hango arimak gidari eta zaindari baten beharrean zeuden. Gotzainak On Mañuel proposatu zuen, Izoetaetako erretorea izateaz gain, Ilarduikoa ere izan zedin. On Mañuelek gotzainaren agindua obeditu zuen eta orduz geroztik han ibiltzen zen egunero Izoetaetatik Ilarduira eta Ilarduitik Izoetaetara, horretarako propio, gotzaindegitik bidalitako asto zuri-beltzaren gainean.

Baina jarduera berri honek bete-bete harrapatu zuen gure On Mañuel, eta egun osoa ematen zuen horretan, beste zereginetarako denborarik gabe. Akabo frontoia eta akabo lagunartea!

On Mañuel erre-erreta zebilen, erreta baino gehiago kiskalita, eta azkenean, bere arrangurak biltzen zituen gutun luzea idatzi eta igorri zion gotzainari. Gotzainak, On Mañuelen estresaren berri edukitzean, gupidatu eta orduko garaiekin bat egiten zuen alternatiba prestatu zuen. Auto bat emango zioten On Mañueli bi herriak ongi zaindu zitzan. Eta horrela egin zuten. Mercedes zuri bat jarri zioten elizaren aurrean. Herritar guztiek, txunditurik eta inbidiaturik, begiratzen zioten autoari, lehena baitzen herrian eta bailara osoan. Alkate berak ere ez zeukan halako tramankulurik.

On Mañuelek aski ongi frogatua zeukan arimak eta astoa gidatzen trebea zela, baina orain gauza bera egin beharko zuen auto moñoño harekin.

Zenbait hilabetetan bizimodua izugarri zaildu zitzaion gure erretoreari, auto hura gidatzeko gida-baimena atera beharra baitzeukan, eta gida-baimena ateratzeko Iruñeraino joan beharra baitzeukan. Baina bi aldiz pentsatu gabe, On Mañuelek ikasteari ekin zion. Horretarako astoz joan behar izaten zuen urrutiko herri koxkor bateraino, astoa bertako apaizaren etxean utzi, autobusa hartu eta Iruñeraino. Iruñeko auto-eskolan bizpahiru ordu ikasten eman eta ondoren alderantzizko bideari ekin.

On Mañuel gureak neka-neka eginda, arrunt unatuta, bukatzen zuen eguna. Ez zuen inongo frontoirako denborarik, baina hala eta guztiz ere, pozik zegoen, luzera bere onerakoa zela ongitxo baitzekien. Denboraldi txar hura pasatu behar, gero lasaiago ibiltzeko. Jesukristok basamortuan

egindako denboraldian jasan zuen sufrikario latza zen On Mañuelen kontsolamendu bakarra. Hark gorriak pasatu bazituen, On Mañuel ere, kristau on bat bezala, prest zegoen beltzak eta gorriak pasatzeko.

Eta azkenean, bost hilabete beranduago, gida-baimenaren jabe egin zen. Harro-harro erakusten zien Izozteta eta Ilarduiko herritarrei. Eta autoa lehen aldiz mugitzeko eguna iritsi zen. On Mañuelek, herri guztia --alkatea eta guzti-- aurrean zuela, autoa piztu zuen. Haren zarata polita! Haren edertasuna!

- Hori da, On Mañuel, hori da! – garrasi egiten zioten herritarrek, pozaren pozez.

On Mañuel autoa poliki-poliki mugitzen hasi zen.

- Hau da On Mañuel gurea, hau! – Margarita serorak ondoan zituen lauzpabost amatxi zaharrei– Beti izan da ikaragarri ausarta!

Poliki-poliki Izoztetako plazatik atera zen eta herria zeharkatu zuen behin, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi,... hamaika aldiz. Jendeak harrিতuta begiratzen zion.

Berrito plazara sartzean alkateak galde egin zion:

- Zer du berorrek? Ezer gertatzen al zaio?

Eta apaizak autotik erantzun:

- Bai, ahantzi dut zer egin behar den autoa gelditzeko.
- Ba, hemen herrian halako kontuetan inork ez daki deus. – alkateak.
- On Mañuel, aritu hemen herriko plazan itzuliak ematen gasolina ahitu arte! – sakristauak oihuka.

Eta horrela egin zuen On Mañuelek, herriko plazan itzulika-mintzulika aritu zen hamalau bat orduz erregaia bukatu zen arte. On Mañuel gizajoa horretan aritu zen bitartean herri guztia egon zen plazan arrosario saindua errezatzen. Joxe Mari sakristauak zuzentzen zuen eta herritar guztiak debozio handiz jarraitzen zioten. Gaixo On Mañuel!

Gau osoa eman zuten beila hartan, arrosario sorta ederra errezatuz. Azkenean, goizaldeko lehen argi printzekin batera, On Mañuelen automobilak ufada ttipi bat egin eta plaza erdian gelditu zen seko. Erretorea akitua baina bizirik atera zen automobiletik, eta herritar guztiei banan-banan eskerrak eman ondoren, apaiz-etxera erretiratu zen.

Asmakizun berri hauek! – zebilkion buruan bueltaka– Astoa lasaiagoa duk, baina sooo! esan eta bertan gelditzen duk, kieto!

HERRENA ETA ZEZENA

Donostiako Gros auzoan bazen Txofre izeneko zezen-plaza. Garai oso zaharretatik bazen zezen-plaza gero egon zen tokian duna bat, eta duna horretatik bonbardatu zuten Wellingtonen kanoiek 1813. urtean eta hiri gotortuaren harresian bretxa edo zulo handia egin. Zulo horretatik sartu ziren abuztuaren hogeita hamaikan Donostia erre eta donostiarrak sarraskitu zituzten soldadu britainiar eta portugaldarrak. Askoz geroxeago egingo zuten duna gainean arestian aipatutako zezen-plaza.

Zinerik eta telebistarik ez zegoen garai haietan zezenketak ziren, antzerkiarekin batera, ikusgarri publiko ia bakarrak. Zezenketek jende asko erakartzen zuten eta ondorioz, diru-iturria ere bazen. Zezenketak ziren aldiro jendetza handia hurbiltzen zen Txofre aldera, eta horretaz baliatuz, plazako sarreretan eta inguruetako tabernetan eskale tropeltxo bat ibiltzen zen. Horietako deigarriena agian, zurezko orgatxo baten gainean mugitzen zen Blax herrena. Zezenketa zen guztietan Txofre aldera hurbiltzen zen bertara joaten ziren guztiei dirua eskatzera. Betidanik ezaguna zutenez gero, donostiarrak, Blax eskean ikusten zutenean, txakur txiki bana ematen zioten. Eta badirudi askotxo ateratzen zuela.

Blax Urkia gizon argia zen, bizkorra,... eta eskean ari zela Iparragirreraren kantuak edota Txirritaren bertsoak abesten aritzen zen. Gernikako Arbola primeran kantatzen omen zuen eta donostiarrak kantu hori izugarri maitatzen zutenez, ongixto saritzen zuten gure herrena. Blaxen bizio bakarra ardoa zen, eta horretan xahutzen zuen anitzetan Txofren irabazitako dirua.

Behin, zezen bihurri batek alde egin omen zuen plazatik. Atzetik zezenketariak eta guardiak bazihoazkion ere, ezin izan zuten, inolaz ere, harrapatu eta zezena Groseko kaleetan barrena ibili zen auzotegi osoa beldurtuz. Jendea korrika eta lasterka zebilen babes bila. Halako batean, zezena Blax eskalearekin topatu zen. Aurrez aurre zeuden, elkarri begira. Blax galtzetan kaka eginda zen, baina ezin zuen orgatxo harekin ihes egin.

Etxeetako leihoetatik jendeak alde egiteko eskatzen zion:

- Korri Blax! Alde egin ezak hortik!
- Gorde ezak hire burua! Korri!
- Segi ezak eskuin aldera! Azkar!

Baina beranduegi zen. Blaxek bazekien korrika hasiz gero, zezenak harrapatu eta bota egingo zuela airean, orgatxo eta guzti. Horregatik geldi-geldi zegoen, zirkinik egin gabe. Horrela zegoela Jaungoikoari oihuka eskatzen hasi zitzaion.

- Jaungoiko nirea, utz nazazu gutxienez orain arte egon naizen bezala. Ez okerrago.

Baina zezena ez zen Jaungoikoaren beldur, eta sudur zuloetatik airea jaurtiz, eta marru basa eginez, abiadura hartu eta ziztu bizian Blaxengana abiatu zen.

Eta orduan gertatu zen gertatu zena. Blax zutitu zen, eta zurezko orgatxo gurpilduna alde batera utzirik, korrika egiteari ekin zion. Kaletik behera zihoan zezenak gertutik jarraitzen ziola. Kale hartan bazen jende franko, izkinetan gorderik, eta zezena zihoakiela ikustean, lasterka egiteari ekin zioten denek. Hura giza zurrumbiloa! Hura izua!

Eta garaiko kronikek kontatu zutenez, Blax herrena omen zen denen artean azkarren korri egiten zuena. Santa Katalina zubira iristean, bertan zain ziren guardiek tiroz hil omen zuten zezena.

BI EMAKUME KANPOSANTUAN

Maritxu eta Iñaxita ahizpak ziren, oiartzuarrak, Donostiara ezkonduak zirenak. Lehenak lau seme-alaba zituen eta bigarrenak hiru. Donostian ongi moldatzen baziren ere, bazuten bihotzean zimiko bat, Oiartzun eta Oiartzunen utzitako familia eta lagunak falta baitzitzaizkien. Hori zela eta, Donixtebanak zirenean, senideak etxean utzi eta Oiartzunera joaten ziren guraso zaharrak, anaia-arrebak eta betiko adiskideak ikustera. Sos askorik ez zutenez gero, oinez joaten ziren biak elkarrekin Ametzagainetik barrena, XX. mendearen hasieran guztiz ohikoa zen bezala.

Urte hartan aste mundiala egin zuten Oiartzunen, lagun batekin eta bestearekin egoteko parada ezin hobea izan baitzuten. Gurasoak, zahar samar topatu bazituzten ere, osasunez ondo zeudela ikustean, poz handia hartua zuten.

Zoritxarrez, gauza guztiek dute euren akabera, eta gauza onek lehenago. Maritxuk eta Iñaxitak gurasoekin eta gainerako ahaideekin agurtu eta Donostiarako itzulbideari ekin zioten. Oiartzunen ikaragarri ongi pasatu bazuten ere, bazuten gogo handia senarrak eta seme-alabak berriro ikusteko.

Bidea luzea eta nekeza zen, eta bi egunetan egitea nahi zuten. Bigarren eguneko arratsean, Ametzagaineko magalean dagoen Otxoki baserrira iritsi ziren. Han bazuten txikitako lagun bat, Ugaldetxoko Margari Aduriz, bertara ezkondua zena, eta urtero bezala, bertatik igarotzean, derrigorrezko bisita egin zioten.

Margarik eta Joxe Mari senarrak, urtero egiten zuten bezala, izugarri ongi hartu zituzten bi ahizpak. Beraiekin eta haien bost seme-alabekin batera afaldu zuten Otxokiko sukalde goxoan. Oru luze eman zuten sukaldean hizketan hasieran eta kantatuz gero Margarik ateratako kafesne beroen inguruan. Halako batean, Joxe Marik botila bat atera zuen arasa batetik eta ordurako hustuta zituzten katiluetan zerbitzatzen hasi zitzairen.

- Zer duk hori, Joxe Mari? – galde egin zion Iñaxitak.
- Uxuala Iñaxita, uxuala. – Joxe Marik.
- Uxu... zer? – Iñaxitak, edariaren izena ezin errepikatuz.
- Uxuala, uxuala neska! – Margarik– Koxme lagunak ekarri zionan Getariatik, hango baserrietan egiten omen dituen.
- Hara! Usain ona dik, Joxe Mari. – Maritxuk, katiluan ateratakoa usainduz.
- Dasta dezagun bada. – Iñaxitak katilua altxatuz eta ezpainetara eramanez.
- Itxoin ezak pixka bat neska! – Margarik– Egin dezagun topa!

- Bai horixe! – Joxe Marik, bere katilua altxatuz– Gu denon graziaz.
Jaungoikoak osasuna eman diezagun hemen gauden guztioi, eta hurrengo urtean ere, orain bezalaxe, hemen bil gaitezen! Topa!
- Topa! – Margarik.
- Topa! – Mirentxuk.
- Topa! – Iñaxitak.
- Eta gazteek ez al dute edaten? – Maritxuk, baserriko seme-alabak seinalatuz.
- Ez, gaztetxo samar ditun oraindik horrelako edari azkarra edateko.
– Margari amak.
- Baina, horren azkarra al dun? – Iñaxitak.
- Bai, hildakoak berriro pizteko modukoa. – Joxe Marik.
- Baina etxera joan behar diagu, Joxe Mari. – Maritxuk eta Iñaxitak, biak batera.
- Lasai, lasai! – Margarik– Badakizue hemen baduzuela lo egiteko tokia. Gaua gurekin pasa eta bihar, goiz-goizean, gosalduta ondoren, zuen etxe aldera abiatu.
- Mila esker Margari, bihotzez estimatua, baina lehenbailehen iritsi nahi dinagu gure etxeetara. Astebete egin dinagu Oiartzunen eta gureak berriz ikusteko irrikan gaitun.– Maritxuk eta Iñaxitak batera.
- Horiek ere bihar arte han egonen dira, etxeko zuloan, lasai ederrean. Gaua da eta gaua lo egiteko egin dago. – Joxe Marik.
- Mila esker berriro ere, Joxe Mari, bihotzez estimatzen diagu zuen gonbitea, baina etxera joan beharra zeukaagu. – Maritxuk.
- Ongitxo ulertzen dizuet, emazte eta ama zarete. Ni ere, zuen tokian banengo, etxera iristeko irrikan egongo nintzateke. Gizonek ez dute gure antzik eta ezin dute hori ulertu.
- Dena den, uxuala izugarri goxoa duk Joxe Mari. Barrena piztu zidak. – Iñaxitak– Emaiguk beste zurruta bat bidea indarberriturik har dezagun.
- Bai horixe! – Maritxu ahizpak– atera ezak beste zurrutada bat! – eskuan zuen edalontzia Joxe Marirengana luzatuz.

Joxe Marik botilari kortxoa kendu eta katiluetan zurrutada ederra zerbitzatu zuen. Osasuna! esanez edalontzia altxatu zuen. Gure graziaz! Topa!

- Topa! – Margarik.
- Topa! – Maritxuk.
- Topa! – Iñaxitak.

Hamar minutu beranduago, Margarik eta bere familiak egindako harrera ona bihotzez eskertu ondoren, Ametzagaina igotzen zuen bideari ekin zioten. Ordurako ilun samarra zegoen eta ilargiak eta izarrek emandako argiak bidea argitzen zien. Tarteka, ezker-eskuin zeuden baserriak atzean utziz, bideari lotuta jarraitzen zuten. Kostata, baina azkenean, Ametzagaina igo zuten.

- Hau dun hau neska! Gure amona baino zaharragoa nagoela iruditzen zaidan! Inoiz ez dinat horrenbeste kontu izan Ametzagaina igotzeko! – Maritxuk arrunt nekaturik.
- Bai neska, niri gauza bera gertatzen zaidan. – Iñaxitak, kopetatik behera etengabean zihoakion izerdia esku batez txukatuz– Ez zekinat zer gertatzen zaidan baina arraro samar nagon.
- Baita ni ere! – Maritxuk, bide bazterrean zen harri zabal handi batean eseriz– Dena jira-biraka zebilkinan. Bidea ere ez zaidan betikoa iruditzen.
- Eneee! – Iñaxitak, ikaraturik– Gauza bera ari nindunan pentsatzen. Galduak gaitun.
- Ez, galdurik ez. Bazekinagu Ametzagaina igo dugula eta hor nonbait gaudela. – Maritxuk.
- Hala dun, hala dun. – Iñaxitak.
- Hala eta guztiz ere, hau bitxi samarra dun. Eneee! Ez dun Joxe Marik eman digun uxuala famatu horren eragina izango? – Maritxuk, gogoetari emana.
- Hori izango dun. Edari hura azkar samarra zen. – Iñaxitak, ahizparen ondoan, harri berean eseriz.
- Ni ez nagon bat ere ondo. Burua gaizki zeukanat eta sabela arraro samarra. Bazirudin kakagura handia dudala. Eneee! Ene sabela! Hau mina! – Maritxuk, bi eskuez sabela ukituz.
- Ba, niri gauza bera gertatzen zaidan. – Iñaxitak, zutituz eta eskuak sabelera eramanez.
- Ni premia larrian nagon. – Maritxuk, obratzeko txoko egokia bilatuz.
- Baita ni ere! – Iñaxitak, puzker handiak jaurtiz– Bila dezagun toki ezkutu bat, azkar!
- Hemen, hemen Iñaxita! Hemen badun korta moduko bat eta atea zabalik daukala ematen din. – Maritxuk, kakalarria nekez kontzen ari zela.

- Goazeman, goazeman! – Iñaxitak, sumendia lehertzear zuela.

Ahal bezala, korta moduko hartara sartu, gonak eta gonazpikoak kendu, bazter batean utzi zikin ez zitezen, eta han ziren harri lauza handiren artean libratzeari ekin zioten. Haien puzkerrak eta hango kiratsa! Bospasei minutu beranduago bi ahizpak hobeto zeuden.

- Ai neska, lehertu behar nuela uste ninan. – Maritxuk.

- Bai Maritxu, nik ere larriak ikusi ditinat. Baina zer eman digute Margariren etxean, purga ala?

Bi ahizpak makurka zeudela ari ziren hizketan. Halako batean, Iñaxitak hilobiak eta gurutzeak nonahi ikusi zituen.

- Baina neska, non sartu gara? – Iñaxitak, ikaraturik, eta itsu-mitsuka bi eskuez, lehen hobeto libratzeko, kendutako gona eta gonazpikoa bilatzen– Polloeko kanposantuan gaitun!

- Aiii, kanposantuan! – Maritxuk, ahizpa esaten ari zitzaiona ezin sinetsiz.

Bat-batean, bi ahizpengandik aski hurbil, soinu handi bat entzun zen:
karraaaast!

- Ene! Gure sakrilegioarekin haserretu ziren espirituak izango ditun! – Iñaxitak, arrunt ikaraturik.

- Goazeman berandu baino lehen! – Maritxuk, laborriak zeharo harrapaturik.

Bi ahizpek itsu-mitsuan kendutako arropak bilatu zituzten eta ziztu bizian, eroaren gisa, korrika eta lasterka jaitsi ziren urrunean ikusten ziren Egia auzoko lehen etxeetaraino. Ordu erdi batean, Alde Zaharreko haien etxeetan zeuden.

Hurrengo egunean, eguerdi aldeko txikiteoan, bi ahizpen senarrak topatu ziren Poyuelo kaleko taberna batean. Ez batak, ez besteak, ez zuten aurpegi onik.

- Zer Joxe, gaur ez haut ondo ikusten. – Iñaxitaren senarrak, koinatuarengana hurbilduz.

- Ez Mieltxo, ez. Hala duk, ez nagok bat ere ongi. Uste diat emaztea adarrak jartzen ibili zaidala. Atzo gauean, gerritik behera biluzik eta gona eskuan etorri ez zitzaidan ba.

- Hori ez duk ezer, Joxe. Nirea ere pirua horretan etorri zunan, eta gainera Donostiako suhiltzaileek ez zaitugu inoiz ahaztuko zioen mezua zeraman lore-koroa gerrian sartuta. Hortik atera ezak kontua!

DE LANCRE ETA GRAXIANAREN MADARIKAZIOA

1609ko urtarrilean, Senpereko eta Urtubiako jaunek Frantziako IV. eta Nafarroako III. zen Henrike erregeari ordezkari berezi bat bidal zezala eskatu zioten, herrialde osoan indartzen ari omen ziren sorginei aurre egiteko. Hauxe izan zen bi jauntxo horiek erabilitako estakurua, benetan nahi zutena, Lapurdiko Biltzarrean biltzen ziren etxeko jaunen boterearen aurka jotzea baitzen. Erregeak ederki zekien hori, baina bi jauntxo horiek eskatutakoa bat zetorren erresumako lurraldeak uniformatzeko zeukan asmoarekin.

Lapurdiko euskaldunak beraien foru edo eskubide historikoez gobernatzen ziren. Etxe bakoitzak aita --etxeko jauna-- bidaltzen zuen herrietako biltzarretara, eta herri guztietako ordezkariak Uztaritzen biltzen zen Biltzarrera joaten ziren. Usadio eta lege zaharrei begiratzuz gobernatzen zuten herrialdea. Eta horixe zen erregeak ezabatu nahi zuena, Parisen zentralizatutako aginte zuzen batez ordezkatzeko. Eta horrela, sorginen aitzakiari helduz, Bordeleko kontseilu gizona zen De Lancre hautatu zuen eta maiatzean Lapurdira igorri.

Baionara iristean Moxen Bertrand Etxauze apezpikuak ongi etorria egin zion, eta badirudi lehen momentu horretatik De Lancreren eta Etxauzen arteko aurkakotasuna sortu zela. Baionan zenbait lagun erre ondoren, Senperera abiatu zen eta bertako postetxe eta aterpe zen Barberenea izeneko etxean finkatu zen bere segizioarekin batera. A zer nolako segizioa: soldaduak, borroeroak eta tortura-tresnak.. Osora hogeita bost bat lagun inguru. Barberenean bere burua kokatu ondoren, tragedia haren piztaile ziren Senpereko eta Urtubiako jaunek lehenengoaren gaztelura afaltzera gonbidatu zuten. Eta hortxe hasten da gure istorio hau.

Senpereko jauregiko ganbera nagusian, janariz eta edariz mukurua den mahai inguruan eserita, hiru gizon ari dira afaltzen: bertako nagusia den D'Amou jaun gaskoia, Urtubiako jauna eta etorri berria den De Lancre epaile eta errege ordezkari dena. Halako batean, D' Amouk kopa altxatuz brindis bat egitea proposatzen du.

- Jaunak, egin dezagun topa, denok espero genuen egun handia iritsi baita.
- Bai, egin dezagun topa! – Urtubiako jaunak, bere kopa altxatuz– Hauxe zen aspaldian itxaro genuena.
- Jaun estimatuak – De Lancrek, bere kopa altxatuz– topa egin dezagun Jainko Handiak Lapurdiko sorgin zital horiek guztiak jakituri az eta zuhurtziaz zigor ditzan!
- Topa! Topa! Topa! – hiruek batera, euren kopak behin eta berriz toparaziz.

Gau hartan, De Lancrek D'Amouk eta Urtubiak egindako susmagarrien zerrenda jaso zuen beraien eskutik. Bertan baziren, bi jauntxoei itzal egin ziezaietenez gain, era guztietako herritarrak: herriko jaunak, bordariak, emakume belagileak, apezak, Ternuan arrantzan ari ziren arrantzaleen emazteak... Haien bekatu bakarra bi jauntxo horien begikoak ez izatea, eta Parisetik bultzatzen

zuten gizarte eredurako bitxi eta deserosoak izatea. Bilkura hura bururatzean, D'Amouk zerbitzari bat deitu zuen De Lancre Barberena ostaturaino gida zezan.

- Graxiana ! Graxiana !

- Zer duzu Jauna ! Deitu nauzu ? – erantzun zion jangelara sartu berria zen emakume zerbitzariak.

- Bai Graxiana, atea behar diozu erakutsi jaun handi honi eta aterpe duen Barbereneraino eraman.

- Nahi duzularik, Jauna !

Graxiana jangelatik ate nagusi aldera abiatu zen de Lancre gibeletik zeramala. Zerbitzariak eskuan kriseilu bat zeraman bidea argitzeko. Lepotik zintzilik zilarrezko lauburu bat zeukan. De Lancrek ikusi orduko galdetu zion :

- Zertako dakarzu, lepotik zintzilik, deabruaren gurutze hori ?

- Deabruarena? – Graxianak, arrunt harrituta– Zer ? Hau euskaldunon lauburua da, gu babesten gaituen ikur zaharra.

- Emazte euskaldun zikina! – De Lancrek, biziki haserreturik– Ez zikindu gehiago Jainko ahalguztidunaren izena horrelako sineskeriez. Sorgina al zara?

- Sorgina ni ? Nahi nuke, baina ez dut horrelako doarik. Sorginak emakume baliosak dira, sendabelarretan jakintsuak, euskal errito zaharrak zuzentzen dituztenak. Ni, zorigaitzez, emakume arrunta naiz, ez dut holako jakintzarik. Maleruski ez dakit deusik. Baneki...

– Graxianak, arrotzaren galdera ezin ulertuz.

- Ixo, ixo atso madarikatua ! Aski dut ! Gorde ezazu zure mihi gaiztoa. Sorgina ematen duzu ! Akelarretan ibiltzen al zara ?

- Kar, kar, kar, kar, kar,... ! – Graxianak barreari ezin eutsiz– Zer nahi du arrotz zahar honek, gure akelarre batera etorri ? – bere buruari galdetuz– Ez du aire onik. Erdi eroa iduri. Ez dut ikusten dantza-sokan ez eta jauzietan ere. Ez du ematen oso dantzari ona denik. Sagardo zurrutada bat edan ondoren, akabo izanen da gizon hau, bertan mozkortuko zaigu. – eta frantximantari begira:

“Gaskoiniako Joanikot,
egidazu uzkiekian pott”

De Lancrek aitaren egin zuen, eta gehiago esan gabe, Graxianaren urratsen ondotik jarraitu zuen. Zerbitzariak jauregiko ate nagusia ireki zion eta kanpora atera ziren biak. Barberenera gidatu zuen gero, bidea eskuan zeraman kriseiluaz argituz. Aterperako bidean, De Lancre gogoetan aritu zen gau hartan ikusitako eta entzundako guztiaz. Gauza bat zuen garbi bere buruan: Lapurdiko emakume guziak sorginak ziren.

Hurrengo goizean esnatzean, ostatuko jabearen bisita izan zuen. Maialen Hiriart alargundu berria zen eta hori dela eta, senarra izan zenaren ostatua gobernatu beharra zeukan. De Lancre biziki kolerratu zen emakume bat etxe-jabe zela ikustean. Haren ustetan euskaldunak gorrotagarriak ziren beretzat, deabruaren hizkuntzaz mintzo ziren, ez ziren ez frantses eta ez espainol, gizon libreak ziren frantsesak menpekoak ziren bitartean, berezko gobernu erakundeak zituzten... sinesmen zahar paganoei atxikiak bizi ziren, eta gainera, besta zale handiak ziren, sagardo edale amorratuak, sexu arloan libre samarrak....

Eta hori guztiaz gain, haren aitaxi ere euskalduna zen, Rostegi abizenekoa, Nafarroa Behereko Jutsi herrikoa. Eta, batez ere, horrek kiskaltzen zion barrena, bera frantses eta giritino ona baitzen, eta ezin zuen eraman zainetan euskal odola edukitzea. Hori dena zuen barruan bor-borka, eta horiek guztiak desagerrarazteko grinak barne-barnetik erretzen zuen.

Bigarren gauean, Jaungoikoarekin solasean ari zela, leihotik zenbait itzal iragaiten ikusi zuen. Kontu handiz eta erdi ezkutuan, karrikara atera eta zenbait gizon-emakume mendi aldera zihoazela ikusi zuen. Beraien artean Graxiana zerbitzaria eta Maialen Hiriart ostalera alarguna zihoazen.

- Nora ote doaz gaueko ordu ttiki hauetan? – pentsatu zuen bere baitarako– Akelarre horietako batera joango ote dira?

Bi aldiz pentsatu gabe, bere ganberara sartu, eta aurpegia estaltzen zion hegal zabaleko kapel handi bat buruan jarrita, berriz irten zen ostatutik eta hurbileko mendietara zihoazen herritarren gibeletik abiatu zen. Mendi estrata batetik barrena ibili ziren oren erdi batez eta azkenean, harkaitz handiren artean zegoen belaze batera iritsi. Han baziren berrehun bat lagun, gizonak eta emakumeak, zaharrak eta gazteak, seguruenik aldameneko herrietatik ere etorriak. Den-denak deabruaren mintzairaz ari ziren, euskara zikinaz. Belazearen izkina batean, harkaitz handi horietako baten ondoan, harrizko aldaretxo moduko bat zegoen, eta bertara hurbildu ziren lauzpabost lagun. Horietako hiruk –gizon bik eta emakume batek– esku ezkerrez basa xirula bat jotzen zuten eta eskuinaz danbor bitxi bat (ttunttuna). Beste biek – neska batek eta mutil batek– pandero handi bana jotzen zuten.

- Horiek dira, zalantzarik gabe, akelarreko errege-erreginak! – pentsatu zuen De Lancrek.

Xirulari horietako batek egindako soinuak seinaleari gainerako musikari guztiak erritmo alai eta bortitz batean lotu zitzaizkion eta belazean bildutakoak jauzitan eta dantzan hasi ziren. Erritmo hura gero eta biziagoa zen, gero eta azkarragoa, panderodunetako batek ozenki emandako aginduei jarraiki dantzatzeko zuten belar-soroan bildutakoek. Dantza horren ondorekin beste bat etorri zen, eta ondoren bestea. Tarteka baziren bestelako dantzak ere: fandangoak, soka-dantzak eta horrelakoak. Gorputzak izerditan blai zeuden, emakumeen bularrak airoski mugitzen ziren dantza zoro haietan, eta fandangoetan, besoak altxatzen zituztenean, nabari gelditzen ziren denon begi-bistarako. Soka-dantzetan gorputzak bata besteari kontra pilatzen ziren inolako lotsarik gabe, etengabeko ukitu sentsualak eginez. Horrela iruditzen zitzaion De Lancreri, bederen. Gure gizona arras eskandalizaturik zegoen “akelarre” lizun hura ikusita.

Geroxeago, zenbait gizonak ardoz betetako bi zahagi eta sagardoz gainezkaturiko bizpahiru barrika ekarri zituzten. Zurezko edalontziak nonahi agertu ziren eta den-denek edateari ekin zioten alaitasunezko oihuen artean. Alkoholak zelai hartan bildutakoak are gehiago piztu zituen, eta indar handiagoz ekin zioten dantzatzeari.

Ordurako, dantzarien gorputzak blaitutako atorretan garbiki ikus zitezkeen eta bai gizonzkoen eta bai emakumezkoen formak nabari. Jadanik, han-hemen baziren zenbait lagun lurtean eserita edota etzanda zeuden. Horietako batzuk elkarri musuka ari ziren, edota besarkaturik inolako erreparorik gabe. Eta hura zen De Lancrentzat hango guztiak sorgin-aztiak zirela argudiatzeko topa zezakeen probarik garbiena.

De Lancre alde batetik bestera zebilen akelarre hura hobeto ikusi nahian. Halako batean, soka-dantza deabruzko batean zebilen neska batek eskutik hartu eta bere borondatearen aura biribilean, dantzan, sartu zuen. De Lancrek berehala ezagutu zuen dantza hartara sartu zuena, Graxiana zen, D'Amouren zerbitzaria. Bazirudien neskak ere De Lancre ezagutua zuela. Barreen artean euskaraz hitz egiten zion. De Lancre, desesperaturik, indarka ari zen aitzinetik eta gibeletik dantza-biribil hartara lotzen zuten eskuetatik libratu nahian. Horretan ari zela, Graxianaren eskutik libratu eta dantzaren erritmoaren indarrak eraginda, lurrera erori zen denon begien aurrean. Hangoen algarak! Hangoen barreak!

De Lancre amorruez betea zen, eta inork ulertzen ez zituen frantsesezko madarikazio eta purrustadez erantzuten zien bertakoek euskaraz esaten zizkionetenei. Graxiana, gupidaturik, De Lancrengana hurbildu, eta lurretik altxatzen ahalegindu zen. De Lancrek, harrokeriak itsuturik, Graxianak eskaintzen esku lagunari uko egin zion. Orduan, Graxianak, haserreturik, D'Amouren etxean bota zion erretolika berberaz erantzun zion:

“Gaskoiniako Joanikot,
egidazu uzkiek pott”

Graxianak botatutakoak inguruan zeudenen barre-algarak altxatu zituen eta De Lancreren amorrua areagotu.

- Sorginak, euskaldun zikinak! Larrutik ordainduko didazue! Su sakratuak bazter hauek garbituko ditu betiko!
- Zertan ari da? – Graxianak, ezin ulertuz.
- Euskaldunez gaizki esaka, ene ustetan. – ondoan agertu zen Maialen Hiriartek.
- Gutaz gaizki esaka? – bazterrean zeuden bizpahiru mutil morroskoek.
- Kaskoin zikina!, zer du gutaz trufatzeko? – horietako batek.

- Kaskoin mihia, suge mihia! – horietako beste batek.
- Nik erakutsiko diot frantximant horri, zein garen euskaldunok! – hirugarren batek, eskuan zuen makilatzarraz De Lancreren buru-bizkarrak indarrez astinduz.
- Geldi, geldi! – beste guztiek batera– Akabatuko duk!
- Geldi Allande, geldi! Uztak kaskoina lasai, uztak! – Graxianak.

Graxianaren, Maialen Hiriarten eta aldean ziren beste bi emakumeren artean De Lancre hebaindua altxatu zuten. Zurbil-zurbila zen eta konortea erdi galdua zuen.

- Gizon hau ez zagon bat ere ongi! – Graxianak, arrotzaren piura txarraz asaldaturik.
- Nola nahi dun ongi egotea, Allandek eman dizkion makilakadak jaso ondoren. – Maialen Hiriartek.
- Emaiozue baso bat sagardo eta piztuko da! – hango neska batek, eskuan zuen baso sagardoa Graxianari luzatuz.

Graxianaren eta Hiriarten artean edaten eman zioten erdi zorabiatuak jarraitzen zuen De Lancre malapartatuari. Honek txintik esan gabe basoa hustu zuen.

- Hara! Kaskoinari gure sagardoa gustatu zaio. – morroskoetako batek beste guztien barreak sortaraziz.

Sagardoaren gozoak De Lancre piztu zuen. Lurretik altxatu eta arrastaka hasieran, eta ahal zuen moduan gero, belazetik urrundu zen Senpere aldera, erromerian zirenen barre eta oihu ozenak belarrietan barruraino sarturik zeramatzala.

- Madarikatuak! Euskaldun zikinak! Gaur egindakoa garesti ordainduko didazue! – bota zien ozeki, bada ezpada ere urrun samar zelarik.

Inork ez zion deus entzun, eta denek dantzari lotuta jarraitu zuten.

Hurrengo goizean, De Lancreren soldaduek Maialen Hiriarte eta Graxiana Etxeberri atxilo eraman eta Senpereko gazteluko ziegetan sartu zituzten. De Lancrek sorginak zirela zioen. Borreroek ankerkeria handiz torturatu zituzten eta gero sutara kondenatu. Erretzera eraman zurretik, beraietaz agurtu nahi izan zituen. Soldaduek, odolez beterik, guztiz desitxuraturik eraman zituzten De Lancreren ganberara.

De Lancre ez zen bat ere gupidatu bi emakumeen egoera penagarria ikustean, eta harrokeria handiz hitz egin zien, ondoan zuen itzultzailearen laguntzaz.

- Zer moduz daude gure sorginak? Jadanik, ez dute deabruzko dantza horietan aritzeko gogorik? Kar, kar, kar...!

Mailen Hiriart isildu zen mespretxuzko begirada finko zuzentzen zion bitartean. Graxianak, berriz, ozenki erantzun zion:

- Frantximant bihozgabea, deabru txarrek eraman hazaten!
- Ixo, ixo urdanga! Aski entzun dizut! – De Lancrek, Graxianarengana hurbilduz.

Graxianak, abagunea baliatuz, tu egin zion begietara, eta ostikada bortitz batez errege ordezkari ankerraren barrabilak zigortu zituen.

Soldaduek kolpez josi zuten eta lurrera bota. De Lancrek, eroturik, aginduak eman zizkien bere menpekoei.

- Eraman, eraman itzazue eta erre lehenbailehen, su sakratuak lurralde zikin hau sorginez garbi dezan!

Soldaduek bi emakume gaixoak hartu eta kanpora eraman zituzten.

Maialen Hiriartek lehen bezain isilik segitzen zuen, begiak eroturik zituela zirudien, burua arrunt galdurik... Graxianak, berriz, azken madarikazioa botatzeko astia ukan zuen:

- Zerri alaena, kaskoin zikina, erre egingo gaituzu, baina zure bihotza ere zure bizitzaren une orotan kiskaliko da, baita heriotzaren ondorengo eternitate osoan ere!

Gaur ez dakigu seguru De Lancre hiltzaileak zenbat lagun erre zituen Lapurdiko lurraldeetan izan zen bitartean. Batzuek laurogei bat inguru erre zituela diote, baina badirudi atxilotuak eta torturatuak berrehun bat inguru izan zirela.

Baionako apezpiku zen Bertrand Etxauz baigorriarrak Frantziako Henrike IV.aren aurrean ezarritako salaketak eta Ternuan, balearen arrantzan zeuden bost mila gizonen itzulerak De Lancre odoltsua Euskal Herritik Bordelera urrunduz zuten. Eta luze bizi izan bazen ere, badirudi Graxianak botatako madarikazioa gibelean izan zuela beti. Bihotzaren aldean, su antzeko batek bizitza osoan Heriok berekin eraman zuen arte, oinazepean eduki baitzuen. Gauetan esnatu egiten zen ikaragarritzko garrasiak jaurtikitzen zituelarik. Hil ondorengo eternitatean ere, su berberak kiskali beza betiko De Lancreren bihotz krudela!

GARAI EZINA DA

1936ko urriaren azken egunak dira. Espainiako soldadu faxistak Gipuzkoako kostaldeko herriez jabetu berriak dira. Soldadu falangistak eta erreketek odolez eta alkoholez mozkorturik daude eta bertako biztanleekin era guztietako gehiegikeriak egiten dituzte: lapurretak, umilazioak, bortxaketak, torturak, fusilaketak... Kostaldeko gizon gehienak Eibarko frontean daude erresistentziari emanak, galdutako erretagoardian, berriz, emakumeak, haurrak eta zaharrak gelditu dira, irabazle bihozgabeen menpe. Irabazleek ardo zahagiak eta barririk bilatzen dituzte etengabeko mozkorraldian jarraitzeko, baina bertako biztanleek hori jakinda, ardoa pozoitzen dute soldadu faxisten artean heriotza ereinez. Hori dela eta, tropa-buruek debekatu egin diete euren soldaduei biztanleei lapurtutako zahagi eta barriketarik edatea. Rodrigalvarez kapitaina dugu buru horietako bat, baina bere gizonen sariren bat merezi dutelakoan, jadanik aukeratua du nora joan eta nondik edan.

- Mutilak! – bere gizonen begira – Gaur herri honetako sagardoa dastatuko duzue, nahi adina, gainera!
- Biba kapitaina!!! – soldaduek, batera.
- Eta non, kapitaina? – soldaduetako batek.
- Ikusten al duzue aurrean dugun mendixka hartan dagoen baserria? – aurrez aurre zeukaten muinoan, baso artean, ikusten zen baserri ederra eskuaz seinatuz.
- Baiiii, kapitaina!!! – soldaduek, kapitainaren proposamenak eroturik.
- Bertako tola-rean oso sagardo ona egiten omen dute. Bertako gizona gudaria zen eta, herrira sartzean, preso hartu eta fusilatu genuen. Orain bertan alarguntsa eta bi seme txiki bizi dira bakarrik. Atsegin handiz gonbidatuko gaituzte! Kar-kar-kar...!

Esan eta egin. Soldadu arrotzak, Rodrigalvarez kapitaina buru zutela, aipatutako baserrira bertaratu ziren eta, atea indar handiz bota ondoren, barrura sartu. Barruan alarguntsa eta sei eta lau urteko bi haurrak zeuden. Muttikoak amaren gonetan babesten ziren.

- Zer nahi duzue? – alarguntsak ahots urratuaz.
- Eraman gaitzazu upeletara, atso zikina. Gure mutilek zure sagardoa dastatzeko irrikatan daude-eta. – kapitainak, mespretxu handiz.

Emakumeak, txintik esan gabe, beheko solairu hezera gidatu zituen urde odolzale haiek.

- Hemen duzue gure sagardoa! – esan zien gero etxeko bi upelak erakutsiz.

Soldaduak, denbora galdu gabe, edalontziak hartu eta upel haiek hustera prestatu ziren. Haatik, kapitaina mesfidantzaz beterik zen.

- Geldi denak! – esan zien soldaduei oihu ozen batez– Eta sorgin honek sagardoa pozoitu badigu? – eta izkina batean isilik ziren ama-seei hurbilduz modu txarrean agindu zien– Dasta ezazue zuek lehendabizi!

Emakumeak, erantzun gabe, upeletako batera hurbildu zen, txotxa kendu, eta eskuan zeraman edalontzia sagardo apartsuaz bete zuen.

- Edan dezagun aitaren ohorez! – esan zien hurrei.

Gero, zurrutada luze batez baso erdia edan zuen, eta gelditzen zena bi muttikoei eskaini zien edan zezaten. Hori ikusita, Rodrigalvarez kapitainak bere gizona edateko baimena eman zien.

- Edan ezazue gogotik, upelak hustu arte! Biba Espainia! Biba gurutzada santua!

Eta bere gizonek edaten zuten bitartean, bera logela batera erretiratu zen atsedean hartzera. Hurrengo egunean, goiz-goizean, bildu beharra zeukan beste kapitainekin eta gainerako buru militarrekin Eibarreko frontearen aurkako erasoaldia prestatzeko. Horretarako burua garbi behar zuen, eta sagardoa dastatu gabe oheratu zen.

Hurrengo egunean, goiz-goizean, esnatu, jantzi eta gosaria eskatzera sukaldarantz abiatu zen. Etxe barruan ez zuen inor topatu. Harrituta, upel-ganberara jaitsi zen eta han ikusi zuenak odola hormatu zion. Bere soldadu guztiak han ziren, lurrean etzanda, hilik, ganbera handi haren bazter guztiak euren gorpuez betetzen. Izkina batean, kuzkurturik, eta besarkada batean estekaturik, baserriko hiru ama-seeak zeuden, hauek ere hilik. Kapitaina orroka hasi zen hasieran, negarrez gero, bere gizon guztiak pozoiturik ikustean. Ondoren, etxeko andreari begira, honela esan zuen:

- Gerra hau irabazten ari gara Hitlerren eta Mussoliniren laguntzaz. Zer gertatuko da biharko egunean, bi horiek ez daudenean? Herri hau garaiezina da!

KONTRABANDISTAREN ARRANGURA

XX. mendeko erdialdean, Amunarriz aita-semeak, Hondarribiko beste askoren antzera, kontrabandoan aritzen ziren. Bizimodua ez zen inorentzat erraza garai beltz haietan, eta bizi beharra zegoenez gero, jarduera arriskutsu horretan topatu zituzten familia aurrera ateratzeko horren beharrezkoak ziren sos urriak. Batzuetan, ilargirik gabeko gauetan, txalupaz ibiltzen ziren harat-honat era guztietako elikagaiak edota bestelako mozkinak ekarriz eta eramanez. Bestetan, Irungo edota Berako lurretan, Bidasoa ibaia zeharkatuz ibiltzen ziren. Eltzetxoak edo mendizorriak ere han ibiltzen ziren, alde batetik bestera, kontrabandistak harrapatu nahian, eta aunitzetan haien puskek beraien poltsikorako eskuratu guran. Halakoetan, kontrabandistek aztarna faltzuen zituzten agerian, guardia zibilak beraiek pasatu behar zuten tokietan egon ez zitezten. Batzuetan engainatzen zituzten, bestetan ez. Eta tarteka, eltzetxoak erosten zituzten pasatu beharreko tokietan, halako tenore zehatzetan, ibil ez zitezten. Ikusten duzuen bezala, kontrabandoa ez zen beti lan erraza izaten, eltzetxoak usainean ibiltzen baitziren.

Halako gau batean, Fermin eta Lontxo – horrela baitzuten izena Amunarriz aita-semeek– Lastaola aldean zebiltzan. Lapurditik puska handiak zekartzaten, eta ohiturari jarraiki, hasieran bat zetorren Irungo aldera, eta handik ordu laurdenera edo, bestea. Horrela harrapatzekotan, karga guztia galduko ez zutelakoan. Teknika zaharra zen eskualdeko kontrabandisten artean, maiz zerabiltena, baina tamalez, mendizorriek ere teknika hura zezaguten, eta bat harrapatzen zutenean, zelatan egoten ziren gero, bigarrena noiz etorriko zain. Hala eta guztiz ere, teknika hoberik ez zeukatenez gero, kontrabandistek horrela ibiltzeari eusten zioten.

Gau hura ilun samarra zen, ilargirik eta izarrik gabea, eta ilunpe handi hartaz baliaturik, amunarriztarrek, bizkar gainean, puska handiak zekartzaten Gipuzkoa aldera. Poliki eta tentuz zebiltzan buruz zezaguzkiten bide-txigorretatik barrena. Itsasbehera zen eta Bidasoa ibaiak ez zuen ur emari handirik, gainera Lastaola pareko ibia igaro-erraza denez, gau hartan egin beharrekoak afera erraza zirudien.

Lontxo semea zihoan aurretik, eta bizkarrean ongi estekaturik, puska handia zeraman. Bidasoa ibaiaren ertzera iristean, espartinak kendu, esku batez atxiki, eta oinutsik ibaia zeharkatzeari ekin zion. Berehalaxe, Gipuzkoako aldean zegoen. Puska lurrean pausatu eta espartinak berriro janzten hasi zen. Horretan ari zela, linterna baten argiak bete-bete harrapatu zuen.

- ¡Alto a la Guardia civil! (Geldi! Guardia zibila!) – entzun zuen aurrean zuen hariztiren gibeletik zetorren ahots zakar batez.

Lontxok ez zuen alde egiteko astirik izan. Bere buruak ere ez zuen denborarik izan balizko ihesaz pentsatzeko. Konturatu zenerako guardia zibilak gainean zituen eta haien fusilez mehatxatzen zuten.

- ¿Que trae en eze fardo? (Zer dakarzu puska horretan?) – galde egin zion sarjentua zirudienak.

- Etxerako elikagaiak! – erantzun zion Lontxok, gogoaren kontra.

- ¿Y que clase de alimentos? (eta zein elikagai mota?) – sarjentuak.
- Ezpeletako piperrak, alkatxofak, zainzuriak, txokolatea, olibak...
 - Lontxok, amorraturik eta gogo txarrez.
- ¿Aceitunas, e? Pero que ze cree uzte, que en España no tenemos aceitunas, o qué? ¡Y bien buenas además!. (Baina zer uste duzu, Espainian ez dugula olibarik, ala? Eta aski onak, gainera!)
 - sarjentuak, arrunt piperturik.

Lontxo isilik zegoen, atzetik zetorren aitaz kezkatuturik.

- Y el que viene por atrás ¿que trae? (Eta atzetik datorrenak zer dakar?) – galdetu zion guardia zibil buruak.

Lontxok ez zuen ahoa zabaldu.

- ¿No contestas, e? No importa, aquí le esperaremos y pronto sabremos que es lo que trae, ¿aceitunas o relojes? (Ez al duzu erantzun behar? Bost axola, laster harrapatuko dugu eta horrela jakinen dugu zer den dakarrena, olibak ala ordulariak?)

Lontxok deus erantzun gabe zerraien, eta honen isiltasunak guardia zibilaren haserrealdia areagotzen zuen. Halako batean...

- ¡Jaitsi iezaiozue galtza alu honi eta etzan ezazue ahozpeka harri handi horren gainean! – agindu zien haren menpekoei– Nik erakutsiko diot zein den kontrabandoak merezi duen zigorra.

Guardia zibilek haien buruaren agindua txistatu gabe bete zuten, eta Lontxo gerritik behera biluzik, harriaren gainean etzanik eta uzkia airean zuela utzi zuten. Sarjentuak oliba bat hartu eta ipurtzulotik sartu zion, bertan ziren guardia zibil guztien irribarrea sortaraziz. Gero gauza bera egin zuen bigarren oliba batekin, eta hirugarren batekin, eta baita laugarren batekin ere. Bitartean, Lontxok deus esan gabe jarraitzen zuen. Hamaikagarrena sartu zionean, hasperen luze batez Ai nire aita! bota zuen, eta handik aurrera gauza bera egin zuen sarjentuak ipurtzulotik oliba bat sartzen zion aldiro. Azkenean, sarjentuak, Lontxoren hitzen zergatia ezin ulertuz, galde egin zion:

- Zergatik gogoratzen zara zure aitaz ipurtzulotik oliba bat sartzen dizudan bakoitzean?

Eta Lontxok erantzun:

- Atzetik datorren nire aitak meloiak dakartzalako.

KUBAKO EUSKALDUNAK

Kuba, bai polita Kuba
eta kubatarrak politagoak.
Ama, joan nahi dut
Kuba aldera kantatzera.
Ama, joan nahi dut
Kuba aldera dantzatzera.

Hegazkinak lur hartu zuen Habanako aireportuan. Panpik beso-zangoak luzatu eta bidaiarien ilaran jarrita, hegazkinetik ateratzeko prestatu zen. Berekin batera bortz neska-mutil gehiago eta irakasle bat, Mixel Indaburu, zihoazen, denak Donibane Lohizune eta inguruko herrietako ikasleak ziren. Panpi Ziburukoa zen. Lizeoan ikasitako espainiera praktikatzera zihoazen. Beraien eskolak elkar-trukatze bat sinatua zuen Habanako eskola batekin eta urtero bortz edo sei ikasle inguru trukutzen zituzten hilabetez. Lehen hilean euskaldun gazteak Kubara joaten ziren eta bigarrenean hango neska-mutilak Lapurdira etortzen ziren euren frantsesa zorroztera. Jarduera ongi burutzeko asmoz, irakasle bana eramaten zuten zaintze lanak egiteko. Hilabete osoan zehar Habanako eskolara joan beharra klaseak ematera eta lo hango ikasleen familietan banaturik.

Arratsaldeko zazpiak ziren eta eguzkiak goiza balitz bezala berotzen zuen. Aireportuko kanpo aldean mikrobuz zaharkitu bat zeukaten zain. Bertan, gidariarekin batera, Habanako eskolako irakasle bat zen. Gizonezkoa zen, buru zuria, eta berrogeita bortz urte ingurukoa. On Mixel Indaburu agurtu zuen espainiera kantari batez, eta gure puskak mikrobuseko maleta-ontzira sartu ondoren, gora igotzeko gonbita egin zigun.

- Mañanita a las ocho teneis que estar en la escuela.(Bihar, goizeko zortzietan eskolan egon beharra daukazue) – erran zigun neska-mutil taldekooi– Ahorita os iremos dejando uno a uno en las casas en las que vais a convivir durante este mês. (Oraintxe utziko zaituztegu hilabeta igaro behar duzuen etxeetan) Espero que lo paseis bien y os arregleis con los chiquitos de esas casas. Ahorita os diré con quien teneis que convivir. (Uste dut ongi pasatuko duzuela eta ongi konponduko zaretela etxe hauetako gaztetxoekin. Oraintxe erranen dizuet dagokizuen lagunaren izena)

Eta besterik erran gabe, zerrenda pasatzen hasi zitzairen.

- Joseph Elizalde en la casa de Alejandro Martinez. (Joseph Elizalde Alejandro Martinezen etxean. Mikel Etxeberri en la casa de José Bruno Gonzalez.(Mikel Etxeberri José Bruno Gonzalezen etxean), Xan Mendiburu en la casa de Dieguito Garrindo.(Xan Mendiburu Dieguito Garrindoren etxean), Maia Haramendi en la casa de Gabriela Saez (Maia Haramendi Gabriela Saezen etxean), Elorri Etxebarne en la casa de Marita Lopez (Elorri Etxebarne Marita Lopezen etxean) y Panpi Goñi en la de Juan Echeto. (Eta Panpi Goñi Juan Etxetorenean).

Berehalaxe hasi ziren ikasleak etxeetan uzten.

- Esta es la casa de Dieguito Garrindo. Que el alumno correspondiente saque su petate del maletero y adentro. (Hauxe da Dieguito Garrindoren etxean. Hemen bizi behar duen ikasleak bere puska har dezala eta barrura)

- Ahorita estamos en la casa de José Bruno Gonzalez .(Oraintxe gaude José Brunoren etxean)

Eta berehala iritsi zen Panpiren txanda.

- Estamos en la casa de Juan Echeto.(Juan Echetoren etxean gaude)

Panpik mikrobusean oraindik gelditzen zirenez bihar arte! batez agurtu zen eta ondoren, bere poltsa harturik, agindutako etxera abiatu zen. Atean zeuden bere zain berrogeita bortz urte inguruko senar-emazteak eta bortz seme-alabak. Lau mutiko eta neska bakarra. Zaharrena alaba zen, Yolanda, hogeitaz urtekoa, eta gero hiru mutilak. Juanek hemezortzi urte zituen, Pedro Pablok hamasei eta Carlos tipiak hamahiru. Panpiri biziki gisakoak iruditu zitzaizkion. Besarkada handiez agurtu zuten denek. Panpik, bere gaztelania akademikoaz, nekez ulertzen zien.

Barrura sartu zuten. Etxea estai bakarrekoa zen, umila baina arras polita. Barruko altzariak eskasak eta zaharkituak. Sukaldera eraman zuten. Mahaia afaltzeko prest zeukaten. Denak eseri ziren.

- Deja el petate ahí. Luego los chiquitos te llevarán a la habitación que compartirás con ellos. Ahorita vamos a cenar. Seguro que el viaje ha sido largo y estarán con hambre. (Utzi puska hor. Gero mutilek beraiekin konpartituko duzun lo-ganberara eramanen zaituzte. Orain afaldu eginen dugu. Egin duzun bidaia luze samarra da eta jadanik gosean egonen zara)

Mahaiburu aita, eskuinean ama, ezkerrean, gonbidatuen lekuan, Panpi eta gainerakoak aldameneko tokietan. Amal eltze handi bat ipini zuen mahaia erdian eta burruntzali zahar batez banan-banan denak zerbitzatu zituen. Afari osoan zehar hitz eta pizza aritu ziren denak. Alaiak eta jatorrak ziren.

Sukaldea pobre baina abegikorra iruditu zitzaion Panpiri. Sua garai bateko ekonomikoa edo txapa zuten. Aspaldian horrelakorik ikusi gabe zegoen Panpi. Armairuak zurezkoak, kolorea erdi joana zeukatenak. Armairu zahar horietako batean bazen zizelaturiko irudi bat Panpiren arreta bereganatu zuena. Euskal Herriaren Zazpiak bat izeneko armarrria zen.

- Nork egin zuen hori? – galde egin zien Panpik familiakoei eskuaz armarrria seinalatzen ziela.

- Gure aitatzik – aitak erantzun– Europatik etorria zen eta hango konturen bat da.

- Europatik erraten duzu, baina nondik? Armarrri hau euskaldunon armarrria da, gure armarrria. Eta horrek erran nahi du, ziur aski zuen aitona euskalduna zela.

- Hara! Ba egia erran behar badizut, ez dakit. Inoiz ez dugu gauza horietaz hitz egin. – aitak, harrituta.

- Eta gainera – Pnapik, mikrobuseko irakasleari entzundako deitura gogoan zuela– ez al zarete Etxeto abizenez?
- Bai! – berretsi zuten denek.
- Ba, deitura hori euskalduna da.
- Ene! Eta guk jakin ez! – aitak, irribarre bat loratzen ari zitzaiola.

Hilabetea berehala pasatu zitzaion Panpiri. Bere gaztelania izugarri zorroztu zuen eta jadanik ongitxo hitz egiten zuen. Etxetotarrak umilak bezain gisakoak ziren. Ordurako semetzat hartua zeukaten. Eta Panpiri Euskal Herrira itzultzeko tenorea iritsi zitzaionean, negar malkotan agurtu zuten. Baina Panpi eta gainerako lagunak ez ziren bakarrik itzuli, beraiekin batera hango neska-mutilak baitzekartzaten frantsesa hobetu zezaten. Hilabete pasatu beharra zeukaten Lapurdiko beraien etxeetan. Panpirekin Juan Echetok zetorren.

Juan bere arbasoen lurra ezagutzeari txundituta gelditu zen. Ama-lurraren deia barne-barnean sentitu zuen. Panpiren etxean euskaraz egiten zuten arren, Juan aurrean zegoelarik frantsesez egiten ahalegindu ziren. Juan berehala konturatu zen eta...

- Mesedez, eskaera bat egin nahi dizuet. Panpiri esker euskal odolekoa naizela jakin dut eta euskara ikasteko asmotan nabil. Zuek, zuen artean eta baita nirekin ere, beti euskaraz egin. Lizeoan frantsesez ikasiko dut, baina zuekin euskaraz nahi dut ikasi. – erran zien.

Eta horrela igaro zen hilabetea. Ordura arte Juan izan zena Xan bihurtu zen, Lapurdiko usadioari jarraiki, eta Kubara itzuli zenerako frantsesez trebatua eta euskaraz bere lehen pausoak emanda zegoen. Maletan goñitarrek oparitutako euskal gramatika eta hiztegiak zeramatzan.

Gaur, bortz urte beranduago, Xan Etxetok euskara irakasten du Habanako Euskal Etxean, eta Panpiri idatzitako azken gutunean ziotsuenez, baimen berezia eskatu berria zion Kubako Gobernuari Euskal Herrira, euskal filologia egitera, etorri ahal izateko.

AITATXIREN ZERRIAK

Kottetto Ezkurra Elizondon bizi zen arren, haren gurasoa keta aurreko guztiak arizkundarrak ziren. Elizondoko etxean aita-ama zaharrekin bizi zen eta berea zuen burdindegi batean egiten zuen lan. Gurasoek zabaldu zuten ArizkUNETIK Elizondora bizitzera aldatu zirenean, eta duela bospasei urte arte beraiek gobernatu zuten. Orain jubilatuak zeuden eta familiaren negozioa Kottetto semeak zuzentzen zuen, gainerako seme-alabak ezkondu eta bestelako lanetan aritzen baitziren.

Gau hartan, Kottetto etxera erretiratu zenean, amak, egunero bezala, afari goxoa paratua zuen hirurentzat.

- Zer moduz burdindegian? – amak, afaria zerbitzatzen ari zela.
- Ez doa gaizki. – Kottettok– Gaurkoak ez dira zuenak bezain garai oparoak, baina tira, ez naiz kexatzen.
- Kottetto! – aitak, gaia zeharo aldatuz– Gaur, herriko azienda ferian nabilela, Pruden lehengusuarekin topatu nauk eta aitaxi Xatur, hau duk, nire aita, biziki eri dela erran zidak. Burua arras galdua omen dik, eta ez duk ongi moldatzen baserriko azienda gobernatzeko.
- Hara, aitaxi gaixoa! – Kottettok, hagitz penaturik– Burua nahasi al zaio?
- Bai, horrela zirudik. Kottetto, bihar igandea izanen dela probestuz, Arizkunera joanen al hintzateke, aitaxi nola den ikusterat?
- Bai aita, nola ez. Bihar, goiz-goizean, gure auto zaharra hartu eta aitaxiren baserrira joanen naiz nola den ikusterat.

Hurrengo goiza argitzean, bezperan erran bezala egin zuen. Garajea, aspaldian mugitu gabe zeukan auto zaharra piztu eta Arizkun alderako bideari lotu zitzaion. Handik hiru ordu laurdenetara aitaxiren baserrira iritsi zen. Han ez zen inor ikusten, azienda izan ezik. Behiak larrean ziren eta zerriak han-hemenka, libre zebiltzan. Autoa aitzineko zabaldean aparkatu eta zabalik zen atetik barrura sartu zen. Zuzen-zuzenean aitaxiren gelara abiatu zen. Etxeko bazter guztietan zerrien gorotzak ikus eta entzun zitezkeen. Gelako atean zerrama pottolo batek sartzea eragozten zion. Gelara sartu ahal izateko zerrama pottolo hura bultzatu behar izan zuen. Gela barruan, kirats ustela zen nagusi, eta ohatzean etzanda aitaxi zegoen, indarge, pattal, zurbil-zurbila. Kottetto, harengana hurbildu eta...

- Egun on aitaxi! Zer moduz?

- Ongi, ongi, eta hi? – biloba ezaguturik.

- Eri zaude aitatxi. Zer gertatu zaizu?

- Ez zekiat mutil, azken bolara honetan pattal samar nabilek, ohatzetik jaikitzeke aski lan.

- Eta zerriak? Zer dabilta hemen, etxe barruan?

- Zerriak ere Jainkoaren umeak dituk, eta kortara eramateko gauza ez naizenez gero, atea zabalik uzten zieat, gauean edo, hemen aterpe daitezzen. Beraiek horrela pozik dituk, baita ni ere haiek ongi ikusita. Pentsa ezak, gauean, ohatze azpian sartu eta bertan egiten ditek lo.

- Baina aitatxi, – bilobak, asaldaturik– zer erraten duzu? Zure ohatze azpian egiten dutela lo? Baina.... eta kiratsa?

- Kiratsa! Nire puzkarrengatik erraten al duk? Bada, izorra daitezela! Ez zeudek hotel batean!

GOSEA MARGOGAI

Gipuzkoako kostaldeko herri hartan, urtero margo lehiaketa entzutetsua antolatzen zuten, eta zazpi Euskal Herrietako margolaririk famatuenek euren koadroak aurkezten zituzten bertan. Lehiaketa biziberritzeko urtero gai berezi bat jartzen zuten margogai: egia, justizia, elkartasuna, bakea, irudimena, barkazioa,... Urte hartako gaia gosea zen.

Urte orotan bezala, Euskal Herriko margolari onenen euren koadroak aurkeztu zituzten. Hirugarren Munduko irudi lazgarriak ziren aurkeztutako koadro haietan nagusi: gorputz mehar-meharrak, hezur eta azal, besterik ez ziren lagunak, goseak zigortutako aurpegi tristeak,... Bazen bat biziki ederra eta adierazgarria, Afrikako eskualde hits bateko ume goseti gaixoak, euren sufrimendu osoan, islatzen zituena. Arte-kritikarien ustetan, huraxe zen lehiaketa hura irabazteko aukerarik handiena zuena.

Koadroak aurkezteko epea ekainaren 15ean bukatzen zen eta San Joanetan, hau da, herriko festetan, alkateak propio egindako ekitaldi ofizial batean irabazleak nor ziren argitu beharra zeukan, baita diru-sariak banatu ere. Dena den, urte hartan bazirudien aski garbi zegoela nor izango zen irabaztun, lehen aipaturiko Afrikako haur gosetiak krudeltasun osoz islatzen zituen koadroaren egilea, alegia.

Eta iritsi zen eguna. Udaletxeko atezaina atea ixteko ahaleginetan ari zen. Halako batean, auto zatar bat herriko plazara sartu zen eta udaletxe aurrean gelditu. Bere barnetik gizon bibotedun bat atera zen. Beso azpian egunkari-paperez babesturiko koadroa zeraman. Udaletxeko atea giltzatzan ari zen atezainarengana hurbildu eta...

- Arratsalde on! Baztanetik nator eta lehiaketa hau irabazi behar duen koadroa dakart. – bibotea atzamarrez ongi jarritz.

- Berandu xamar! Jadanik, aurkezteko epea amaitu da! – atezainak, giltza sarrailan sarturik zuela.

- Ez jauna, minutu bat falta da! – esan zion margolari baztandarrak udaletxeko goialdean kokaturik zegoen erloju handia eskuaz seinalatuz.

Atezainak aipaturiko erlojura begiratu eta pintore hark arrazoa zuela ikustean, marmarrez eta gogoaren kontra, udaletxeko atea zabaldu zuen berriro.

- Ondo da, ondo da! Sartu! – esan zion umore txarrez.

Biak barrura sartu ziren, eta atezainak koadroak biltzen ari ziren aretoraino eraman zuen margolari mustatxaduna.

- Uztazu hor, beste koadro horien ondoan! – esan zion– Agindutako datuak ekarri al dituzu? – jarraitu zuen.

- Bai, dena koadroarekin batera doan gutun-azalaren barruan dago. – margolariak, pozaren pozez.

- Ondo da, ondo da! – atezainak, bere lana bukatu nahian.

Margolariak koadroa agindutako tokian laga eta plazara ateraz, atezaina agurtu zuen.

- Mila esker aunitz! Jakin ezazu koadro hau izanen dela lehiaketako irabazlea. Agur!

- Agur bai, agur! – atezainak.

Margolaria autora sartu, motorra piztu eta plazatik desagertu zenean probestu zuen atezainak koadro hura begiztatzeko. Papera kendu eta, ikusi zuenak barre ozen zoroa eragin zion. Kar, kar, kar! Kar, kar, kar!

Ero guztiak ez daude Santa Agedan! – pentsatu zuen bere baitarako.

Ekainaren 24an, hau da, San Joan egunean, udaletxeko areto nagusia jendez mukuruz zen. Bertan ziren alkatea eta gainerako zinegotziak, koadroa aurkeztua zuten pintoreak eta herritar franko. Zurrumbilo hartan, aurrez aurre topo egin zuten margolari baztandarrak eta atezainak. Pintoreak begi keinu batez agurtu zuen eta atezainak burua goitik behera mugituz erantzun.

Alkatea, kultura zinegotzia eta lehiaketako epaileak udal-batzari dagozkion besaulki dotoreetan eseri ziren, gainerako guztiak, berriz, zurezko jarleku luzeetan. Berehalaxe alkateak hartu zuen hitza.

- Herritarrok, lehiaketara zuen koadroak aurkeztu dituzuen margolari estimatuok, arratsalde on! Aurtengoa da herri honetan burutzen dugun XVI. margo lehiaketa eta esan beharra daukat urtetik urtera aurkezten diren margolanen maila gero eta handiagoa dela. Jadanik, lehiaketa honek badu ongi merezitako sona. Eta nire hitz hauei nolabaiteko indarra emateko, hemen ditugu, udal areto honetako paretetan zintzilik, aurten aurkeztu dituzten hirurogeita hamabost koadro paregabeak. Epaileek esan didatenez, beraien artean badira oso margolan onak direnak, baina hala eta guztiz ere, badago bat punta-puntakoa dena,, aurtengo gaia, hau da, gosea ezin hobeto islatzen duena. Horra hor, paretaren erdi-erdian, hirurogeita hamabost zenbakiarekin eskegitako koadroa baita.

Udal areto hura betetzen zuten lagun guztien buruek alkateak aipatutako koadro aldera begiratu zuten. Mihise osoa hartzen zuen giza ipurdi handi bat ikus zitekeen, amaraunez jositako ipurdi zuri leun bat. Huraxe zen irabazlea. Alkatea oraindino margolari txapeldunaren izen-deiturak esan gabe bazegoen ere, publikoaren artean eserita zegoen atezainak garbi zeukan norena zen mihise xeibre hura, ekainaren 15ean, hau da, koadroak hartzeko azken egun hartan, barre ozen zoroa eragin zion berbera.

AMA-ALABAK MEDIKUENEAN

Hardoki ama-alabak ez daude bat ere ongi. Eztulka ari dira maiz, mukiak noiznahi, eta burko min galantarekin dabilta azken bolada honetan. Gripeak harrapatu ditu bete-betean, baina a zer nolako gripea!

Ama etxeak garbitzen aritzen da eta alaba andereño da Baionako ikastolan. Biak eri dira Senpereko euren etxean, kalera ezin ateraz. Astebete daramate horrela, eta jadanik aspertzen hasita daude. Telebista aitzinean oren aspertuak ematen dituzte.

- Ama, entzun duzia gripe horrena?
- Bai Maitena, ikaragarria dun, Mexikon hasi eta dagoeneko Txinaraino iritsita zagon.
- Txinaraino? Baita Euskal herriraino ere!
- Euskal Herrira jina dun?
- Bai ama, Bizkaian kasu zenbait harrapatu dute Iruñean bat edo bertze, eta Hendaian familia oso bat egon duzu eri, etxean hertsirik, kalera ezin ateraz, gure modura.
- Hendaian erran al dun? Baina hori Senperetik biziki gertu dun!
- Bai, hementxe bertan ama.
- Eneee! Eta gu hemen kontu hori dena jakin gabe. Hau beldurra!
- Zuk ez zenuen jakinen. Baionan eta baita senperen ere, jendea horretaz mintzatzen da maiz. A gripea deitzen diote.
- Ez dun harritzekoa nik horretaz deus entzun ez izana, azken astea lau horma zahar hauen artean eman baitinat. – sakelatik zapi zuri zimurtua atera eta sudur zuloetara hurbilduz zintz luzea egiten du– Hau gripea harrapatu duguna!
- Harrapatu duguna edo harrapatu gaituena! – alabak.
- Ez zakinat neska, ni horrelako aferetan ez naun sartzen. Gauza dun izugarri eri garela. – amak, nahigabeturik.

Bat-batean...

- Ene, Sokorriko Ama Birjina! – amak, garrasika– Maitena, gure gripea ez dun hik aipatu dunan gripe gaizto famatu hori izanen, ezta?
- Ainitzetan pentsatu dut horretaz amaz. Ez dakit zer erran. Burutazio txarra burutik aldentzen ahalegindu naiz maiz, baina zalantza hortxe daukat.
- Eneee! Jesukristo saildua! Hiltzen ari gaitun bat ere konturatu gabe. – amak, biziki ikaraturik.
- Baina, zer erraiten duzu ama? Hiltzen egonen bagina ez ginateke hemen, egongelan eserita, kafea hartzen eta telebistari begira egonen. – alabak, haserre antzera.
- Duela bi aste Donibane Lohizuneko kafetegi batean izan nintzen nire lagunekin eta han zen Margaitta Etxeberri, aspaldiko laguna.
- Bai, eta zer?
- Hendaiara ezkondu zunan aspaldian, eta han bizi dun bere familiarekin. Eta okerrena, erdi eri zunan, eztulka eta mukiekin goitti eta beheitti. Handik hiru egunetara hasi nindunan ni ere eztulka, eta hi egun zenbait berantago. Hau dun hau! Maitena, gripe gaizto horrek harrapatu gaitin. Argi zagon!
- Ama, ez larritu! Eri gara, gripeak jota, pattal xamar, baina horrek ez du erran nahi gripe hori dugunik. – alabak, ama sosegatu nahian.
- Ai ama, ai ama! Hiltzen ari gaitun! – amak, burua arras galduta.
- Ama, otoi! Ez ezazu pitokeriarik erran. Barregura eta guzti emaiten didazu.
- Ba, barre guttiago eta kontu gehiago! On Iridoi medikuari deitu beharko zionagu, gripe hau ez dinagu aspirinekin eta kafesneekin sendatuko.
- Ontsa da ama, ontsa da! On Iridoiri deituko diot eta hitzordua galdatuko.
- Lehenbailehen neska! Mugi hadi eta dei egin iezaion berant baino lehen.
- Ontsa da ama, ontsa da. Oraintxe deituko diot. – telefonoa hartuz.
- Erraion gripe hori harrapatu dugula, urgentzietara anbulantziaz eraman gaitzaten. – amak, bere baitatik aterea.

- Ixo ama, ixo! Aski duzu pitokeria horiekin! – alabak, erabat haserre.

Maitenak On Iridoi medikuaren kontsultara deitu du eta telefonoa hartu duen erizainarekin hitz egin. Telefonoa uztean, amak, desesperaturik, galdetu dio:

- Bon, zer erran din medikuak? Anbulantzia bidaliko al dute gure xerka?
- Ama, lasaitu zaitetz. Ez dut sendagilearekin hitz egin, harreran aritzen den erizainarekin baizik. Arratsalderako eman dit hitzordua.
- Arratsaldean erran duzu? Baina ordurako hilik izanen gaitun, neska.
- Ama, isilik egon zaitetz! Ez gara hilen, oraingoan bederen. Bazkal dezagun fite eta presta gaitezen medikuenera joateko, hiruretarako eman baitigu hitzordua.
- Medikuenara joan? Baina ez al gaituzte anbulantzian eramanen?
- Ama, gripe batengatik ez gaituzte anbulantzian eramanen. Lasaitu zaitetz! Egon pixka batean telebista aitzinean bazkaria prestatzen dudun bitartean.

Bazkaldu ondoren, ama-alabak medikuenera joan dira. Hiruretako haren kontsultan dira. Medikuek puntu-puntu hartu ditu.

- Arratsalde on Iridoi jauna! – ama-alabek.
- Gauza bera! – -erantzun die medikuak eserita dagoen bulegoko mahaitik
- Zer duzue hona etortzeko? Erran. Entzuten dizuet.
- Ai On Iridoi – amak– Uste dut gripe gaizto horrek bete-bete harrapatu gaituela. Astebete daramagu lanera ezin joanez eta ez dugu hobekuntzarik sumatzen. Sendatzeko modurik ikusten al duzu?
- Hardoi anderea, zaude lasai! Orain begiratuko zaitut. – medikuak andrea sosegatu nahian– Ea, ireki ezazu ahoa eta atera mihia.

Sendagileak esku batez eta linternetxo baten laguntzaz eztarri bidea argitu dio eta beste eskuaz plastikozko barratxo moduko bat sartu dio eztarritik. Bizpahiru minutuz aztertu ondoren honela erran dio emakume izutuari:

- Lasai Hardoi anderea, honetatik ez zara hilen. Gripe handia duzu, bai, baina gripe arrunta. Nik emanen dizkizudan pilula hauekin pasatuko zaizu.

Eta gero, Maitenaren edertasunari erreparatuta, andre gazteari galdetzen dio:

- Eta zuk, zer daukazu?

- Deus ere ez, sendagile jauna, amaren kontu berberak. – alabak.

- Ez pentsa Maitena, gripe guztiak ezberdinak dira. Ongi begiratu beharko zaitut A gripea ez daukazula ziurtatzeko. Ala, biluztu zaituz osoki eta etzan zaituz gora begira ohe horretan, berehalaxe artatutko zaituz eta.

PAPAGAI BERRITSUA

Bizkaiko ezkeraldeko herri batean kokatzen dugu oraingo istorio hau. XX. mendearen hasieran, aipaturiko herri horretan bazen putetxe handi bat, zenbait hamarkadetan zabalik egon zena. Baina gobernuak ateratako lege berriak putetxea ixtera eraman zuten. Eta horrela, egun batetik bestera, horren ongi zebilen negozioa bertan behera laga behar izan zuten. Bertan aritzen ziren emakumeek lur emankorragotara jo zuten eta eraikina, herrian ederrenetakoa zen eraikina, salgai jarri zuten.

Herrian bazen ospe handiko medikua, Benantzio Larrañaga izena zuena, eta garai hartan sos asko poltsikoratzen ari zena. Haren emazteak beraien maila sozialarekin bat zetorren habia berrian nahi zuenez gero, eraikin hura eros zezan bultzatu zuen senarra. Eta hori dela eta, egun gutxiren bueltan, eraikin hura erosi eta bertara bizitzera joan ziren.

-emazteak eta hiru alaba gazteak etxe berrira lehen aldiz sartu ziren egunean ustekabe galanta hartu zuten. Sarrera ondoko gela zabal batean, eta dirudenez han ahaztuta, kaiola handi bat topatu zuten eta barruan bazen kolore ugari eta ederretako loro edo papagai handi bat. Lasai ederrean ari zen, gelditzen zitzaizkion azken haziak abilezia handiz jaten. Emaztea, harriturik, papagaiari hurbildu zitzaion eta momentu horretan hegaztia mugitzen eta soinuak egiten hasi zen:

- Tturru, tturru, tturru! – emazte harrituari begira– Tturru, tturru, tturru! Hau berria da! Madame berria! Kaixo madame berri hori!

- Kar, kar, kar! Kar, kar, kar!!! – hiru alabak batera, barrea ezin kontuz.

Pixkanaka-pixkanaka hiru neska gazteak beraien barre zoroak sortarazi zituen papagai koloreanizdunarengana hurbildu ziren, eta orduan hegaztia haiei kalakan hasi zitzaion:

- Tturru, tturru, tturru! Hauek berriak dira! Urdanga berriak! Kaixo urdanga berri horiek!

Loro lotsagabearen hitzak entzutean, hiru neskek barre egiteari utzi zioten.

- Loro zikina! – emazteak, sutan– Ni madame eta nire alabak urdangak! Baina zer uste duk hik! Lumatuko haut, loro zikina!

Momentu horretan senarra sartu zen, eta emakumearen oihuek asaldaturik, emaztea eta alabak zeuden tokirantz hurbildu zen. Papagaiak etorri berria ikustean, berri ere, betiko kalaka xelebrenari ekin zion:

- Tturru, tturru, tturru! Ha ez da berria! Hau ez da berria! Kaixo Benantzio!

PATZIKUREN TAKETA

Patziku hendaiarra mutil ederra zen. hamazazpi urte bete berriak zituen eta lizeoan ikasten zebilen. Kirolak izugarri maite zituen. Hori dela eta, pilotan eta errugbian zebilen. Aurpegiz ederra, gorputzez ongi egina eta izatez alegera eta gisakoa. Zer gehiago eska ziezaiokeen. Hori dela eta, Hendaiako eta inguruko herrietako neska ainitz gibeletik zebilzkion.

Dena ongi orekatua eta proportzionatua bazuen ere, bazuen gorputz atal bat ikaragarri handia zuena, bere zakila. Hondartzara joaten zenean, hor ibiltzen zen taketa bainu-jantzian disimulatu nahian, baina ezinezkoa zitzaion eta aski lan ukaiten zuen askotan galtzontziloaren edota bainu-jantziaren barruan osorik sartzeko.

Taketaren neurri ikaragarri handia zela eta, denek Patziku Taketa deitzen zioten, baina Patzikuri bost axola. Ez zuen inolako konplexurik eta lasai ederrean ibiltzen zen hanka tartean zeraman fardeltxoari jaramon handirik egin gabe. Hori bai, aunitzetan, nesken eskuak toki horretatik aldentzen ibili beharra zeukan, deigarria baitzen oso.

Behin Ondarraitz hondartzan zebilela neska-mutil lagunekin, olatu handi horietako batek bainu-jantzia kendu zion. Patziku, konturatu ez, eta lasaitasun osoz atera zen uretatik. Berehala konturatu zen hondartzan zeuden guztien begiak bere hanka-tartekora begira zeudela. Horrelakoa ohikoa zuen arren, hura gehiegizkoa zela iruditu zitzaion. Jendea, inolako lotsarik gabe, inguruan pilatzen zitzaion bere instrumentua, behin eta berriro, seinalatuz.

Orduan jakin zuen arrazoia. Bainu-jantzirik gabe zegoen. Ezin zuen pauso bakar bat ere eman, zaharrak, gazteak eta umeak inguruan begira baitzituen. Umeetako batek ozenki erran zuen:

- Hori pastenarre puska!

Egoera gero eta zailagoa zen, gero eta kalapitatsuagoa, eta lagunak eta xukadera zeuden tokia oraindik urrun samar. Zerbait egin beharra zeukan.

Azkenean, gelditu zen eta begiak zabal-zabalik bere taketari begira ari zirenei horrela erran zien:

- Baina zendako begiratzen didazue horrela? Zuei, uretan sartzen zaretenean, ez al zaizue ttipitzen?

HIRU KASKAGORRIENA

Praxkuk hiru seme-alaba zituen, bi mutiko eta neskatila bakarra. Hiruak kaskagorriak ziren. Praxku oso gizon elizkoia zen, elizkoia eta santujalea, egunero mezetara joaten zen horietakoa. Dena zen bekatu berarentzat, batez ere, sexuarekin loturiko guztia. Gizon estua zen. Mingain gaiztoek kontatzen dutenez ezkondu zen ezkontza eliza katolikoaren barruan sakramentutzat jotzen dutelako. Anjelita emaztea ere kristau sutsua zen eta egunero, bazkalostean, senarrarekin eta seme-alabekin batera arrosario santua erreztatzen zuen. Seme-alabak ekartzeko orduan ez zuten inoiz inolako oztoporik jarri. Jaungoikoak ekartzen dizkigunak – zioten biek.

Hala eta guztiz ere, Praxkuk bazuen kezka bat barruraino sartuta, hiru seme-alabak kaskagorriak ziren. Hori ez zen inolako kezka-biderik izan behar, baina ez bere familian eta ez Anjelitarenean horrelakorik ez zegoenez gero, Praxkuren kezka ulergarria egin dakiguke. Inoiz ez zuten horretaz hitz egiten, Praxkuk ez baitzuen Anjelita sumindu nahi, baina kezkak hor segitzen zuen, eta askotan, horren inguruko gogoeta burura etortzen zitzaionean, kosk egiten zion bihotzaren barrunbetan.

Egun horietako batean, Praxkuk eta Anjelitak horretaz hitz egin zuten eta biei bitxia egiten zitzaenez gero, ginekologo batengana joatea erabaki zuten. ADN-ren proba bat eskatu zioten. Ginekologoaren kontsultara joateko eguna iritsi eta bertara hurbildu ziren senar-emazteak.

- Arratsalde on! Sartu mesedez, sartu...! – ginekologoak kanpo aldean eserita itxaroten ari ziren senar-emazteei.
- Baita zuri ere, jauna! – Praxkuk eta Anjelitak kontsulta-gelara sartuz.
- Eseri, eseri mesedez! – Ginekologoak bere mahai aurreko aulkiak seinalatuz. Azaldutako tokietan eseri ondoren, Praxku azalpenak ematen hasi zitzaion.
- Sendagile jauna, emaztea eta biok etorri gataizkizu gure familian aspaldian gertatu den misterioa argi diezaguzun.
- Hara, orain ez didazu Lourdeskoa kontatuko, ezta? – medikuak, txantxetan.
- Ez jauna, horrelakorik ez. – Praxkuk– Bestelako misterioa duzu.
- Barkatu gizona, txantxa zen. – sendagileak– Segi, segi kontatzen, mesedez.

- Anjelita eta biok duela hamazazpi urte ezkondu ginen eta Jaungoikoak hiru seme-alaba, hiruak osasuntsu eta kristau onak, eman dizkigu.

- Hara! – sendagileak– Eta?

- Hiruak kaskagorriak dira. Hori ez litzateke arazorik izango gure familietan horrelako gehiago izango balira, baina ez nire familian eta ez Anjelitarenean ez dira inoiz horrelakorik izan. Eta...

- Eta nahi duzu ADN proba bat egin jakiteko Anjelitak adarrak jarri dizkizun ala ez. Ez da hala? – medikuak, irribarrez.

- Ez, ez, ez! Beno bai. – Praxkuk, zer esan ez zekiela– Nik ez dut inoiz zalantza izpirik izan nire emaztearen fideltasunaz... baina misterioa behin betiko argitu dezagun, horrelako proba bat eskatzera etorri gatzaizkizu.

- Ongi da, ongi da. – medikuak– Zuen eskubidean zaudete. Dena den, jakin behar duzue proba horiek garestiak direla eta seguritate sozialak ez dituela bere gain hartzen.

- Bai, bagenekien jauna. – senar-emazteek biek batera.

- Proba hori burutu baino lehenago galdeketa bat egingo dizuet, datu gehiago eduki ditzagun. – medikuak.

Eta medikuak horrelako kasuetan ohikoa den galdeketari hasiera eman zion: izen-deiturak, adina... eta horrelakoak. Gero gauza sakonagoetara igaro zen.

- Zenbat aldiz egiten duzue astean?

- Gutxi, jauna. – Praxkuk.

Joanitik ordurako ez zuen txintik ere erantzuten, lotsaren lotsaz, Ezpeletako piperrak baino gorriago baitzegoen.

- Gutxi diozu? – sendagileak– Baina zenbat? Zehaztu zure erantzuna, mesedez.

Joanitik, arrunt eskandalizaturik, aitarena egin zuen.

- Gutxi. – Praxkuk, arras lotsaturik.

- Baina zenbat da gutxi, gizona? – medikuak, bezeroen estutasunez asperturik. Astean bitan?

- Ez jauna, gutxiago. – Praxkuk.
- Behin? – medikuak.
- Hori da jauna, behin, baina urtean behin, Garizumarekin ongi bete ondoren. – Praxkuk.

Medikuak ezin zuen sinistu Praxku esaten ari zitzaiona, baina azkenean, egia zela ulertu zuenean, horrela esan zien senar-emazte koitaduei:

- Orduan zuen seme-alabena ez da adar kontua, herdoila da!

TABERNARI ETORKINA

Egun gero eta zailagoa egiten ari zaigu kamarero euskaldunik topatzea. Edozein tabernatan sartu, euskaraz eskatu eta ohiko bilakatzen ari zaigun erantzuna entzun beharra daukagu:

- Perdona, pero soy argentino. Estoy aprendiendo el vasco. Es muy lindo, ¡pero es tan difícil!
¿Que queréis vos? (Barkatu ezazu, baina argentinarra naiz. Euskara ikasten ari naiz. Oso hizkuntza ederra da, baina izugarri zaila. Zer nahi duzu?)

Penaz, amorruz, etsipenaz... baina aurrean daukagunaren egoera ulertuz, azkenean erdaraz eskatu behar. Horren errua ez da bizimodua bilatzen ari diren zerbitzari etorkinena, lau sosen truke, langile merke-merkeak xerkatzen dituzten tabernetako nagusia baizik. Dena den, erdal giro berri horrek dakarren bezeroen galera ikusita, badaude kamarero euskaldunak bilatzeari ekiten diotenak. Horietako bat dugu Juantxo Idiakenez, Donostiako Alde Zaharreko taberna bateko nagusia. Euskal giroa maite du eta doazkion bezeroak ere giro horren bila doaz. Hori dela eta, behar-beharrezkoak ditu kamarero euskaldunak. Zorigaitzez, Iñaxio jubilatu berri zaio eta orain hor dabil zerbitzari euskaldun bat bilatzen. Horretarako iragarki bat jarri du zenbait egunkaritan.

Gaur mutil batekin hitzordua finkatu du. Telefonoz dei egin zion eta gaur elkarrizketa dauka berarekin. Egia esan, ez du esperantza handirik, telefonoz erdaraz eta Hego Amerikako kutsuz hitz egin baitzion, baina...

Eguerdi aldean, hogeita hamar urte inguruko mutil bat agertu zaio tabernan nagusiaz galdezka.

- ¿Sois vos el patrón? (Zu al zara nagusia?) – Juantxori begira.

- Sí, soy yo. ¿Tu eres el que me llamó ayer por teléfono, para la plaza de camarero? (Bai, ni nauzu. Zu al zara atzo telefonoz deitu zidana kamarero plaza batetzeko?) – Juantxok.

- El mismo caballero. Aquí me tiene, puntualy preparado para la cita que concertamos ayer por teléfono. (Nai, ni neu. Hemen nauzu, puntu-puntu eta lanaz hitz egiteko prest) – etorritako mutilak, beti erdaraz.

- Baina zuk euskaraz ba al dakizu? – Juantxok, zeharo harriturik.

- Que si hablo en vasco, pues clarito que sí. Nada mas llegar al País Vasco, me compré un pequeño diccionario, y con eso y con lo que todos los días escucho en la calle, estoy muy avanzado. (Euskaraz egiten ote dudan. Bai, gizona! Euskal Herrira iritsi nintzenez hiztegitxo bat erosi nuen, eta horrekin eta egunero kalean entzuten dudanarekin, gaur oso aurreratuta nago.) – gizon gazteak.

- Pero a ver, vamos a hacer una prueba. (Ikus dezagun, proba bat egingo dugu) – Juantxok, ordurako aski etsiturik– Diga algo en vascuence. (Esan ezazu zerbait euskaraz!)

- Independentzia! Presoak kalera! Gora Euskadi askatuta! – hego amerikarrak.

- Pero hombre, eso lo sabe cualquiera. Yo para el bar necesito un euskera más coloquial. (Baina gizona, hori edozeinek daki. Nik tabernerako eguneroko euskara behar dut) – Juantxok, erdi haserre.

- Pues clarito señor. Pregunte, pregunte, que ya verá como le contesto correctamente. (Bai horixe! Galde ieza dazu, eta ikusiko duzu zein ondo erantzungo dizudan)

- A ver, como se dice Buenos días? (Esan, nola esaten da Egun on?) – tabernariak.

- Eso está chupado. Egun on! (Hori biziki erraza da. Egun on!)

- ¿Y una botella de vino? (Eta botila bat ardo?) – tabernariak.

- Botilla bat de ardoa – gizon gazteak, oso azentu txarrean.

- ¿Y un café con leche? (Eta kafesne bat?) – tabernariak.

- Kafe bat con esnea – gazteak, lehenagoko azentu txarrarekin.

- Pero, pero... ¿que clase de euskera es ese? (Baina, baina... zer euskara mota da hori?) – Juantxok, etsiturik, eta elkarrizketa txoro harekin amaitu nahian, berak ere ez zekiena galde egin zion:

- A ver, ¿ cómo se dice felpudo? (Ea, nola esaten da felpudoa ?) – Juantxok, irribarre maltzurra ezin kontuz.

- Pero caballero, eso es muy fácil, eso está chupado... (Baina gizona hori aski erraza da. Aisa guztiz) – gizon gazteak.

Juantxoren irribarrea seko moztu zen kamareroaren erantzuna entzutean. Ba ote? Anartean, hego-amerikarrak hizketan jarraitu zuen.

- Eso es facilísimo caballero. Felpudo se dise ongi etorri! (Hori oso-oso erraza da gizona. Felpudo ongi etorri esaten da!)

ZAKIL LUZEAK

Iruñeko Txantrea auzoan bizi dira gure lagunak. Txikitandik ibili dira elkarrekin, ume garaian hango parkeetan hamaika jostaketa eginda, eskola berean ikasi zuten eta orain hogeita piko urtetako gazteak direnean elkarrekin segitzen dute. Jabi ostatu bateko zerbitzaria da, Mikel garaje bateko langilea, Unai bidai agentzia bateko bulegaria eta Patxi, Antton eta Fernando unibertsitateko ikasleak. Jadanik, bakoitza bere bidea urratzen ari den arren, koadrila moduan ateratzen segitzen dute, eta asteburu guzti-guztietan elkarrekin ibiltzen dira: poteoan, nesketan, zinean, mendi txangoak egiten, eta abar. San Ferminak direnean, peña berean ibiltzen dira, jo ta fuego. Nekaezinak dirudite.

Lagun onak diren arren, beti norgehiagoka dabilta, eta ez bakarrik pilotan eta futboleant. Ostiralero, gaueko ordu ttikietan, eta norbera bere etxerako bidea hartu aurretik, Txantreako murru handi baten kontra, sekulako lehiaketa egiten ohi dute. Umeak zirelarik hasi ziren eta oraindik bizi-bizirik mantentzen dute ohitura bitxi hau. Puxika bete-betean, lehertzear, dutenean, hor aritzen dira lehen aipaturiko murruaren kontra, ez nork egiten duen txiza gorago. Azken bolada honetan, Pernadno eta Unai izaten dira txapeldun.

Haatik, hau ez da instrumentuarekin egiten duten lehiaketa bakarra. Bero-bero daudelarik, hau da, erdi susalduta, eta hanka-tarteko tranka hanpatuta daukatelarik, luze eta zabaleko neurriak hartzeari ekiten diote. Kirol bitxi honetan txapeldun Jabi izaten da 21 cm luzerekin, gero Patxi 19rekin eta gainontzekoak hor ibiltzen dira 15 eta 17 cm-en artean. Ohitura honekin, nerabezaroan hasi ziren, eta orduz geroztik astero hartutako datu guztiak koadernotxo urdin batean apuntatua dauzkate.

Aurten ibilaldi bat prestatu dute abuzturako, eta ez noranahirako. Nora eta Afrikako Keniara! Primeran pasatu behar zuten! Gainera, Unai lan egiten duen bidai agentziaren bidez joatekoak zirenez gero, prezio berezia egin zieten eta aski merkea atzeman zuten. Pozik zeuden, beraz, abuztua noiz iritsiko zitzairen irrikatan.

San Ferminak eta bertan egindako parrandak igaro ziren eta abuztua iritsi. Gure lagunak Iruñetik Bartzelonara trenez joan ziren eta Bartzelonako aireportutik Keniako hiriburukora, hau da, Nairobi-ko aireportura. Baina bidaia ez zitzairen Nairobiri amaitu. Autokar zaharkitu batean sartu eta bertan, jende askorekin batera pilotuta, ordu luze eman ondoren, oihaneko herrixka batera iritsi ziren. Hango fauna ikusgarria zen: elefanteak, jirafak, lehoiak, hipopotamoak, bufaloak... baina ikusgarrien egin zitzaiena hango neska ederrak izan ziren. Han zebiltzan erdi biluzik, bularrak airean, inoren lotsarik gabe, eta Txantreako gure lagunak gozamenerako. Horregatik bakarrik bazen ere, bidaia hark merezi zuen.

Haatik, ez ziren bakarrik neskak biluzik edo erdi biluzik ibiltzen zirenak, mutilak ere modu berean baitzebiltzan, euren instrumentuak harro-harro erakutsiz, baita bero-bero zeudenean ere. Haien erreminta ikaragarri handiak ikustean, beraien arteko zakil lehia etorri zitzaaien gogora.

- Antton, atera itzak koaderno urdina, boligrafoa eta metroa, mutil hauen instrumentuak neurtu eta gureekin alderatu behar ditugula! – Patxik, jakin-minak deiturik.

- Hi erotu haiz! Zakila neurtzen hasiko gatzaizkie orain. Maritxuak garela pentsatuko ditek. – Mikelek, asaldatuta.

- Bai, horixe! – Jabik.

- Falta zena! – Unaik.

- Erotxera eramanen gaitiztek! – Pernandok.

- Ixo, ixo, koldarrak! – Patxik– Goxokiak emanen zizkieagu eta horrela lasai ederrean neurtzen utziko zigutek.

- Begira ezazue hori! – Unaik, aldamenetik pasatzen ari zen hamasei-hamazazpi urteko mutil morroskoa seinalatuz. Hanpatuta darama, puztuta! Ikaragarri handia dauka!

- Antton, presta ezak materiala eta hator nirekin! – Patxik, goxokiak poltsikotik atereaz eta mutil beltzarengana hurbilduz.

Mutila harrituta gelditu zen Patxi, Antton eta beste lauak inguratzen ikusi zituenean. Patxik goxokiak eskaini zizkion eta mutilak atsegin handiz hartu zituen. Gero, ingeles txarrean zakila neurtzeko baimena eskatu zion, eta mutilak burua mugituz onartu zuen. Anttonek, berehala, zakiltzar hura neurtu zuen.

- 25 cm! Jabi! Akabo hire errekorra! Honek 4 cm ateratzen dizkik. – Anttonek, esku artean zeukana ezin sinetsiz.

- Hori niri! Eta zuei? – Jabik, irribarre gaiztotxo bat eginez– Kalkulua egin al duzue?

- Ixo, ixo! – Pernandok, zeharo lotsatuta– Gureak txilibituak dituk horrelako txirularen aldean.

- Kar, kar, kar,...! – barre zoroa egin zuten guztiek.

- Hi, Patxi, galde iezaiook mutilari zer egiten duen horrelako tresnatzarra edukitzeko. – Unaik, inbidia ezin ezkutatuz.

Eta Patxik ingeles txarrean galde egin zion:

- Zer egiten duk hik horrelako zakil handia izateko?

Eta mutilak Patxirena bezain ingeles txarrean erantzun:

- Ez diat deus berezirik egiten, bakar-bakarrik, eta hemengo mutilen artean hedaturik dagoen ohiturari jarraiki, astean behin, 300 edo 400 gramoko harria zakilean lotu eta zintzilik eramaten diat, besterik ez.

- Hara, hortxe zegok sekretua! – Pernandok.

- Guk ere, Txantreara itzultzean, antzeko zerbait egin beharko diagu. – Mikelek.

Mutilak Kimama izena zuen, eta ongi hornituta izateaz gain, biziki jatorra zen. Gure lagunak herrixka hartan izan ziren bitartean, hango bazterrak erakutsi eta neskak aurkeztu zizkien. Behin baino gehiagotan, ibaira eraman zituen eta han ibili ziren bertako neska eta mutilekin era guztietako jostaketetan.

Egunak azkar eta fite igaro ziren, eta Nairobira eraman behar zituen autokarra hartu zutenean, bertan zeuzkaten herrixkako neska-mutil guztiak agur egiteko.

- Zuek itzuliko? – galde egin zien Kimamak, masailetik behera irristatzen zitzaizkion negar malkoak txukatuz.

- Bai, Kimama, hurrengo urtean itzuliko gaituk. – Patxik, pena ezin ezkutatuz– Zin egiten diagu.

- Eta Txantrean berak erakutsitako teknika praktikatuko dugunez, zakilarekin egindako aurrerapenak erakutsiko zizkiagu! – bota zuen Pernandok, pozaren pozez.

Eta horrela, Kimama eta gazte lagunak herrixkan utzirik, itzulbideari ekin zioten. Herrixkatik Nairobira autokar karraka hartan, Nairobitik Bartzelonara hegazkinez, eta Bartzelonatik Iruñera trenez. Handik bi egunetara ohiko eginbeharretan zebiltzan.

Asteburuetan Ezkaba mendira joaten hasi ziren eta bertan Kimamak erakutsitako teknika praktikatzen zuten, baina 300 edo 400 gramoko harria jarri beharrean, galdutako denbora berreskuratu nahian edo, kilo bateko harritzarra zintzilikatzen zuten.

Urte horrela egin zuten. Teknika arrunt mingarria bazen ere, Kenian ikusitako emaitzek gure lagunak astebururo horrela jokatzera animatzen zituzten.

Abuztu berri iritsi zenean, Txantreako lagunek aurreko urtean Kimamari emandako hitza bete zuten. Trena hartu eta Bartzelonaraino. Bartzelonako aireportuan hegazkina hartu eta Nairobiraino, eta azkenik, Nairobin autokar karraka hartu, eta jende askoren artean pilotuta, Kimamaren herrixkaraino iritsi.

Karrakatik jaitsi orduko, han ziren herrikaxko neska-mutil guztiak agur beroa egiten. Kimama ere, han zen txantrearrak besarkatzeko irrikatan. Besarkada bana eman ondoren, mutil beltzak, oso ingeles txarrean, Patxiri galdetu zion:

- Eta zer moduz zuen zakilekin? Harriaren teknika erabili al duzue? Dagoeneko, gureak baino handiagoak izango dituzue, noski!

Eta Patxik, etsipenezko keinua eginez, erantzun:

- Erabili, erabili dugu, eta astero, gainera! Tamalez, gure zakilak ez dira oraindik zuenak baino handiagoak, baina beltzagoak bai, ziur!

TATUAIK

Iboni bederatzi egun falta zitzaizkion ezkontzeko eta jadanik dena prest zeukan: andregaia, etxebizitza, eliza, apaiza, gonbidatuak, jatetxea... Azken hilabetea gogor samarra egiten ari zitzaion lantegiko ohiko lanaz eta ezkontzaren antolamenduaz gain, astebururo izaten ari baitzuen agur-afariren bat. Duela hiru aste txikitako lagunek egin zioten, duela bi aste lantegikoek, aurrekoan futbol taldeko lagunek eta ostiral hartan betiko koadrilakoekin egin behar zuena. Egutegi estuagorik!

Lantegiko lan nekeza bukatu, autoa hartu eta Katean lan egiten duen lantegitik Hondarribia aldera joan zen. Bekoerrotaren izeneko jatetxean koadrilako lagunak zituen zain. Osora hamar bat. Jatetxera sartu eta haien zati erreserbatutako tokian eseri egin ziren. Afari osoa eman zuten kantu eta txantxen artean. Afaria ederra eta ugaria zen, edaria berriz, ugariagoa. Mahai gainean hogeita bat botila ardo ikus zitezkeen, afaltzen ari zirenak baino dezente gehiago. Afaltzen amaitu zutenerako zepelin ederra zeukaten gainean.

- Goazen Moskura! – bota zuen Beñatek.
- Bai, goazen! – baieztatu zuten gainerakoek.
- Ez dira ertzainak bidean izango? – galde egin zuen Anderrek, kezkaturik.
- Zer hago, beldurrez ala? – Patxik.
- Hik ez duk gidatu behar, baina autoa eraman behar dugunok kezkaturik gaituk. Horrelako aitzurrarekin harrapatuz gero, akabo gure gida-baimenak! – Anderrek.
- Nik bazeukaat horretarako soluzioa. – Txominek.
- Ez duk izango oinez joatea? – Patxik.
- Ez motel, soluzioa hauxe duk. – erantzun zion Txominek alkandorako poltsikotik kaxatxo zuridun bat aterez.
- Zer da hori? – Ibonek.
- Mendazko goxokiak. Txoferrek horrelako bana hartuz gero, ertainen alkoholemian ez duzue neurririk emango. – Txominek, esku ahurrean zituen goxokiak erakutsiz.
- Ziur al haiz? – Ibonek, gehiegi sinistu gabe.
- Baike Ibon, baike. Laster ezkonduko eta gizonduko den mutilak mendazko goxokiak jakin behar zian. – Txominek, harridura erakutsiz.

- Zer edo zer entzuna nian, baina ez zekiat oso fidagarria ote den.
- Ibonek, arrunt mesfidati.

- Baietz ba! Gainera, beste erremediorik ez zagok, edo goxokiak edo bat ere ez. – Txominek, haserre plantak egiten– Zuek aukeratu!

Anderrek eskua luzatu eta hiru goxoki hartu eta ahora eraman zituen.

- Bada ezpada ere! – esan zuen– Hiru goxoki jateak segurtasun gehiago ematen zidak.

Ibonek gauza bera egin zuen, baina hiru hartu beharrean bost hartu zituen.

- Hara, gure seguro! – Patxik.

- Zer seguro! eta zer seguro!-ondo! – Ibonek, haserreturik– Bihar pasata, etzi, ezkondu beharra zeukaat, eta ez nauk geldituko txorakeria batengatik gida-baimenik gabe.

- Oi ene, Ibontxo haserretu zaiguk! – bota zuen, ordura arte ixilik egon zen Jonek, nesken ahots ezitia imitatuz– Zer esango du Olatzek, bere Ibon maitea mozkorturik harrapatzen badute?

- Ixo, babo hori! Hago isilik alu zikina! – Ibonek, mendazko beste goxoki bat ahoan zuela.

- Hik jan itzak goxoki horiek lehenbailehen eta goazemak Irun aldera.

– Txominek.

Goxoki guztiak jan ondoren, koadrila Anderren eta Ibonen autoetan sartu eta Bekoerrotatik Amuteko lehen etxeetara daraman bidetik barrena abiatu ziren. Hamar minutu eskasetan Urdanibia plazan zeuden. Bertan aparkatu eta hurbilen zegoen tabernara sartu ziren.

- Hau zorrea! Bidean ez dugu ertzainik topatu. – Ibonek, arnasa lasai hartuz.

- Utz itzak maritxukeriak alde batera eta goazemak muturra berotzera! – Jonek, lehenagoko neska ahots ezti bera jarriz.

- Muturra berotzera esaten duk. – Anderrek– Jadanik muturra eta gainerako guztia edukiko duk bero. Zer ari haiz esaten?

- Hik ez duk nire antzik. – Jonek, erdi haserre, eta neska ahots ezti oraingoan ahantzirik.

- Isil zaitetze biak, babo ziztrin halakoak! – Patxik– eta sar gaitezen tabernara!

Eta horrela, gatazka gehiagorik gabe, gure lagun koadrilak gau osoa eman zuen ostatur ostatu. Sekulako parranda egin zuten. Goizeko ordu ttikietan Ibon gainean zuen ezkontzaz oroitu eta etxera joateko imintziora egin zuen.

- Ni etxera noak, lo pixka bat egin beharra zeukaat!
- Hi etxera? Biana, baina... erotu al haiz? Gaurkoa duk hire azken parranda, gizon libre bezala, eta ez diagu utziko joaten. – Txominek, hitzak arrastaka ahoskatuz.
- Bai horixe! – gainerakoek– Hi ez haiz inora joango gu gabe. Parranda bukatu bitartean, hi hemen gurekin, kieto!

Eta gogoaren kontra bazen ere, Ibonek han segitu behar izan zuen bere lagunekin, taberna guztiak banan-banan itxi zizkieten arte.

- Orain bai, ezta? Orain utziko nauzue etxera joaten? – galdetu zien Ibonek bere lagunei azken tabernako pertsiana metalikoa jaistean.
- Ezta pentsatu ere! – erantzun zion Txominek arrunt txispatuta– Nire elkarteko giltza ekarri diat eta bertan jarraituko diagu azken gau hau.
- Azken gaua’ – Ibonek, harriturik– Ni bihar ez nauk hilko, ezkonduko nauk, besterik ez.
- Gauza bera duk! – Txominek– Ala, goazen elkartera! Hemen bertan zegok, aurreko espaloi horretan. Musean arituko gaituk.
- Bai horixe! – beste guztiek– Mus txapelketa mundiala egingen dugu!

Istant batean hor ari ziren denak elkarteko mahaietan eserita eta musean.

- Ideia mundial bat bururatu zaidak! – bota zuen Patxik, ustekabeen.
- Bota ezak Patxi, bota ezak! – gainerakoek batera.
- Gaurko gaua berezia da, gure bizitza osoan gogoratuko duguna. Ez al da horrela lagunak? – Patxik, beste guztiei galdezka.
- Bai hala duk, hala duk! – gainontzekoek.
- Egin dezagun zerbait gau honen lekuko, eternala izan dadin. – jarraitu zuen Patxik.
- Eta zer egin dezakegu? – besteek.
- Tatuai bat leku ezkutu batean. – Patxik.
- Tatuai bat? – Txominek.
- Eta leku ezkutu batean? Nirekin ez kontatu. – Ibonek.

- Eta non, koskoiletan? – Jonek, irribarre maltzur batez.
- Ez, koskoiletan ez, marizikin halakoa! Ipurdi matrailan. – Patxik, irribarrez.
- Ipurdi matrailan? Hi sano al hago burutik? – Ibonek, desesperaturik– Eta zer jarriko dugu, loretxo bat? Edota neska bat larru bizitan?
- Azken hori ez legoke bat ere gaizki. – Jonek, pozaren pozez.
- Ez bata eta ez bestea. – Patxik– Dotoreago den zerbait, hau da, gure izena: Patxi naiz, edo Ander naiz, edo Ibon naiz... Zer iruditzen?
- Hau duk burua, hau! – Txominek– Jeniala, mundiala, izugarria...!
- Bai, bai, ikaragarri ona! – beste guztiek, oraindik alkoholaren lurrunetan zebiltzala.
- Ba, nik ez diat egingo! Zer esango diot gero Olatzi halako tatuaiak ikusten didanean? – Ibonek, purrustan.
- Zer esango dik bada, musu emango dik tatuaiak, besterik ez. – Jonek zepelinaren eraginpean.
- Bai horixe! – besteek.
- Eta gainera, gau honen gogoangarri izan dadin koadrilako denok egin beharra daukagu. Betiko batuko gaituen seinalea izango da.
– Patxik, zutik mantentzeko ahaleginetan.
- Denok ala inor ez! – bota zuen Jonek.
- Bai horixe! Denok ala inor ez! Denok ala inor ez! – errepikatu zuten, behin eta berriz, gainerako guztiek.
- Eta non egingo digute? – Anderrek.
- Alde Zaharrean tatuaiak egiten dituen denda zabaldu dute, dagoeneko eskualde osoan famatua egiten ari dena. – Patxik–
Egin dezagun bertan. Goizeko zortzietan zabalitzen dute. Bi ordu, besterik ez zaizkigu geratzen.
- Ba bitartean, atera ezak koñaka gosaltzeko! – Txominek– Itxoin beharreko denbora laburragoa egingo zaiguk-eta.
- Bai atera ezak botila bat, atera ezak! – beste guztiek.

- Bat ez, hiru aterako ditiat. Betiko batuko gaituen ekintza hau ospatu beharra zagok-eta! – Patxik, pattarren armairua irekiz.

Zortzietan, puntu-puntuan, gure lagunak tatuaien dendan zeuden sartzeko pronto. Lehenak izan ziren bertara sartzan. Bertako langileak txinatarrak edo ziren.

- Zel nahi duzue? – esan zien harrera egiten zuen langileak.
- Tatuai bana nahi dugu. – Patxik, inoiz baino mozkorrago zegoela.
- Eta non? – txinatarrak.
- Ipurdiko matrailean. – Patxik.
- Ipuldian? – txinatarrak.
- Bai, ipurdian. – Patxik.
- Ongi da, ongi da, uleltu dut, ipuldian nahi duzue. – txinatarrak.
- Eta zenbat kobratuko diguzu tatuai bakoitzeko? – Jonek, ziraldoka.
- Tatuaiaren neuliaren alabela. – txinatarrak.
- Hamabi edo hamahiru zentimetroko kontua. Patxi naiz, Ander naiz, Txomin naiz... hau da, gure izenaren erreferentzia, besterik ez dugu nahi. – Patxik.
- Olduan melke, hilulogeita hamal eulo bakoitzeko. – txinatarrak.
- Hirurogeita hamar euro? Hi gutaz burlatzen ari al haiz? – Patxik, ero antzera.

Txinatarrak, kikildurik ez zuen deus erantzun, eta Patxik, pattarrak bultzaturik, txinatarra kolkotik hartu, lurretik altxatu eta astintzen zuen bitartean, honela esan zion:

- Hogeia euro bakoitzeko, entzun al duk?

Eta txinatarrak, mozkorti haien beldurrez, erantzun:

- Ongi da, ongi da. Aska nazazu. Egingo dizuegu tatuai ipuldian.

Gero, beldurrez begiratzen zieten niru naska langileei, egin beharreko lana agindu zion:

- Txin txan txun, txenpun txenpin.

Nagusiaren esana entzundakoan hiru neskak materiala prestatzen hasi ziren. Ordu erdi batean, tatuaiak eginda zeuden. Hogeina euro ordaindu eta norbera bere etxera joan zen.

Ibon lur jota sartu zen ohera. Goizeko hamarrak ziren eta arratsaldeko seieta hitzordua zuen Olatz emaztegaiarekin ezkontzaren azken kontuak ongi antolatzeko. Hori dela eta, iratzargailuak arratsaldeko lauak markatuz ipini zuen. Eta nai baino lehenago iritsi zen esnatzeko tenorea. Iratzargailuak soinu handiz jo zuen Ibonen belarrietan. Mutila nekez altxatu zen. Bestondoa barruraino sartua zuen eta burua lehertzeaz zeukan. Logelako armairuan zuen ispilu handira hurbildu zen biluzik. Horiek begizuloak! Eneee! A zer piura! Eta hurrengo goizean ezkondu behar. Duxara sartzeko biratu zen eta orduan ikusi zuen ipurdian egindako tatuaiak. Ahaztuta zuen. Hori ustekabea! Ezin zuen sinistu ikusten ari zena. Amorrutik handiz, telefonoa hartu eta Patxiri deitu zion.

- Egun on Patxi. Esna al haiz?
- Ba, egia esateko, oraintxe arte ez. Zer nahi duk? – loaren orratzak ezin kendurik.
- Zer nahi dudan? Ez zegok eskubiderik! Hire tatuaiak ikusi al duk? – Ibonek, sua mingainetik jaurtitzen zuela.
- Ez, ez! Itxoin ezak pixka bat! – Patxik, ohetik altxatuz eta ispiluan begiratuz– Aaaaaaaa! Txino madarikatua! Harrapatzen dudanean! – suturik.
- Niri Karmentxu naiz idatzi dit, pentsa ezak. Olatzek pentsatuko dik maritxua naizela. – Ibonek, marruz.

Telefonoz elkarri deika aritu ziren, eta horrela jakin zuten txinatarrek, mendekuz, eta denak mozkorturik zeudela baliatuz, ipurdian grabatu zieten. Jonen ipurdi matrailan Lupita naiz irakur zitekeen garbi-garbi, Txomienean Lurdes naiz, Anderrenean Begotxu naiz... eta Patxirenean Juanita Banana naiz. Horra hor Patxiren desesperazio oihuaren arrazoia. Huraxe izan zen alkoholez blaitutako gau haren gogoangarri gure lagunek ipurdian grabaturik gorde zuten oroitzapen mingotsa, zikoizkeria eta mozkorkeria ez baitira horrelako gauzak egiteko abiapunturik onena.

TELEFONOZKO MEZUA

2009ko ekainaren hasieran sekulako ezbeharrak gertatu zen, Brasiletik Europara zetorren hegazkina airean lehertu baitzen. Hegazkinaren hondamendia azaltzeko teoria aunitz plazaratu baziren ere, oraindik ez dago bat ere garbi zer gertatu zen hegazkina horrela, bat-batean, leher zedin. Batzuen ustez, hegazkina beharrezkoa baino abiadura handiagoaz sartu omen zen ekaitz zirimola batean; besteen ustez, berriz, tximista batek jo zuen bete-betean. Ozeanoaren gainetan hegan egiten ari zela agitu zen eta ez zen inor salbatu. Osora ehun eta berrogeita hamar lagun inguru hil ziren istripu lazgarri hartan. Horietako bat Katti Dager sendagile baionarra zen. Rio Janeiron burututako Osasun Biltzar batean parte hartzera joana zen eta bost egun berantago, hegazkin horretan itzultzen zen.

Baionan, haren senarrak eta hiru seme-alabek kolpe handia hartu zuten ustekabeko istripuarekin. Biziki familia lotua zen eta ama, horrela, bat-batean, galtzea gaindiezina egiten ari zitzairen. Jakes senarra zurrumbilo beltz batean sarturik zebilen eta gorpua berreskuratu ez izanak haren tristura areagotzen zuen. Lehen egunak seme-alabak zaintzen eta amaren galera nolabait bideratzen eramane zituen. Ez zen lan erraza, amaren itzala seme-alabentzat handia baitzen. Samina handiz baina aurrera egin beharra zeukaten.

Gogorrena gaua zen, ilunpeko orenak ematea guztiz ezina egiten zitzaion Jakesi. Ordu luze egiten zuen ohean, oroitzapenetan murgildurik, emazte zendu berriaren argazkiei begira. Horietako batean, mesanotxean zuen sakelako telefonoa hartu eta indar ezkutu batek bultzaturik, mezu bat idazteari ekin zion: Maite zaitut Katti. Gero, etsiturik, negarrak begietan zituela, emazte zenduaren telefono mugikorrera igorri zuen. Ondoren, logelako argia itzali zuen. Loa itzulmitzulika zebilkion Jakes osorik ezin hartuz. Halako batean, mesanotxean zuen sakelako telefonoan mezu bat sartu berria zuela entzun zuen. Erdi lotan zegoela, besoa luzatu eta telefonoa hartu eta nor zen mezuaren igorlea irakurri zuen. Ezin zuen sinetsi ere egin, telefonoak emaztearen izena markatzen baitzuen. Bihotzaren taupadak bortizki kolpatzen sumatu zituen. Urduri samar, mezua zabaldu eta irakurri egin zuen: Nik ere maite zaitut.

SANTO DOMINGOTIK EKARRI NUEN EMAZTEA

Joxe izena dut eta berrogeita bi urte egin berriak. Parrandero samarra izan naizela aipatu beharra daukat nire burua aurkezterakoan, parranderoa eta gonazalea. Bai, aitortzen dizuet, gonek izugarri erakartzen nautela, baina ez fraide eta apaizenek, neska ederrenek baizik. Urteak joan eta urteak jin, lorez lore ibili naiz, neska baten besoetatik beste baten besoetara, baina ezer seniorik ez, libertimendua, besterik ez. Hori dela eta, ez naiz inoiz ur handitan sartu, eta elizako bueltaz ez dut inoiz pentsatu ere egin orain dela zazpi urte arte. Esan dizuedan bezala, duela zazpi urte, hogeita hamabost bete izan nituenean, etxeko ispiluan txukuntzen ari nintzela, sumatu nuen nire aurpegia ez zela betikoa, ximur batzuk azaltzen hasita nituen begien izkinetan, eta okerrago oraindik, soilgune dotore batzuek kopeta handitzen zidaten. Gauza handirik ez, oraindik, baina bidea urratzen hasita zegoen. Ene, zahartzen ari nintzen!!! Zahartzen eta oraindik ezkondu gabe! Amak eta izebek aspaldidanik esaten zidaten ezkondu beharra neukala, urteak ez zirela alferrik pasatzen, eta beraiek ez zirela betiko; baina nik neure burua oraindik gazte samar ikusten nuen horrelako saltsetan sartzeko. Neskak bai, baina larunbat eta igandeetarako! Zertarako konpromisoak gazte lorean zegoen ni bezalako mutil gazte batentzat? Baina egun triste hartan ispiluak oso bestelakoa azaldu zidan: ni ez nintzen zegoeneko, garai bateko gaztea. Hura pena eta atsekabea!

Momentu zehatz hartan etorri zitzaidan burura jubilatzen zen lankide baten agur-afarian berak bertan ginen gazte ezkongabe guztioi luzatu zigun mezua: Oraingo neska-mutilak, berrogei urterekin ezkontzen dira eta berrogeita bost urterekin enkargatzen dute lehen seme-alaba Hego Amerikan. Guk denok barre eta algara handiz erantzun genion arren, berak egindako enbidoak denoi bihotzean zimikoa egin zigun. Neronek gazte ikusten nuen nire burua oraindik, hogeita hamabost urte bakar-bakarrik, baina orain ispiluak oso bestelakoa esaten zidan: Joxe hi ez haiz garai bateko mutil gaztea!!!

Zer egin? Neska non bilatu? Nire inguruko neska guztiek, ni baino parranda zaleagoak izaki, ez zuten ezkontzeko inolako premiarik ikusten. Norekin uztartu orduan? Karlos lagunak bidea zabaldu zidan:

- Joxe, nik ere, ezkontzeko premia ikusten diat. Goazemak biok Errepublika Dominikarrera, esaten dutenez hango neskak europarrekin ezkontzeko irrikatan omen daude, irlatik eta bertako pobreziatik alde egiteko. Goazemak eta ekar dezagun behor eder bana bertatik!

Bi aldiz pentsatu gabe, udako oporretan Karibeko uharterantz abiatu ginen. Oso giro beroa zegoen bertan, bai eguraldiaren aldetik, eta baita sexu kontuen aldetik ere. Gehiegi ahalegindu gabe, neska bana lortu genuen. Biak mulato ederrak, oso gaztelania xelebraz mintzo zirenak. ¿Que quieres mi amorcito? ¡Que hermoso es el vasco de mi corazonzito! eta horrelako hitz eztiak, behin eta berriro, esaten zizkigutenak. Ederrak ziren oso, beltzaran samarrak agian, baina ederrak oso. Eskuak olagarro batek bere garroen antzera mugitzen zituzten, eta beti zeuzkaten guk gutxiago pentsatzen genuen lekuetan, gure paparra ferekatzen, gure ipurdi-masailak tentatzen edota aurreko kremlera gora eta behera mugitzen. Sentsualak ziren oso, izugarriak.

Duela zazpi urte, herrian beraiekin azaldu ginenean izugarritzko esamesak zabaldu ziren. Hura eskandalua. Nire amatxik, orduz geroztik ez dit hitzik egin. Inoiz ez dit barkatu erdaldun batekin ezkondu izana. Hura eskandalua herrian. Erdalduna eta beltza, eneeeee!!! Nondik atera dituzue urdanga horiek? Euskal Herrian ez al zeneukaten neskarik halako piurak ekarri beharrean? Karlos gustura zegoen bere mulatoarekin, baita ni ere nire Mari Inexekin. Polita zen, ederra, berritsua, ni bezain parranda zalea eta oso zintzoa, beti nire aginduetara, nire sua itzaltzeko prest. Zer gehiago eska niezaioken. Gainera, berehalaxe gelditu zen haurdun. Herriko mingain gaiztoek segituan zabaldu zuten ez zela nirea, Karibetik ekarritako fardela baizik. Baina niri bost axola. Egia aitortu behar badizuet kontuak ez ziren oso garbi ateratzen, baina hobeto gauza horrela uztea, eta kaka gehiago ez nahastea. Zertarako? Berehalaxe mutiko beltz-beltz-beltz baten aita egin nintzen. Braulio izena jarri genion, Mari Inexen aitonaren oroitzapenez. Herrian, berriz, hasiera-hasieratik lkatz deitu zioten.

Mari Inex ez zen Euskal Herrian ongi moldatzen. Hotz handia pasatzen omen zuen, eta gainera nazka-nazka eginda zegoen gure zirimiriaz. Uda partean, ez zuen hotzaren aitzakiarik, eta hori dela eta, erdi biluzik ibiltzen zen, Santo Domingon ezagutu nuenean ibiltzen zen moduan, gona ttiki-ttikiaz eta bularretako eskas samarraz. Bular eta ipurdi handiak zituenez gero, erdiak arropatik kanpo edukitzen zituen, herritar guztien gozamenerako. Herrian Inex bular-marmita deitzen zioten, eta berarekin hitz egitean, hor ibiltzen ziren denak, gazte eta helduak, begiak bere aireportuan finkatuz. Esamesak eta txutxumutxuak denon ahotan zebiltzan. Etxeberriko lñaxiorekin ibilia zela, On Enrike erretorearen lagun handia zela, Martxiel estankokoak burua galduta zeukala Inex gurearekin... eta abar luzea. Behin baino gehiagotan harrapatu nuen horiekin eta beste hamaikarekin musuka eta zirriz egiten, baina berak esaten zidanez hori lagunaren arteko harremanak, besterik ez ziren. Euskaldunok oso estuak eta tradizionalak omen gara, eta horregatik nahasten ditugu eguna eta gaua adiskidetasunaren kontuetan. Jokaera horiek lagunekin eta ezagunekin normalak omen ziren, eta kontrakoa esaten zutenak estu eta atzerakoi samarrak. Nik ez nekien zer pentsatu. Etxean emazte ona zen, ama ona,... hori bai oso sukaldari txarra. Hozkailua gauza bitxiz beteta zeukan arren, inoiz ez zuen patata tortilla bat egiten. Zerbait beroa dastatu nahi nuenean neronek egin beharra neukan, eta Braulio ttikia zaintzeko neska bat hartu behar izan genuen. Denborarekin, gauero ateratzen hasi zen, eta gaueko ordu ttikietan itzultzen zen etxera. Berak esaten zidanez burua freskatu beharrean zeukan, Euskal Herrian bizitzeko. Lagunek neska Santo Domingora berriro bidaltzeko esaten zidaten arren, nik ez nien inoiz kasurik egin, nire emazte laztana baitzen! Nire irudikoz, esamesak eta txutxumutxuak inbidiaren ondorio ziren, inbidia bai, inbidia zikina!

Konturatu orduko beste bi mutikoren aita egin nintzen. Bi hauek ere, Braulio txikirekin gertatzen zen bezalaxe, ez zuten nire antzik. Herrian hurrekin paseatzean ikusten nindutenean barre egiten zuten, eta herriko bertsolaria zen Endika Gartziarenak herri osoan famatuak egin ziren bertsoak egin zituen nire gainean. Ama gaixoa bihotzak jota hil zitzaidan, eta aitak ez zuen nitaz eta bere bilobez ezer jakin nahi. Bihozgabe halakoa!

Herriko emakumeek gorroto zuten Mari Inex, eta gizonek gehiegi maite, ene ustez. Kaletik paseatzean txistu egiten zioten edota loreren bat bota eta ostatueta muturra berotzen zutenek eskuak ipurdira eta bularretara luzatzen zizkieten lizunkiro. Hura ez zen bizimodua!

Karlosek ekarritako emakumearekin ez zen gauza bera gertatzen. Hasiera-hasieratik bat gehiago izan zen herrian, eta zegoeneko denen estimua bereganatua zuen. Behin, gure etxera afaltzera gonbidatu genituen. Hobeto esanda, gonbidatu Mari Inexek egin zituen, eta afaria nik, nire emazte karibetarrak ez baitzekien arrautza bat frijitzen. Hamarrak aldean etorri ziren afaltzera. Nik ordurako banuen dena prest. Mari Inex bere soineko loredun ederrenetako batez jantzi zen. Jadanik hiru semeak lotan jarrita nituen. Afarian hitz eta pitz aritu ginen lauok eta postreetarako atera nuen xanpainak hitza erraztu zigun. Halako batean, Karloxez herriko zenbait zurrumurru mahairatu zigun. Mari Inexi ez zitzaion bat ere gustatu eta garrasi historikoen artean zartako zenbait eman zizkion, eta baita buruko zenbait ile tira eta kendu. Ni ikaratua nengoan, ez nekien zer egin. Mari Inex eroaren gisa ari zen garrasika eta mahai gainean zeuden plater, edalontzi, sardexka, koilara eta bestelako guztiak Karloxi eta bere emazteari jaurtitzen. Gure lagunek, arrunt ikaraturik, alde egin zuten korrika eskaileratik behera. Mari Inex, bat ere lotsatu gabe, atzetik atera zitzaion xanpain botila eskuan zeramararik. Goitik bota zien eta Karlox buruan jo zuen betebetean. Nire laguna, konortea galdurik, eta burutik odola bor-borka zeriola, lurrera erori zen seko. Bere andreak, nerbio eraso batek harturik, garrasi lazarriak jaurtitzen zituen. Bizilagunak eskaileretara atera ziren eskandaluaren zergatia jakin nahian eta hor ikusi zuten Karlox luze-luze etzanda odol putzu batean. Anbulantzia batean eraman zuten.

Nik ez nekien zer egin, gauzak lurretik jasotzen hasi, negarrez hari ziren gure hiru semetxoak lasaitu edota Mari Inex betizua baretu. Hiruretan saiatu nintzen. Halako batean, Mari Inex etxeko hozkailua zabaltzen ikusi nuen. Eskuan Karloxi kendutako ileak zeramatzan, eta nire harridurarako izozkailuan sartu zituen bertan zituen beste gauza askoren artean. Nik ez ikusiarena egin nuen. Hurrengo egunean aguazilak etorri ziren eta Mari Inex deklaratzera eraman zuten herriko auzitegira. Handik zenbait egunetara isuna etorri zitzaion. Ordaindu nuen eta lehen bezala jarraitu genuen. Karloxez, berriz, ez zuen burua altxatzen, eta gaitz baten atzetik beste handiagoa zetorkion. Horrela hiru hilabete eman ondoren eta oinaze handiren artean zendu zen. Hil zen gau berean, Mari Inex izozkailuan zituen ileak ateratzen eta zakarrontzira botatzen harrapatu nuen. Ezpainetatik honakoa atera zitzaion: Agur betiko Karlox, orain ez dut gehiago honen beharrik izango! Txao banbino! Orduan ulertu nuen dena, orduan ulertu nuen zergatik gurekin sartzen ziren senide edo bizilagunak zenbait hilabete barru hiltzen ziren denak. Mari Inexek vudu egiten zien. Deabru berberarekin ezkontuta nengoan!

Badaezpada ere, ez nion ezer esan, eta lehen bezala jarraitu nuen. Baina badirudi, Karlox zenaren emazteak, bera bezain karibetarra izaki, susmo txarra hartu ziola gertatutakoari eta salaketa jarri zion epaitegian. Orduz geroztik zurrumurruak oso fite zabaldu ziren. Jendea oso asaldatuta zegoen eta kaletik gindoazela edozein gauza esate ziguten. Gainera, bi aldiz eraman zuten deklaratzera. Jendeak ez zion hitzik egiten, eta egoera gero eta okerrago jartzen ari zitzaigun. Bat-batean Mari Inex nire bizitzatik desagertu zen. Ni hiru mutikoekin gelditu nintzen. Egia esan behar badizuet ez nuen bere hutsunea gehiegi sumatu, nik lehen bezala, hau da, dena egiten jarraitu bainuen, lana etxetik kanpo eta lana etxean. Inoiz gehiago ez dut Mari Inexetaz ezer jakin. Oraintxe ere, ez dakit Santo Domingora itzulia ote den edo hor nonbait dabilen ni bezalako beste ergel bat engainatzen. Larrutik ordaindu dut hogeita hamabost urterekin sumatu nuen ezkontzeko beharra. Bai, alajaina!

AMATXIREN HAUTSAK

Hiru urte baziren Fernantxo Urtizberea hilda zela eta Axun bere emazteak garai bateko grina berberaz maite zuen, maite eta oroitu, beti bere ondoan, bere gainean sarritan, eramaten baitzuen senarra zenaren errautsak gordetzen zituen kaxatxoa. Egia erran behar bada, erran dezagun kaxatxoa ez zela ez handia, eta ez astuna, txol eramangarria baizik eta honek bide ematen zion Axuni mandatuak egitera irteten zenean, erosketako poltsan, berekin batera eramateko; horrela garai zaharretan bezala, Fernantxorekin batera paseatzen ari zela iruditzen baitzitzaion. Aunitzetan solasean aritzen zen berarekin bizirik balego bezala.

- Oroitzen al duk Fernantxo, nola ibiltzen ginen elkarrekin karrika honetan, goiti eta beheiti, eskutik helduta? Ederki pasatzen genian, Joxeren ostatuan sartuta eta txakolin bana edanez. Mutturra pixkot berotu eta martxa, berriro ere. Oraindik ere, gauza bera egiten diat, ostatuan sartu, bi txakolin eskatu, eta biak zurruputzen ditiat hire oroimenez. Ohitura zaharrak ez ditun galdu behar. Bai horixe! Hik beti hori bera erraten hidan, eta horretaz oroitzuz, egiten diat horrela. Egia erran behar badiat, mutturra lehen baino pixkot gehiago berotzen zaidak, baina berdin duk, ez diat gero autoa gidatu behar. Gure automobil zaharra hortxe zagok aparkatuta, hik utzi huen etxe aitzineko ber lekuan. Eta nik gida-baimenik ez dudanez, hor segituko dik, arunt herdoildu arte.

Lehengo batean gutun bat igorri zidatean udaletxetik autoaren ez zakiat zer zerga ordaindu behar nuela erranez. Azala behar! Beraiek ederki zakitek nik ez dudala gure autoa mugitu ere egiten, eta hala eta guztiz ere, ordaindu behar. Erotu dituk. Igandean, mezatik ateratzean, topo egin nian Errotazaharreko Margarirekin, badakik Joxe Mari alkatearen ama, eta ederrak bota nizkioan. Bera ere ez zuan isildu. Horren mihi gaiztoa! Sugearen miztoa zirudik. Baina ez ezak pentsa ni kikildu ninduela. Badakik hik sobera nolakoa den hire Axun, onean ogi puska, baina txarrean... infernuko Patxi baino gaiztoagoa. Azkenean, oilaloka baino harroagoa jarri zenez, nire poltsarekin kolpetxo batzuk eman behar izan nizkioan buruan eta besoetan, apaltzeko pixkot, badakik. Eta poltsan hire errautsen kaxatxoa neramanez, arrautza ederra egin nioan kopeta erdian. Haren garrasiak! Gaiztoa duk, badakik. Halako batean, On Fermin erretore berberak elizatik aterata, banatu behar izan gintuan. Horri eskerrak, bertzenaz, orain kopetan kankarreko bakarra eduki beharrean, lauzpabost edukiko baitzituen.

Bai, Axunek beti zeukan buruan bere Fernantxo maitea eta poltsan, alde batetik bestera, beti berekin zeraman kaxatxoak bakardadeko momentuak gaintitzen laguntzen zion, baita gero eta handiagoa zuen alzhemerraren gorabeherak eramaten ere. Zeren eta Axun bakarrik bizi baitzen. Hiru seme-alaben ama zen, bi mutil eta neska bat. Antton semea Kaliforniara joana zen bere emazte eta bi semetxoekin. Urteak ziren Euskal Herrira etorri gabe zela. Extanix, berriz, mutilzaharra zen, eta Iruñean egiten zuen lan eta bizi. Hori dela eta, hagitx gutitan egoten zen amarekin. Hori bai, astero, larunbatean, dei egiten zion bere osasunaz galdezka. Eta Kontxita alaba, klausurako moja sartu zen Arizkungo komentuan. Beraz, Axun gureak senarra zenaren errautsekin solas egin behar, ezinbertzean.

Egun hartan, ilunabar orotan egiten zuen paseoaren bueltan etxera iristean gutunontzia zabaldu zuen eta Ameriketatik bidalitako eskutitza topatu. Bihotzaren taupadak azkartu zitzaizkion, zale. Anttonen karta ote? Esku dardaratiz zabaldu zuen eta irakurtzeari ekin zion artega eta urduri. Bai, Anttonen letra zen!

Ama, zer moduz zaude? Hau jasotzean beti bezain ongi eta osasuntsu egonen zarela espero dut. Gu ere aski ongi gaude. Iñaki semeari azken hortza jausi zaio dagoeneko, eta gizontto bat egina dago. Mikeltxo ere handixko daukazu. Biek gogo handia dute zu ikusteko. Hori dela eta, bi hilabete barru, hau da agorrilean, Euskal Herrira joanen gara lauok zurekin egotera. Laura emazteak dagoeneko, hegazkinerako txartelak erosita dauzka. Prest itzazu gure gelak, berehala zurekin egonen baikara. Zaindu ezazu zure burua. Musu handi-handia zuretzat. Agorrileko lehen igandean Berako gure etxean izanen gara. Sarri arte. Antton, Laura, Iñaki eta Mikel.

Axunen begiak negar malkoz blaitu (9) ziren eta momentu zehatz horretatik gelak garbitzen eta etxea txukuntzen hasi zen. Etxea herriko eliza baino garbiagoa zeukan.

Hilabeteak igaro ziren eta azkenean, agorrileko lehen igandean, eskutitzean agindu bezala, taxi batean iritsi ziren Axunen etxeko ateraino. Tik-tak baten denak taxitik kanpo zeuden, maletak eta fardelak eskuan. Anttonek atean jotzeko imintzioa egin zuen, baina une horretan etxeko atea zabaldu zuten barrutik.

- Ene, iritsi zarete! Hau kolore ederra dakarzue! Eta muttikoak, zein politak! – denei musua emanez– baina sartu, sartu denak barrura!

Barrura sartu eta....

- Baina, baina... zein daude hemen! – Anttonek ustekabeak jota– Extanix eta Kontxita anaia-arreba berberak, enee!

Besarkadak eta musuak etengabe errepikatu ziren, eta izan, izan ziren malkoak guztien masailetan zirristan.

- Baina Extanix, hi ez al hintzen Iruñean? – Anttonek.

- Bai mutil, baina amak dei egin zidaan zuen etorreraren berri emateko eta berehalaxe hurbildu nauk. Beti bezala hago Antton, hiretzat urteak ez dituk pasatzen.

- Txorakeriarik ez erran mutil, begira ezak nire burua, ipurdia baino soilagoa zaukaat – eta arrebari begiratu– Eta hi Kontxita, ez al hintzen komentuan?

- Bai Antton, zortzi urte zeramatzat atera gabe, baina amak dei egin zidanean zuen etorreraren berri emateko, ama-nagusiarik kontatu nioan eta berak ustekabean baimen berezia eman zidaan gaur hona etortzeko eta zuekin bazkaltzeko. Berak ekarri naik autoz honaino eta arratsaldeko lauretan kafea hartzera etorriko duk, ondoren zortziak aldean edo, ni Arizkunera berriro eramateko.

- Zer zaukan, hik komentutik alde egiteko beldurra ala? – moztu zion Axunek, bertan zeuden guztion barreak eta algarak sortaraziz.

Maletak eta fardelak logeletan utzi ondoren hor ibili ziren denak hizketan, harmonia ederrean. Bitartean, Axun sukaldean bazkaria egiten aritu zen. Kontxita alabak ez zion asko lagundu, badakizue moja-jantzia zikintzeko beldurra edo. Axun sukaldari ona izana zen, baina urteak ziren ez zuela horrelako bazkari handia prestatzen. Dena den, familia bilduta ikusteak indarberritu zuen eta hor ari zen jo eta ke sukaldeko zokoan. Senarra zenaren kaxatxoa bere aurrean jarri zuen, ohitura zuen bezala. Halako batean, eta nahigabea, mugimendu bortitz batez kaxatxoa lurrera bota zuen. Kankarreko handia izan zen eta horren ondorioz kaxatxoa zabaldu zen Fernantxoren errautsak sukaldeko zolan barreiatuz. Axun gaixoa! Hiru urtetan senarraren errautsekin paseatuz eta horrelakorik inoiz gertatu ez. Amorrua eta pena sumatu zituen bere baitan loratzen, baina familia bilduta zeukan, urte luzetan lehen aldiz, eta horrek gertatutakoa erlatibizatzen lagundu zion. Erratza eta pala hartuta zola eskobatu, errautsak bildu eta berriro kaxatxoan sartu zituen. Hori bai, tapakia guztiz txikituta zegoenez, jarri gabe utzi behar izan zuen.

Zer eginen dugu, bada? – pentsatu zuen– Seme-alabak eta bilobak berriro joatean konpontzera eramanez dut. Axun konformidade handiko emakumea zen eta oraingoan ere, horrela erakutsi zuen. Gertakizuna nolabait ahantzi eta bazkariarekin jarraitu zuen buru-belarri.

Ordu baterako, denak mahaiaren inguruan eserita zeuden. Ordurako Axunek bazuen dena prestatuta eta mahaiaren paratuta. Kontxitek, zeremonia handiz, mahaiaren bedeinkatu zuen. Huraxe zen denek itxaro zuten seinalea, eta otoitza bukatu bezain pronto, jateari ekin zioten gogo handiz. Axunek bere esku ona erakutsi zuen, berriro ere.

- Hagitz goxoa ama!

- Hau sukaldaria, hau!

Horrelakoak zeuden denen mingainetan. Kafearen eta patxaranaren orduan, euskal kantuek solasari hartu zioten txanda. Hura giroa, hura buila!

Axun sukaldaria sartu zen zerbaiten bila eta denen harridurarako negar-zotinka, guztiz deskontsolatuta ateratu zen.

- Baina ama, zer gertatzen zaizu orain? – galde egin zion Anttonek arras harriturik.

- Ai ai ai.... bazkaria, ai ai ai! – erantzun zion Axunek negar malkoen artean.

- Hagitz goxoa zegoen ama, hagitz goxoa! – erantzun zioten denek batera.

- Bai, baina zuen aita, ai ai ai....! – Axunek.

- Ama, uztazu orain aita lasai ederrean. Badakigu hemen, gure artean bizirik ikusi nahiko zenukeela... baina baita guk guztiok ere. Jaungoikoak berekin eraman zuen eta guk, errezatu, bertzerik ezin dugu egin – Extanix semeak.

- Ai ai ai, ez da hori, aitaren errautsak, bazkaria...., ai ai ai, zer egin dut nik buru txar honekin? Ai ai ai...! – Axunek.

- Zer diozu ama? – Anttonek, aztoraturik, aulkitik altxatuz eta berarengana joanez– Zer diozu bazkariak eta aitaren errautsez? – mesfidati.

- Ai ai ai, hau burua nirea! Hau nahastea! Ai ai ai! Goizean bazkaria paratzen ari nintzela kaxatxoar erori eta tapakia hautsi egin zaio. Nik lanean segitu dut eta orain konturatu naiz bazkarira Ezpeletako piper-hautsa bota beharrean zuen aita defuntuaren errautsak bota ditudala, ai ai ai, hau buru txarra nirea! Eta gainera kaxatxoan ez da ezer gelditu, nire senarrik gabe gelditu naiz betiko. Ai ai ai, hau atsekabea!

Hori entzun bezain laster den-denak altxatu ziren supituki.

- Hau nazka, gure aita jan dugu! Hau sakrilegioa! – oiher egiten zuen Kontxitak.

- Komuna, non dago komuna, goitika egin behar dut eta! – Anttonen emazteak ahoa eskua estaliz.

Dena zen garrasi eta desesperazioa Axunen etxean. Batzuk komunean eta arraskan zeuden oka egiten, besteak besaulkietan etzanda. Momentu horretan iritsi zen ama-nagusia kafea hartzera.

- Baina zer da hau? Zer gertatzen da hemen? – Axuni begira.

- Nire errua izan da ama-nagusia, bazkaria egitean piper-hautsa eta nire senarra zenaren errautsak nahasi baititut.

- Eneee! Holakoa entzun behar! – aitarena eginez– Orduan zure familia osoa pozoitu duzu?

- Nahi gabe izan da, nahi gabe. Eta zer egingen dut nik orain nire senarraren errautsik gabe? Norekin egingen dut solas? Ai ai ai! – Axunek.

- Zer solas eta zer solasondo Axun! Erotu al zara? Hemen egin behar dena da anbulantziari deitu denak ospitalera eraman ditzaten.

- Berorrek deitu beza! – erran zion hasperenen artean, besaulki batean etzanda zegoen Kontxita goitatuak.

Ama-nagusiak egongelako bazter batean zegoen telefonoa hartu eta anbulantzia bat eskatu zuen. Hogei minutu barru etxeko atari aurrean zegoen eta ordu erdi bat beranduago denak Irunen,

Bidasoaldeko ospitalean, guztiei sabel-garbiketa egiteko zain. Zorionez, ez zen ezer gehiago gertatu eta hogeita lau orduren bueltan denak Berara, Axunen etxera bidali zituzten.

Lau egun beranduago Anttonek eta bere familiak Kaliforniarako hegazkina hartu zuten. Hegazkinean zeudela gertatutakoaren oroitzapenak trumilka zetozkion Anttoni, eta ezin zuen gertaera desatsegin hura burutik kendu. Bitartean, Bortzirietan, Berako etxean, Axun gaixoa paseatzen ari zen, egunero ohitura zuen bezala. Joxe Mariren ostatuan sartu eta bi txakolin eskatu zituen. Esku dardaratiz hartu eta basoak tik-tak batean zurrupatu zituen eguneroko erritualari jarraiki honakoa erranaz: Hire oroimenean Fernantxo!

ARGALTZEKO BOTIKA BERRIA

Aguxtina neska ederra zen, baina ederra kilotan, erraldetan hobeto esanda. Betidanik izan zen oso neska jatuna, jale ona, onegia sarritan, eta hori larrutik ordaintzen zuen, ehun eta hogeiki kilo inguru baitzituen. Hogeita hamabi urte zituen arren, zaharragoa zirudien eta bere bizimodua arrunt mugatua zeukan, gehiegizko kilo horiek ez baitzioten bakerik ematen. Langabezian zegoen eta nahiz eta ikasketen aldetik ongi prestaturik egon, petrokimikan lizentziatua izanik, oraindino ez zuen bere lehen lana lortu. Berarekin lizentziatu ziren guztiak, nahiz eta kalifikazioen aldetik apalagoak izan, lanean ari ziren zegoenekoz; bera zen lanik gabe zegoen bakarra.

Kurrikuluma bidaltzean, edota telefonoz harremanak finkatzean leiho guztiak zabaltzen zitzaizkion arren, aurrez aurreko elkarrizketaren ordua iristean, beti atzera botatzen zuten, edozein argudio emanez, baina Aguxtinak ondotxo zekien zein zen benetako arrazoia: bere gainkarga. Hori zela eta, hamaika aldiz saiatu izan zen argaltzen. Hamaika dieta egin zituen irtenbide bila, baina ez zitzaion inoiz ongi atera. Behin Hong-Kong-etik etorritako mediku txinatar bat gomendatu zioten, eta diru dezente eman ondoren, akupuntura saioen bidez hogeita hamabost kilo galdu zituen. Haren poza! Baina hurrengo bost hilabeteetan galdutako guztia berreskuratu zuen, gehi hamar kilo gehiago. Hura desesperantza!

Aguxtinak apetitu handia zeukan, ikaragarri handia, eta edozein otordutan bi edo hiru lagunek jaten zuten hainekoa sartzten zuen barrura. Gainera, beti goseak zegoen, eta ordurik errespetatu gabe, bere eskuetan erortzen zen guztia irentsi egiten zuen. Zenbat eta olio edo koipe gehiago, hobeto gainera. Askotan ohetik jaikitzeke zailtasunak izaten zituen eta bere ama-alargunak lagundu behar izaten zuen. Zazpigarren solairu batean bizi zenez, kalera jaisteko edota etxera igotzeko, igogailua zuen derrigorrezko tresna, baina hau ere estu samarra egiten zitzaionez gero, bereak eta bi igaro behar izaten zituen bertara sartzeko eta irteteko. Bizilagunak beldur zeuden berarekin batera igogailuan sartzeko eta nahiago izaten zuten itxoitea berarekin igogailuan bititza arriskatzea baino. Gainera, Aguxtinarekin zama zela eta, igogailua behin baino gehiagotan matxuratu egiten zen, eta zenbait bizilagunek protesta egiten zuten konponketaren faktura ordaindu behar izaten zutenean. Bere ohea berezia zen, eta sostenguko egitura eta hankak burdinazko piezez indarturik zeuden. Koltxoak izaten ziren Aguxtinak zituen beste arazoetako bat, guzti-guztietan zulo ikaragarria, kraterra hobeto esanda, egiten baitzuen erdi aldean. Autoetako edota autobusetako ateetatik sartzeko larri-larri ibiltzen zen eta bere neurriko arropa erosteko zailtasun handiak zituen. Askotan amak egin behar izaten zion arropa neurrira.

Behin, duela zenbait urte, bere ama Maddalenekin batera, Argentinara joan zen han bizi duten lehengusu baten ezkontzara, eta hegazkinean arazo larriak eduki zituen. Alde batetik, bi eserleku ordaindu behar izan zituen beretzat, eta bestaldetik, beste bidaikideen mesfidantzazko begiradak jaso behar izan zituen. Okerrena izan zen ekaitz batek hegazkina ozeanoaren gainean astindu zuenean, hor ibili baitzen goiti eta beheiti, bidaiarien beldurrezko garrasiak sortaraziz. Behera egiten zuen bakoitzean, beste bidaiari guztiak gorrotzko begiratuak zuzentzen zizkieten errua berea bailitzan; eta garrasi gehien egiten zuen emakumeetako batek ozenki esan zuen beste guztiak horretara animatu nahian edo: Hipopotamo hori hegazkinetik kanpora bota behar dugu, bestela denok akabatuko gaitu! Zorionez, hitz horietatik denbora gutxira atertu zuen, eta

Aguxtinak bidaia bukatu ahal izan zuen, ozeanora paraxutaz jauzi egin gabe. Hura larrialdia, enee!

Beste behin, zaldiz ibiltzera joan zen bere lagunekin. Primeran pasa zuen, baina handik zenbait egunetara zalditegiko nagusiak dei egin zion telefonoz, zaldia, bera eramaten egindako gain-esfortzua zela eta, lehertu zitzaioela esanaz, eta okerrena, bere balioa eskatuz. Aguxtinak ez zion ordaindu nahi izan, noski, baina gizonak epaitegietara jo zuen eta azkenean, epaileak biak errudun jo zituen gero, erdi bana pagatu behar izan zuten. Ez dago justiziarik!

Aguxtina arrunt desesperatuta zegoen. Horrela ezin zuen jarraitu. Adiskideek Aguxtina izenez deitu beharrean, Aguxpotamus deitzen zioten, eta honen bihotz potolo bezain sentiberak ezin zuen horrelakorik jasan. Aunitzetan bere buruaz beste egitea pentsatu bazuen ere, azkenean beti ideia hori baztertu behar izaten zuen arrazoi beragatik: nork ordainduko zuen bere gorputz lodikotea sartzeko beharrezkoa izango zen hilkutxa erraldoia? Bere ama gaixoa ez zegoen horrelako gastuetarako, eta berak, langabezia egonik, ez zuen aurreztutako sosarik. Beraz, beste zerbait pentsatu beharko. Horietako egun aspergarri batean norbaitek telefonoz dei egin zion.

- Rinn, rinn, rinn!
- Bai nor da? – galdetu zuen Aguxtinak telefonoa belarrian jarritz.
- Aguxpotamus Kristina naun, zer moduz hago?
- Orain arte ongi, baina bota didanan loreak ondoeza sortu zidan, lorea baino gehiago astokardabera baitzirudien.
- Barka ezan Aguxtina, badakin ez dinadala intentzio txarrez egiten, jende guztiak horrela deitzen dinanez, niri tarteka ere, joan egiten zaidan. Barka iezadan, ez zunan nire asmoa hi iraintzea. Gainera, hi laguntzeko deitzen dinat.
- Ni laguntzeko? Ederra izango dinat orain ere, seguru. Lagundu nahi izan hidan azkenekoan, larrutik ordaindu behar izan ninan. Hator neska, hator gurekin txalupaz ibiltzera, eguzkiak eta itsasoko haizetxoak on eginen dinat eta! – esan hidan, eta gero....
- Nik zer kulpa zaukanat hire kargaz txalupa irauli izanaz.
- Txalupa irauli eta isun ederra ordaindu behar! – Aguxtinak, oroitzapen txar hark biziki aztoraturik.
- Aguxtina ez gaitzen haserretu, oraingoan ez dinat uste antzekorik gertatzeko arriskurik izango denik, eta gainera hire bizitza beste bide batetik eramateko lagun diezanake.
- Zer nahi dun orain, ni moja misiolaria sar nadin eta Afrikara beste hipopotamoekin batera bidal nazaten ala?

- Ez izan txotxolo, neska! Nire lehengusina Mertxeri gertatutakoa kontatu nahi dinat.
- Zein lehengusina? Nire itxurako neska hura? – Aguxtinak, harrituta.
- Bai berbera – Kristinak, animosoago– Jakingo dudan bezala, ehun eta hamabost kilo inguru pisatzen zinan duela lau hilabete...
- Bai eta? – moztu zion Aguxtinak jakin-minak xaxaturik.
- Ba, orain, hirurogeita hamabi kilo, besterik ez din pisatzen.
- Zer dion? Gaitzak harrapatu al du ala?
- Ez, ez Aguxtina. Ezagutzen al dun herrira etorri den sendagile berria?
- Nor? Txinatar akupuntura-egile hori dion? – Aguxtinak, igarotako esperientzia txarra oroimenetik kendu nahian.
- Ez, ez, neska! Angulo doktorea – Kristinak, haserre itxuraz.
- Eta zer egin dio sendagile horrek Mertxeri horrela argaltzeko, angulekin dieta bat eman ala?
- Ez izan txolina Aguxtina, horrelako astakeriarik ez esan, bestela ez dinat deus kontatuko.
- Ondo zagon, ondo zagon. Ez dinat gehiago moztuko. Segi, segi ezan! – Aguxtinak, bakea egin nahian.
- Mertxe nire lehengusina hi bezain desesperaturik zegonan, dieta guztiak probatuta, akupuntura eginda, eta inolako itxaropenik gabe. Baina herri guztiak dakien bezala, bere bizilaguna den Beñardo tabernariaz gustatzen dun, baina horrelako flotagailuarekin ezin izan din inoiz hurbiltzeko ausartu ere egin. Azkenean, ezinezko amodio horrek bultzaturik eta bere lagun baten aholkuei jarraiki, herrira etorri den mediku berriarengana joan zunan. Honek, berak egiten dituen pilula batzuk eman zizkionan eta lau hilabetetan miraria egin dun. Orain Beñardorekin ateratzen hasi dun eta dagoeneko ezkontzaren eguna finkatua zaukaten.
- Eneee! Egia al da Kristina? Edo jostatzen ari haiz nirekin?
- Egia Aguxtina, egia berdaderoa.
- Emakidan bada, mediku mirari-egile horren telefono zenbakia eta oraintxe bertan deituko zionat. Hau da, hau!

Hurrengo egunean, goizeko lehen orduan, kontsulta zabaldu bezain pronto, han azaldu zen Aguxtina Angulo doktoarenean. Gizon atsegina zen. Aguxtinak azaltzen ziona entzun ondoren,

pilulen kaxatxo bat eman zion. Haren prezioa! Eskuan hartu bezain laster hotz-hotza zegoela sumatu zuen. Orduantxe medikuak esan zion:

- Anderea, gorde ezazu beti kaxa hau hozkailuan, tratamendua bukatu arte, eta har itzazu bi pilula eguneko, bat bazkaldu ondoren eta bigarrena afalostean.
- Eta dietarik ez al dut egin behar? – galde egin zion Aguxtinak, txol harriturik.
- Ez, ez, ez duzu beharrezkoa. Hori bai, ogirik ez jan tratamendua egiten ari zaren bitartean, beti lagunduko dizu eta! – erantzun zion doktore jaunak.

Aguxtina txoriak baino alaiago joan zen Angulo doktorearen kontsultatik. Egun berean hasi zen tratamenduaz. Egunetik egunera argalago, lirainago zegoen. Laugarren hilabeterako Mertxe baino argalagoa zegoen. Zegoenekoz, inork ez zion Aguxpotamus deitzen, igogailuan beste pertsonekin batera sartzen zen, eta mutilak berarekin erreparatzen hasita zeuden. Aguxtina poz-
pozik zegoen, alegera oso, harro bere buruaz. Arropa berriak erosi zituen, eta kalean izterrak eta zilborra erakutsiz, azken modan, zebilen. Hilero bi kaxatxo erosten zizkion Angulo doktoreari. Inoiz, bere bizitza osoan, ez zuen tratamendu batean horrelako dirutza gastatu, baina emaitzak begi-bistan zeuden. Merezi zuen, nahiz eta horren garestia izan.

Laugarren hilabetez zegoen eta erdi aldean azken kaxa erosi zuen. Behin, lagunekin hondartzara joateko korrika zebilela, bazkalondoko pilula mahai gainean ahantzi zuen. Arratsalde luzea izan zen, eguzki ederra zegoen zeruan eta hondartzan eman zuen denbora luze, hondartzan eta Joan Mari mutil-lagunaren besoetan. Etxera, gaueko hamarrak aldean itzuli zen. Dutxa beroa hartu zuen gesala gorputzetik kentzeko, eta afari-mokadua prestatzen hasi zen. Orduan ikusi zuen mahai gainean ahaztutako pilula, baina hura ustekabea! Pilularen oskola arraildua zen eta bertatik erdi aterata, zizare nardagarri (9) moduko bat. Hura nazka! Eta hori al zen bera irensten ari zena? Pentsatze hutsak goragalea eragiten zion. Koilara baten laguntzaz poto ttiki batean sartu zuen eta hurrengo goizean, atari ondoko botika-dendara eraman zuen. Bertako nagusia bere lagun handia zen. Horregatik, farmazian sartu bezain laster, potoa poltsatik atera eta mostradore gainean jarri zion horrela esanaz:

- Egunon Maribel! Zizare nazkagarri hau topatu dinat Angulo doktoreak argaltzeko emandako pilula batean. Esango al hidake zer den? Begira iezaion ongi mesedez, ea ezagun egiten zainan.

Maribelek Aguxtinak esan bezala egin zuen. Potoa eskuan hartu eta aztertzeari ekin zion plastikozko zipotz baten laguntzaz. Berehalaxe begiak zabal-zabalik jarri zitzaizkion eta totalka, eta nazka aurpegia jarri, honela erantzun zion:

- Aguxtina, ez didan sinistuko, baina ekarri didanan zizarea tenia edo bakartia dun!!!

SENDAGILE IRUZURTIA

Denok dakigu zein gogo handiz jakin nahi izaten dugun gurasook zein den jaiotzeaz dagoen gure umearen sexua. Denok Berdin zaigu zer den! esaten dugun arren, gure bihotzeko sakon-sakonean honela diogu: Nik mutikoa nahiago!!! edota nik neska nahiago!!! Gaur erraz samarra badaukagu ere, ez zen horrela duela hogeita hamar urte inguru, eta orain kontatuko dizuedana orduan gertatu omen zen.

Irunen ba omen zegoen jaio beharreko haurren sexua izugarri ongi igartzen zuen medikua eta Periko eta Margari senar-emazte gazteak berarengana joan ziren Margarik barruan zeraman umearen sexua jakin nahian. Perikok mutikoa nahi zuen eta Margarik, aldiz, neska, bere ahizpak uzten zizkion arropatxo guztiak arrosa kolorekoak zirelako. Kontsultan zeuden zain.

- Aizu Periko, zuri zer iruditzen izango dela?
- Nik mutikoa nahi dut, familiaren negozioan aritzeko.
- Ba nik gustu handiz hartuko nuke neska polit bat, nire ahizpak utzitako arropatxoek ondo emango bailiokete.
- Margari, ez kezkatu hainbeste arropaz, mutikoa bada, arropa urdina erosiko diogu eta kito!
- Bai, badakit, baina arrosaz jantzitako neska bat nahiko nuke nire besoetan bularra hartzen.

Momentu horretan atea zabaldu zen eta erizainak barrura sartzeko esan zien:

- Sartu, sartu, zuen txanda da eta!

Sartu eta sendagileak mahaiaren beste aldean esertzeko erregutu zien:

- Eseri, eseri hemen!

Margari eta Periko agindutako aukietan eseri ziren eta medikua berehalaxe hasi zitzaien galdezka.

- Beno, zertara etorri zarete?
- Gure umea zer den jakitera – erantzun zion korrika eta presaka Margarik.
- Ba hori aski erraza da. Etzan zaitetz ohe horretan eta altxatu atorra auskulta zaitzadan.

Margarik agindutakoa egin zuen eta sendagilea hor ibili zitzaion aurikularrak toki batean eta bestean jartzen. Zenbait minuturen bueltan honela esan zien:

- Mutikoa da, mutiko bikaina! – eta hori esaten zien bitartean bere kontsulta-liburuan idatzi zuen: neska. Gero, Periko eta Margariri begiratu, berriro esan zien– mutikoa da!

Kalean zeudela Perikok arrunt tristea zegoen emazteari:

- Garestia izan da oso, baina merezi izan du.
- Bai, mutila dela esan digulako – Margarik, amorrua ezin disimulatuz.

Hileak igaro ziren, Margarik arropatxo arrosak ahizpari itzuli zizkion eta horien ordez, beharrezko guztia urdin kolorekoa erositako zeukan. Kontuak pasatuta ziren baina umea ez zen etortzen. Egun hartan bero sargoria egiten zuen eta Perikok zinera gonbidatu zuen Margari. Zine-aretoa fresko-fresko zegoenez, Margari eta Periko oso gustura egon ziren filma ikusten. Arropa arinarekin eta espartinekin zeuden biak. Ateratzean oinez abiatu ziren etxe aldera. Bat-batean, urrutiko tximistak eta trumoiak hasi ziren, eta berehala gainean zeukaten udako ekaitz handi horietako bat. Euria gogotik bota zuen bost bat minutuz eta gero eguzkia itzuli zen. Margari eta Periko blai zeuden. Horietako batean:

- Badator, badator... Periko badator!
- Zer esaten duzu Margari?
- Trumoiak haurra deitu duela eta urak botatzen hasita nagoela – Margarik, guztiz nerbiostuta.

Eskerrak taxi bat handik pasatzen zela, gelditzeko keinuak egin zizkieten eta berehalaxe ospitalera iritsi ziren. Ordu erdi bat beranduago Periko eta Margari guraso ziren.

- Baina, baina... neska da! – Perikok, guztiz harriturik.
- Ai ama, ai ama! eskatu beharko dizkiot, berriro ere, arropatxo arrosak nire ahizpari! – Margarik, txoriak baino alaiago.

Baina Periko ez zegoen bat ere konforme gertatutakoaz, eta hurrengo egunean sendagilearengana jo zuen azalpen bat eskatzera. Bere kontsultan sartu orduko gertatutakoa kontatu zion haserre asko. Sendagileak bere kontsulta-liburua zabaldu zuen, egindako bisitaren datan begiratu, eta gero Perikori erakutsi zion irakur zezan.

- Zer idatzi nuen nik hemen? Irakur ezazu mesedez!

Eta Perikok, sendagileak esan bezala, irakurri zuen:

- Neska, neska!!!

PINTXO GOXOAK

Ostiral ilunabarra zen eta ostiralero egiten zuten legez, lagun koadrila trukean ari zen herriko ostatuan. Asier eta Ander Koldo eta Iñigoren aurka. Bizpahiru partida egin ondoren kafea eta koparen tenorea iritsi zitzairen. Momentu horiek izaten dira hitz egiteko onenak, kontu zaharrak astintzeko bidea ematen dutenak, eta ostiral ilunabar hartan horrela gertatu zen. Iñigo berritsua izan zen hitz aspertuari abiapuntua eman ziona.

- Ba al dakizue behin, Iruñeko San Ferminetan gertatu zitzaidana?
- Oraindik ez, baina segituan jakinen dugulakoan nagok! – Asierrek, purua ahotik kenduz.
- Bai motel, kontu iezaguk, seguru hire xelebrequerietako bat izanen dela. Kontu ezak motel! – Koldok, kopaxka ezpainetara eramanez.
- Bai, kontu ezak Iñigo, kontu ezak! – Anderrek, Iñigok kontaktzen ohi zituen kontuetako bat entzun nahian– Tira, tira, bota ezak!

Eta horrela, bere lagunek bultzaturik, hasi zen Iñigo kontu-kontari, tarteka koñaka ahora eramanez.

- Badakizue urtero San Ferminetarako Iruñera joaten naizela, eta han ibiltzen naiz goizez entzierroz entzierro, arratsaldez tabernaz taberna eta gauzez neskaz neska, horixe izaten da urtero egiten dudana plana.
- Nahi bai! – bota zion Asierrek irribarretsua.
- Nahi eta egin, Jaungoikoa dagoen bezala! – zuzendu zitzaion Iñigo haserre antzera.
- Bai motel, hik segi ezak kontaktzen, sinisten diagu eta! Koldok istorioa aditu nahian.
- Hik segi! – Asierrek– egia baduk kontaktzekoa daukaana ongi, eta hire asmakizuna baldin baduk, okerrago hiretzat! Guk berdina-berdina adituko baitiagu.
- Aizue, zuena inbidia, besterik ez da, lauon artean ni izaten bainaiz gehien ligatzen duena! – Iñigok, bere burua defendatu nahian.
- Afanoso halakoa! – Koldok– Agian ederrena hi izanen haiz, agian, baina gehien ligatzen duena...! Hori beste fandangoa duk!

- Hara, oraintxe atera dituk Koldoren fandangoak! – Iñigok– baina zer fandango eta zer fandango-ondo. Nik San Ferminetan behin gertatu zitzaidana kontatu nahi dizuet, besterik ez!

- Tira, tira bada! Sobera dakik txantxetan ari garela. Ez hadi haserretu!

– Anderrek, bakea eginez.

– Beno, berriro lehengo kontura itzuliz – Iñigok, lehen baino gogo handiagoz– San Ferminetan nengoen gau bero haietako batean, neska ilehori eder bat ezagutu nuen. Suediarra zen, eta bero-bero eginda zegoen. Susara zegoela zirudien eta ni bezalako arra bilatzen zuen bere gosea asetzeko.

- Bai hire piura ikusita! Kar-kar-kar! – moztu zion Koldok, barregura ezin kontuz.

- Ez hadi hasi astapito hori! Utz iezadak bukatzen! – Iñigok, atzamarren artean zeukan purua amorrazio handiz estutuz– Bai ba, bero-beroa zegoen eta bere hotelera gaua pasatzera gonbidatu ninduen. Hura zen behor-puska, hura! Ni, zuek ederki dakizuen bezala, ez naiz inoiz neskak zain uzteko gai izan, eta gehiegi pentsatu gabe baietz esan nion. Eskutik helduta hotelera eramane ninduen. Hotelak bost edo sei izar zituen. Hura luxua! Bere gelan geundela, ohean etzan ginen. Hasieran arropa kentzen hasi bazitzaidan ere, laster, nire harridurarako, bere gorputz atalak kentzeari ekin zion. Begi bat kendu zuen lehendabizi, kristalezkoa omen, eta ondoren bularretakoa erantzean, bular ortopedikoak zituela ikusi nuen. Funtzioan hasi aurretik, eroso jartzea gustatzen zait! – ez zidan esan ba!

Nik hura ikusirik, ordurako erantzita nituen prakak berriro jantzi eta azkar baino azkarrago, gelatik alde egin nuen. Neska nire atzetik abiatu zen Itxoin, itxoin!!! esanaz, baina nik zitzu bizian ihes egin nuen gela hartatik.

- Kar, kar,kar! – lau lagunak barrez.

- Ba, istorio honek niri beste bat ekarri dit gogora! – esan zuen Asierrek– Kontatuko dizuet. Behin Donostiako taberna batean lagunekin txakolin bat edaten ari nintzela, hiru neskazahar ikusi nituen mostradore aurrean zerbait hartzen ari zirenak. Barra pintxo beteta zegoen, Donostian bakarrik jartzen duten bezala. Han bazen denetik: txaka, entsalada, antxoilak... Hura edertasuna! Nesketako bat itxuraz txistek kontatzen ari zen, eta beste biak, berriz, gogotik barre egiten. Halako batean, kontatzen ari zen txistea oso ona izan zen nonbait, eta beste biak barrez lehertzen hasi ziren. Hura buila! Horretan ari zirela, horietako neska bati ordeko hortzeria ahotik irten eta entsaladilazko pintxo beteta zegoen azpil batera erori.

- Hori nazka, Asier! – hiru lagunek, higuin keinuak eginez.

- Taberna jendez gainezka zegoen arren – jarraitu zuen Asierrek– momentu hartan isiltasun handia egin zen. Denak begira zeuden. Zerbitzariak biziki haserretu ziren eta nagusia zenak, arrunt asaldaturik, azpilean zeuden pintxo guztiak ordaindu behar zizkiotela azaldu zien. Baina, bai zera! Neskazaharrak ez zeuden horretarako prest. Istripua izan zela zioten eta azkenean, bat ere ordaindu gabe aldendu ziren. Zerbitzariak, hagitz haserre, azpila hartu eta barrura sartu zuten.

- Ondo egina! – moztu zion Anderrek.

- Ixo, ixo Ander, istorioa ez duk hemen bukatzen! Ni han egon nintzen ordubete inguru, Ixiar nesk lagunaren zain bainengoen, eta kontu hau benetan nola bukatu zen ikusi nuen! – Asierrek.

- Segi, segi! – hiru lagunek, bukaera jakin nahian.

Asierrek segitu zuen.

- Gertatutakoa ikusia zuten bezeroetatik ni bakarrik gelditu nintzen. Ordubete hartan bezeroen emaria, hau da, joan-etorria etengabea izan zen eta tabernak beti jendez mukuru jarraitu zuen. Jende zurrunbilo horretan, ederki ikusi nuen nire begi bi hauekin, nola zerbitzarietako batek lehen erretiratutako azpila berriro atera zuen mostradore gainera. Berehalaxe esku bat hemendik luzatu zen, bestea hortik, eta horrela bete-betea zegoen azpil hura zamaz husten joan zen, guztiz hutsik gelditu zen arte.

- Hau nazka! – hiru lagunek.

- Badakizue, ikusten ez duten begiek ez dutela sentitzen! – Asierrek, bere istorioak lagunengan eragindako higuinaz pozik.

- Bai, hala duk, hala duk! – hiru lagunek.

- Ba, nik badaukat beste istorio bat kontatzeko, eta ez makala gainera!
– esan zuen Koldok txanda hartuz.

- Aurrera, aurrera Koldo! Konta ezak! – hiru lagunek aurreko istorioak tripetan sortutako ondoeza ahantzi nahian.

- Badakizue ni ez naizela Iñigo bezain polita eta ligontzia, baina tarteka ere badakit nesketan ibiltzen.

- Kar, kar, kar! – denek.

- Behin, Doneztebeko Bordatxo diskoteka famatuan nengoela, dantza eskatu nion bertan ikusi nuen neska eder bati eta berak eman egin zidan. Nire garaiera zuen, gutxi gora-behera. Dantza ezti bati lotu gintzaizkion, biok pega-pega eginda, eta horrela ari ginen goxo-goxo dantzari. Halako batean, handitzen, handitzen, handitzen hasi zen, niri buru bat inguru atera zidan arte. Nik, nire artean: Baina zer da hau? Ez nuen hura konprenitzen. Gero, ttikitzen, ttikitzen, ttikitzen hasi zen, ni baino askoz ttikiago gelditu zen arte, eta gero danba!!! Soinu bat entzun nuen, neska hura erori bezala egin zen eta nire besoetan gelditu. Lurrera begiratu eta han ikusi nuen zurezko hanka bat luze-luze botata. Kiribil moduko bat bazuen bere goiko aldean, eta badirudi, dantza egitean askatu egin zitzaiola eta azkenean erori.

- Hori porrua sartu nahi diguana! – esan zion Iñigok modu txarrean– Hori sinesteko ikusi beharko litzateke!

Eta Koldok orduan fite erantzun:

- Bai hire neska suediarren kristalezko begiaz!!!

AUTO-STOPeko MOJAK

Sor Inex oso pozik zegoen komentuko ama-nagusiak berarengan jarritako konfiantza zela eta. Gazte samarra zen, hogeita bost urte besterik ez, eta gida-baimena atera berria zuen. Horregatik ez zuen inolaz ere espero berari eskatutako zerbitzua, Sor Bernardina hirurogeita hamabi urteko ahizpa zaharra eraman behar baitzuen Iruñeko komentutik Donostiako ospitalera, On Paulino sendagileak ikus eta senda zezan. Bi aste zeramatzan beherakoa ezin moztuz, eta Arrosario Sainduko mojek itxaropena aipaturiko medikuarengan jarrita zeukaten. Badaezpada ere, pixontzi ederra zeramaten maleta-ontzian premia etorri gero Sor Bernardinaren beharrei aurre egin ahal izateko. Bere eskuinean, kopiloto gisa, Sor Blanka zihoan, hogeita hamazazpi urteko moja sendo eta bizkorra, eta atzeko eserlekuan Sor Bernardina eta bera zainduz Sor Margarita, berrogeita bi urte egin berriak zituen moja alegera eta pinpirina. Sor Inexek erretrobisoretik biak kontrolatzen zituen. Ene, orain ere, Sor Margaritak ezpainak pintatu ditu! Lady Di baino okerragoa daukagu!!!

Sor Inex pozaz gainezka zegoen bolanteari helduta. Ongi gidatzen zuen. Arrosario Sainduko mojak klausurakoak ziren eta gutxitan irteten ziren kanpo aldera, horrelako zerbitzu bereziak egitera ez bazen. Araudi estu-estua zeukaten eta horregatik lauak abitu zuri-nabarrak jantzita zeuden, eta burua ongi estalita. Biziki eguraldi ederra egiten zuen eta eguzkiak indar handiz berotzen zuen. Lau mojak izerdi patsetan zeuden.

- Hau beroa! Hau beroa! – errepikatzen zuen, behin eta berriro, Sor Bernardinak– Zurbil-zurbila zegoen eta bere aurpegi akituan ondoeza nabari zen.

- Hobeto Sor Bernardina, horrela Euskal Herriko zelai eta mendi berdeak lasai ederrean ikus baititzakegu – erantzun zioten besteek, halako ateraldiak eskainitako aukeraz gozatuz.

Belateko tunela igaro berria zeukaten eta aitzina zihoazen, ttipi-ttapa, ttipi-ttapa... betiro hirurogeitik pasa gabe. Auto guztiek aurreratzen zituzten, baita kamioiek ere. Pasatzean, zenbaitek lore ederrak eskaintzen zizkien garrasi ozenen artean:

- Geldi zaitezte komentuan, bidean traba, besterik ez baituzue egiten!!!

- Ez al dakizue lasterrago ibiltzen? Asto zaharra baino lasaiago zoazte!

Baina Sor Inex ez zen asaldatzen. Berak eskaturiko zerbitzua bete behar zuen ahalik eta modurik onenean, eta ezin zuen eroaren gisa ibili, Sor Bernardinaren eta beste bi ahizpen biritza arriskatuz. Tarteka, beste gidarien loreak kardabera baino zakarragoak zirenean, erantzuten zien haserre eskuineko eskuaren hatz erakuslea tentetuz. Beste batzuetan, horrelako garrasi eta bozina-soinuak ez entzuteko “Aita Gurea” kantatzen zuten lauek batera, Easo Abesbatzaren antzera. Hura zen giroa lau mojatxoek euren renault-5 zurian zeramatena, alafede! Bat-batean autoa jauzika hasi zitzairen.

- Zer da hau Sor Inex? – galdetu zioten beste hiru mojek arrunt izaturik.

- Ez dakit, ez dakit! – erantzun zien ikaraz beterik– Badaezpada ere, eskuin aldeko zabaldi horretan aparkatuko dut.

Esan eta egin, zabaldian aparkatu zuen autoa gelditzen zitzaien momentu berean.

- Eneee! Aitaren izenean! Gasolina hartzea ahantzi dut! – bota zuen Sor Inexek hasperenen artean.

- Hau burua Sor Inex? Eta orain zer egingen dugu? – galdetu zion sobera haserre Sor Blanka kopilotoak.

- Auto-stop! zer egingen dugu bada? – gehitu zuen Sor Margaritak ezpainetako irribarrea galdu gabe.

- Ixo, ixo Sor Margarita! Nola egingen dugu auto-stop telebistan ikusten diren gauzekin? – erantzun zion fite Sor Blankak– Eta gainera zure ezpain pintatu horiekin gizonak probokatu, besterik ez dugu egingo. Horixe falta genuen!

- Ba egin, egin beharko dugu, bestela iluna gainera etorriko zaigu eta lo hemen egin beharko dugu, zabaldi honetan! – moztu zien Sor Inexek.

- Eneee, hori ez! Ezta pentsatu ere! – bota zuen Sor Margaritak nazka aurpegia jarrita.

- Sor Inexek arrazoia du! – moztu zuen ordura arte isilik egondako Sor Bernardina zaharrak– Zoazte Sor Blanka eta Sor Inex auto-stop egitera, eta hemen geldituko naiz ni Sor Margaritarekin, ezpain pintatu horiekin gizonezkoen lizun-grina piztu ez zezan! Ale, zoazte lehenbailehen iluna etorri aurretik!

Sor Inex eta Sor Blanka biribiletik atera eta errepidearen izkina batean jarri ziren auto-stop egiten. Halako batean opel-cadett bat gelditu zen euren parean. Gidaria ibilgailutik irten eta beraingana joanez galdetu zien:

- Zer duzue? Matxuraren bat?

- Ez jauna! – erantzun zion Sor Inexek, gorri-gorri eginda eta barnean sentitzen zuen lotsa ezin gordez– Gasolarik gabe gelditu gara.

- Horregatik bada ez kezkatu, nik gasolina-ontzia bete-betea baitaukat. Zenbait litro emanen dizkizuet eta gero bi kilometro barru dagoen gasolindegian beteko duzue zuena.

- Hau poza! Hau poza! – errepikatzen zuten bi mojek batera– Eskerrik anitz Jaungoikoa, gure otoitzak entzuteagatik!

- Baina.... – segitu zuen beste autoko gidariak– ez daukat inongo botilarik. Eta zuek?

- Ezta ere! – ihardetsi zioten penaturik bi mojek– Baina, itxoin, badaukagu baliagarri izan dakigun zerbait. Itxoin, itxoin pixka bat! – esan zuen supituki (9) Sor Inexek.

Renault-5 aldera abiatu zen korrika batean eta bertatik Sor Bernardinaren pixontzia ekarri zuen eskuan.

- Balio al du? – galdetu zuen.

- Balioko ez du bada! – erantzun zion opel-cadetteko gidariak bere harriduratik ezin atereaz.

Pixontzia gasolinaz bete ondoren renault-5 aldera eraman zuen gasolina-ontzian botatzeko. Baina Sor Inexek pixontzia eskuetatik kenduz honela esan zion:

- Eskerrik asko, baina ez kezkatu gehiago gutaz, gelditzen dena guk egingo dugu. Mila esker!

Opel-cadetteko gidariak, mojak agurtu ondoren, bere autoa piztu eta aurrerantz abiatu zen. Orduan hasi ziren lau mojak pixontziko gasolinaz euren erregai-ontzia bete nahian. Pittinka-pittinka ari ziren, tantarik ez galtzearren. Bat-batean, kamioi urdin handi bat pasa zen euren ondotik. Kamioilariak, lau mojatxoak pixontziarekin gasolina-ontzia betetzen ari zirela ikustean, begiak ongi igurtzi zituen. Ezin zuen ikusten ari zena sinistu. Horregatik, burua leihotik atera eta garrasi bizi batez honela esan zien: Hori fedea, hori!!!

BUTANO-BONBONEN ATSO LAPURRA

Aitor izena dut, ezkondata nago eta hiru seme-alaben aita nauzue. Lehen gure gurasoen baserrian bizi ginen baina Marisol nire emazteak Donostiara joan nahi zuen bizitzera, eta horrela egin genuen diru kopuru polita bildu genuen bezain laster. Horrelaxe mendi aldean bizitzetik Amaraberri donostiar auzoko dorre batera aldatu ginen. Marisol pozez txoratzen zegoen, alaba poz-pez egunero hondartzara joaten zelako, bi mutilak txoriak baino alaiago bertako futbol talde batean sartu zirelako, eta ni, zer nahi duzue esatea? baserrian nahiago nuen mila aldiz eraikintzar hartan baino; baina iritzi horretan bakarra nintzenez gero, familiaren nahia onartu behar izan nuen. Horri demokrazia deitzen diote, hau da, gehiengo batek horrela nahi duelako, denok galtzen atera behar. Hau komeria!

Gure etxeak hamaika solairu ditu, eta gu hamargarrenean bizi gara, zerua ukituz. Hau panorama! Dorreak, dorreak eta dorreak nonahi. Hori bai, urrutitasunean Artzain Oneko katedralaren dorrea ikusten dugu telebista-antena askoren artean. Solairu guztietan lau etxe-bizitza daude. Behin, gure dorrean bizi garenon kontatzeari ekin nion eta ikaratuta gelditu nintzen, gure herri osoan baino jende gehiago bizi baita. Ezker-eskuin denetik daukagu, jende jatorra eta jende zaputza, igogailuan eguraldiaz hitz egiten dutenak eta mutur luzea jartzen dizutenak, euskaldunak eta erdaldunak.... Gure ezkerrean familia bat bizi da, senar-emazteak eta bi seme, euskaldunak eta jator samarrak. Eskuin aldean, berriz, amona alargun bat, euskalduna baita ere, baina aski zaputza; inoiz ez digu hitz egiten eta badirudi azken irribarrea lehen jaunartzearen egunean egin zuela, bere gurasoek sekulako panpina ederra oparitu ziotenean. Orduz geroztik, ahantzi samarra dauka behar fisiologiko hori. Senarra igogailuko zulotik erori omen zitzaion, baina mihi gaiztoek diotenez, berak goxo-goxo bultzaturik.

Etxean terraza ederra daukagu eta hor egoten da Marisol, luze-luze etzanda bere hamaka berdean, sugandilen modura, eguzkiaren izpiak ateratzen diren guztietan. Gure solariuma izateaz gain, biltegia ere bada, bertan zabalik dagoen zurezko etxolatxo batean, butano-bonbonak gordetzen baititugu. Terrazak ezker aldean muga egiten du familia jatorraren terrazarekin eta eskuinaldean amona zaputzarenarekin; bi aldeetako muga metro bat inguru duen murrua izaki.

Ezker aldeko familiarekin ez dugu inolako arazorik, baina eskuinaldeko amonarekin munduko guztiak eta bost, gaiztoa eta zitala baita, oso. Egun osoa ematen du terrazan kuxkuxeatzen horretarako propio duen largabistaz. Aunitzetan harrapatu dut mugarri dugun murruan igota guri begira. Ez dauka lotsarik! Hor egoten da senar zenduari zor dion lutua dela eta, beltzaz jantzita, lepotik zapatiletaraino. Euskal sudur luze eta zorrotza dauka, begi ilun biziak eta ilea atzeko aldean bilduta txirikorda handi batean. Herio bera dirudi.

Guri begira egon ez zedin, Marisolek alimaleko lorontzia ipini zuen murru aurrean. Ederra zen eta palmondo itxura zuen. Ederra zela diot, ez zuelako bi hilabete egin, amonak botatzen zion gatza zela eta, berehalaxe ihartu baitzen. Eta gure haurrek buila egiten zutenean okerrago izaten zen, kortxoak edota harrapatzen zuen guztia botatzen baitzien isil zitezten. Sorgin gaiztoa zirudien. Eta okerreza zaborrarena zen! Etxeko zaborra poltsetan sartzen genuen eta ilunabarrean kalera jaitsi, horretarako udalak propio markaturiko tokira. Baina amona, goiz samar oheratzen zen antza, eta bere zaborrak, poltsarik gabe, noski!, egunero botatzen zizkigun gure terrazara guk bildu eta jaitsi genitzan. Askotan ez botatzeko erregutu genion arren, berak entzungorrarena egiten zuen, eta egunero-egunero hor izaten genituen bere zaborrak gure terrazan. Hura ez zen giroa, baina han bizi behar!

Harridura handiz konturatu ginen butano-bonbonak erdi hutsak, edota guztiz hutsak askotan, edukitzen genituela. Hasieran, gure ohitura faltari egotzi bagenion ere, segituan ikusi genuen hor bestelako misterioa zegoela. Guk ostiralero bi bonbona eskatzen genituen, bete-beteak ekartzen zizkiguten, etxolan utzi, eta iganderako, guk erabili gabe, hutsik egoten ziren. Eta horrela hilak joan eta hilak etorri. Hura Koka-kolaren misterioa baino handiagoa zen. Ezker-eskuineko bizilagunek ere, etxola banatan gordetzen zituzten euren bonbonak. Baina nork aldatzen zizkigun gureak? Amonak ote? Ezin genuen sinistu, baina norbait izatekotan berak izan behar lapurra. Nor bestela?

Josetxo lagunak kamera ttiki bat eskuratu zidan eta terrazan ezarri genuen misterioa argitzeko asmoz. Ostiral hartan bi bonbona eskatu genituen eta terrazako etxolan gorde, ostiralero egiten genuen legez. Iganderako, guk erabili gabe, huts-hutsik zeuden. Kamerak grabatutakoa begiratu genuen eta argi eta garbi ikusi genuen nor zen lapurra: eskuinaldeko amona zaputza. Hor, grabazioan, ederki ikusten zitzaion bere arropa beltzaz jantzirik, eta lepo gainean bonbona hutsa zekarrela murrua gure aldera pasatzen. Gero, butano hutsa gure etxolan utziz eta betea hartuz, operazio bera egiten zuen bere terrazara itzultzeko. Eta segituan, denbora galdu gabe, gauza berbera errepikatzen zuen bigarren aldiz, gure bigarren bonbona betea ebasteko. Hura bai andre miserablea! Marisol izugarri haserretu zen hura ikustean eta ertzainei dei egin nahi zien. Nik, berriz, esan nion onena zela hurrengo aldian, zelatan egotea, eta lapurtzen ari zela terrazara atera eta amona butano-ohoina harrapatzea. Azkenean, konbentzitu egin nuen, eta horrela egitea erabaki genuen.

Hurrengo astean, ohikoa egin genuen. Bi bonbona eskatu, bete-beteak ekarri zizkiguten eta horrelaxe ipini genituen terrazako etxolan. Ilunabarrean, bi semeak oheratu ondoren, etxeko argi guztiak itzali eta gure logelan ezkutatu ginen zelatan. Marisolek pertsianaren zirrikitu batetik begiratzen zuen etengabe. Handik ordu erdi batera, grabazioan ikusitakoa errepikatzen hasi zen. Eskuinaldeko amona bonbona huts batekin lepo gainean, murrua saltatu eta gure terrazara pasatu zen, eta gero, etxolara hurbilduz bere bonbona hutsa utzi zuen eta gureetako bete bat hartu.

Momentu horretan, amorrua ezin kontuz, gelatik terrazara irten ginen eta... Lapurra, lapurra, utzi gure butanoa!, hasi gintzaizkion garrasika. Baina amona kikildu beharrean, bonbona betea lepoan jarriz, murrua igotzen hasi zen bere terrazara pasatzeko. Guk, bere atzetik, garrasi egiten genion:

- Lapurra, lapurra, utz ezazu gure butanoa! Utzi gure butanoa!

Gure garrasiek urdurituta edo, ez zuen terrazaren beste aldera pasatzeko egin beharreko jauzia ongi kalkulatu, eta butanoa eta guzti, kalera amildu zen. Hamar solairuak zitzu bizian jaitsi zituen, eta aparkaturiko auto baten gainera erori zen. Eztanda ikaragarri batek auzoko bizilagun guztiak esnatu zituen. Suhiltzaileek, lan nekoso baten ondoren, sugarrak itzali zituzten. Eskerrak ez zuela azpian inor harrapatu! Kaleko zolan egindako krater handiaren barruan auto kiskaliaren arrastoen artean amonaren zenbait gorpuzkin aurkitu zituzten.

Orduz geroztik, hilabete pasatu da eta kalean eztandaren bidez egindako kraterra dagoeneko ez estalita daukate. Gure eskuinaldeko etxebizitza salgai dago eta gu lasai ederrean bizi gara, inork ez baitigu butanoa osten, ez zaborra gure terrazara botatzen, eta ez gure intimitatea largabistaz urratzen. Nik oraintxe ikasi dut kaleko bizimodua bere neurrian preziatzen.

ERDI EUSKALDUNAK

Aita Jaxinto Erkizia misiolari euskalduna zen eta bere fede-lana egitera Afrika Beltzeko kostaldera bidali zuten. Bera poz-pezik joan zen, horixe baitzen duela urte luze itxaroten zuen aukera bere kristau-grina bideratzeko. Horrelaxe, Sondikako aireportutik abiatu zen eta beste zenbait hegazkin hartu ondoren, kanaberaz egindako baltsa moduko batean iritsi zen zegokion Bunbha-Dunbha izeneko misiora. Iristerakoan, bertako guztiak, ehun bat beltz alegia, atera zitzaizkion hondartzatxo batera ongi-etorri beroa ematera. Gehienak, bai gizonezkoak eta bai emakumezkoak, erdi biluzik zebiltzan, eta Aita Jaxintok, arrunt eskandalizaturik, errezo santuari ekiten zion behin eta berriro, misioko beltz basati horien alde, Jaungoikoak promiskuidade hura barka ziezaien. Baltsatik jaitsi bezain pronto, ingeles txarrean mintzo zen aitona kaskazuri bat hurbildu zitzaion eta lorez egindako lepoko bat jarri zion sama inguruan. Beste inork ez zekien ez ingelesez, ez frantsesez eta ez euskaraz. Hizkuntza zibilizatu batez hitz egiteko betarik izango ez dudanez gero, beraiena ikasi beharko dut Jesukristo gure Jaunaren mezu santua zabaltzeko! – pentsatu zuen Aita Jaxintok bere barnerako.

Eta berehalaxe hasi zen lan horretan, Dongo-Dongo izena zuen aitona kaskazuriaren laguntzaz. Bost hilabete jende haien artean egin ondoren, aski ongi moldatzen zen beraien mintzairaz, gauza normalak eskatzeko edota oinarrizko ekintza eta mugimenduak adierazteko. Haatik, aunitz falta zitzaion oraindino, meza santua edota predikuak beraien hizkuntzaz egin ahal izateko. Dena den, Aita Jaxinto burugogor samarra zen eta bere lana ondo egiteko helburua zuenez, temati ekiten zion bere parrokiakoen hizkuntza ikasteari. Urtebete egin baino lehenago, dezente gehiago ulertzen zien, eta horrela, emeki-emeki, beraien tradizio, ohitura eta ipuinak bereganatu zituen. Bere dotrina-jardueraz gain, bazuen beste zeregin bat, duela hogeit hamar urte, euskal misiolari talde batek misioa ireki zuen, eta horrela aritu ziren bospasei urtetan, baina bat-batean, misterio handiz, desagertu ziren inolako arrastorik utzi gabe. Gotzainak Aita Jaxinto bidali zuen Bunbha-Dunbhara bi helbururekin, lehena misioaren kargu hartzea, eta bigarrena galdutako misiolarien aztarnak aurkitzea.

Lehen helburua aski lortua zuela iruditu zitzaionean, bigarren helburuaren atzetik, desagertutako euskal misiolarien peskizan alegia, hasi zen. Oraindik ez bazen beraien bezain ongi mintzatzen bertako hizkeraz, aski maila polita zuen komunikatzeko eta horrela galdezka hasi zitzaien. Inork ez zion inoiz pistarik eman. Harritia zegoen oso. Zer edo zer gordetzen al zioten?

– pentsatzen zuen maiz desagertutako misiolarien inguruan egiten zen isiltasunaz arras harriturik. Azkenean, Dongo-Dongo kaskazuriaren mihitik pistatxo bat atzeman zuen. Misioan sei urte egin ondoren, euskal misiolariak jakin zuten ibaiaren barne aldera jarraituz, bazela beste herri bat benetako Jaungoikoaren izena ezagutzen ez zuena, eta zenbait kanoatan harantz abiatu ziren. Inoiz ez ziren itzuli. Beltz horien izenez galdetu eta Dongo-Dongok horrela erantzun zion: erdi euskaldunak!

Aita Jaxintok harridura handiz entzun zuen aitona kaskazuriaren erantzuna. Berriro galdetu, eta berriro ere, erantzun bera jaso zuen: erdi euskaldunak!

Eta orduan ulertu zuen gure misiolariak Dongo-Dongok esan nahi ziona. Hura bekatua! Misiolari haiek beltz haien emakumeekin harremanak izango zituzten nonbait, eta ondorengoak erdi euskaldunak ziren, noski! Aitarena sei edo zazpi aldiz egin ondoren, gogoetari ekin zion. Desagertutako bost misiolarien artean hiru, Aita Laurentx, Aita Joxe Ramon eta Aita Iñazio aski gazteak ziren, eta noski sei urte lur basati haietan eman ondoren, bertako emakumeen biluztasunak erakarrita, bekatuan eroriko ziren.

Hura zen, hura! Eta berak zer egin behar zuen? Dena estali eta inori ezer esan ez, edo erdi euskaldun horiengana joan, misiolari ohiekin hitz egin, eta egi osoa gotzainari jakinarazi? Askok pentsatu ondoren, bigarren aukerari ekitea erabaki zuen.

Kanoa bat prestatzeko agindu zuen eta sei arraunlari gazteren laguntzaz Duluma-zuli ibaia egiteari ekin zion. Ibaia oihan tropikal baten barruan zabaltzen zen eta bi ertzetako landaretza ikaragarri basa eta oparoa zen. Egunez eguzki handi batek bazterrak kiskaltzen zituen, eta gauetz animaliek sortutako zurrumurru ozen batek belarriak gortzen zizkien. Horrela egin zituzten lau egun eta lau gau. Azkenean erdi euskaldunen herrixkara iritsi ziren. Hauek guztiz beldurgarriak ziruditen. Larru bizirik ibiltzen ziren denak, bai gizonezkoak eta bai emakumezkoak, eta apaingarri gisa zulo batetik bestera sarturiko hezur bat zeramaten sudurrean. Beste hizkuntza batetaz mintzo zirenez gero, Aita Jaxintok ez zien tutik ere ulertzen, baina eskerrak arraunlarietako batek bazekiela beraien hizkeraz mintzatzen eta horrela elkarrekin komunikatu ahal izan ziren. Luzeak ziren oso, beltz-beltzak eta ez zekiten hitz bat ere euskaraz. Arraro samarra ezta? Ez al ziren erdi euskaldunak? – pentsatzen zuen Aita Jaxintok– eta gainera, gizon haiek beltz samarrak iruditzen zitzaizkion euskal misiolarien ondorengoak izateko.

Beraietako batek atzetik joateko agindu zien, eta horrela kanoak ertzean loturik utziz, erregearen txabolara eraman zituzten. Erregeak poz handiz ikustatu zituen eta bere aulkitik altxatuz zimiko bat eman zion misiolariari ipurdi masailean. Beste espaloikoa ote? – pentsatu zuen Aita Jaxintok gertatzen ari zitzaionaz eskandalizatuta. Beraien hizkuntzaz zekien mutilari euskal misiolarien berri ote zeukaten galdetzeko eskatu zion, eta orduan, erregeak zerbait esan ondoren gerrian loturik zeraman aizkora hartu eta buruan kolpe ikaragarria eman zion. Mutila konorterik gabe erori zen lurrera. Gero den-denak, misiolaria eta bere talde osoa alegia, preso eramateko agindu zuen. Kartzela modura zerabilten txabola batean sartu zituzten, eta euren harridurarako oso afari oparoa eman zieten.

Misiolariak eta bere mutilek ez zuten jarrera bitxi hura ulertzen, baina zauritutako mutila esnatu zenean dena jakiteko aukera izan zuten. Zer erantzun dik basati horrek? – galde egin zion Aita

Jaxintok, jakin-mina asetu nahian. Eta mutilaren erantzunak den-denak ikara hotz batez bete zituen:

Duela hogeit hamar urte inguru, zu bezalako bost gizon zuri etorri ziren hamabost bat arraunlari beltzekin. Herri hau kanibala omen da, eta horregatik, gauean ondo zebatu ondoren, hurrengo egunean, eguerdi partean, festa handi bat egin zuten eta bazkaldu zituzten den-denak. Horregatik kostaldeko biztanleen artean erdi euskaldunak deitzen diete, beraien kontura otordu ederra egin zutelako. Goxoenak gizon zuriak izan omen ziren, gaziak nonbait. Eta orain zu ikustean, irrikan daude zure haragia dastatzeko. Bihar besta handi bat egingo dute eta denok jango gaituzte. Horretarako eman digute afari eder hau, bihar eltzean eder-ederrak egon gaitezen.

Orduz geroztik, Aita Jaxintoren pista arrunt galdu zen, eta aurreko misiolarien galerak sortutako misterioari Aita Jaxintorena gehitu zitzaion. Handik lau urtetara, gotzainak, guztiz harriturik, beste misiolari berri bat bidali zuen Bunbha-Dunbhara Aita Jaxintok eraman zuen bi helburu bereberekin. Egun, lau hilabete igaro diren arren, Aita Josuk ez du oraindik beraien hizkera ulertzen eta Dongo-Dongoren laguntzaz ari da jo eta ke ikasten. Behin, ikasiz gero galdezka hasiko zaio, baina bitartean, euren hizkuntza ikasi behar. Gerokoak geroko utzi!